

S. ONAINDIA



# GERNIKA

1937 - 1987

Apirila

Gernikako Arbola  
da bedeinkatua,  
Euskaldun artean  
gutziz maitatua

Eman ta zabal zazu  
munduan frutua,  
adoratzen zaitugu  
Arbola santua

S. ONAINDIA

# ***GERNIKA***

Mamiña:

- Gernika zoragarri
- Gernika erraustua
- Gernika kantuz goratua

Bear diran baimenak.

© Aita Onaindia. Larrea, 1987.

Depósito Legal: BI - 832 - 87

IGARRI, S. C. L. - Rafaela de Ybarra, 1 - Deusto - 48014-Bilbao

## SARRERA

*Liburu onek ez leuke sarrerarik bear, baiña bego emen laburtzo au. Berau osotu nebanetik, azken asteotan tinta ugari erabilli dabe egunerokoak, eta zaratarik naiko irrati ta telebistak. Ez, ez da edozelakoa Gernika erre ebeneko 50-garren urtemuga ospatzea.*

*Bake-abi izan da beti Gernika, eztau egundo gerra-biderik emon; Santimamiñekoen ondoren areik eta Bizkai osokoak emen-txe alkartzen ziran, oso aintxiñatik, euren familiko ta errietakoen gorabera ta auziak lautzeko, beti baketsu ta zentzun zabaleko.*

*Etsaiak alan be, azken gerratean, bakeleku zoragarri au aute-tsi eban ezertariko arrisku barik, sato madarikatu bat egiteko autetsi be, bonba ta lerkaiz izugarriro berau zuzitu ta kiskaliz.*

*Gaur, oster, gaiztetsiak dira ori egin ebenak, eta Gernika munduari zear ezagutua ta goretsia: bakearen aldeko ospakizunak eratu ta egiteko leku berebizikoa. Ia apiril osoa daroe emen Bakearen eta Buru-jabetasunaren alde jokatu nai dabenak, batzar oroigarrian alkartuta, egun osoak lanari eskiñirik.*

*Asmoz urte barru guztian luzatzeko diran ospakizunotan Eus-kalerriak bete-betean artzen parte. Egunokaz, apirillaren 25 eta 26-tan, zapatuz ta domekaz, lora-bonbake osotu eben Iruña-tik ona eldutako egazkin pilloak; napartar egazkin alkarteak batez be egindako klabelin-bonbaketa, leen gorrotozkoa ta oran maitasunezkoa.*

*Igandez, egun berean, estropadak: Txatxarramendi-tik Gernika-ra, ibaiez ibai. Txanel lasterketa ederra, jenteak ikusi, ez-ezik benetan txalotua. 150 bat ontzik artu eban parte; eta oso bikaiña ta atsegiña izan zalako, urrengo urteetan be ospatuko ei da. Gogoko jakun janarira egiazko irrika erakutsi oi da.*

*Txillida'k oroigarri, monumentu bat eskiñi nai izan dautso Gernika-ri, galtzairu muku'u eder batez asiera emonik Batzar-Etxeko lorategi apaiñean leengo Arbola zanaren gordailluari aurrez aurrea. Izango danaren asiera baiño ez da oraindik. «Gure Aita-*

ren Etxea» deritxo; au da: gure lurra, gure aberria, gure lekua munduan, eta leku oni dautsola, Gernikako Arbola. Zazpi metro ta erdi eukiko ei ditu gorantz, amar zabal eta zortzi barne. Gure erriaren egoitza, etxez eta ontziz egiña, ontziaren aurrekaldea aretxagana doala, gaiñeko orratzak bakea, askatasuna, eroapena... ikurtuz.

Itzaldiak egin dira bonbaketan eta bonbaketa ondoren Gernikak erakutsi eban eroapen sufridua, euskoen askatasuna ezereztu naiez burutu zana ta abar, goretsi ta agirian jarriz.

Mezuak izan ziran Gernika-ri bialduak, eta Gernikak ordaiñez, usoz ta itzez bialduak. Jose Antonio Ardantza lendakariak, esaterako, onan iñoan: «Gernikarrak: 26-garrenean, Euskadi osoak, Gernika osoak batez be, gogoratuko dau bonbaz lertua izan zan eguna, Euskadi apal-azo ta mundu guztia izu-ikaraz lur jota itxi ebana. Orren oldarki au egin ebenak ez eben egundo uste izango orduko illen seme-alabak berrogetamar urte geroago egun unki-garri a ospatzen jarduko ebenik; ez eben usteko ez zuzitutako uri a, Gernika, barrizturik, oso-osoan zutik dagoala, eta askatasunaren alde orain be gogo biziz eta zuizkillu barik diarduela, zuen guraso ta adiskide illak eukezan askatasun eta demokrazi asmo bardin-bardiñakaz jardun bere.

Gure askatasun zugatza errotik atera nai izan eben, eta betibetirako lurperatu; baiña asmo ori, beste batzuetan lez, bea jorik geratu zan. Barruregi sartua dago gure aberri-kontzientzia armakaz erauti al izateko. Gernika bizi da ta Euskadi bizi da; Euskadi bizi bada, beraz, jakizue zati aundi batez beintzat, Gernika bizi dalako dogula; gure askatasuna ta Gernika bat bai dira.

Emen bada, orraitio, gauza arrigarri bat: Gernikak gorroto barik gogoratzen dau bere trajedi izugarria. Bego gerorako gure gomuta, bakezko geroa Euskadi-n eta munduari, eta askatasun osozkoa; bata ulert-etiña dozu bestea barik. Orixegaitik deadar dagigu: bakea askatasunarentzat eta askatasuna bakean».

\* \* \*

Aznenengo gerra ondatzaille ta bildurgarria joan jakun euskal erritik; guk ez geunkan zer-ikusirik, baiña bai-zergaldurik, uiol orretan. Beste garreteetan lez uiol orren erpa ta txirringa artean itzuli-mitzuli erabilli ginduezan, makiña bat giza-bizitza, etxe, Sukalde, abere ta ondasun birrindurik itxi-azoz.

Or Gernika irudi adierazle; gure erriak, eta munduak, or daukake gizaldiz gizaldi gaurko arma-tresneriak zenbateraiño ko kalteak ekarri leikezan, ustekabea, itsumustuan gizonaren taranta, illargi-aldi zorakor bat dala bide.

Beeko giza-maillak ez dabe olakorik nai. Goikoak, oster, griñatsu ta aginte-gosez, beekoen bizkar ezik, ez dabez jadetsi euren gogo-leia doillor biurriak. Eta sua dakarre bazterrak kixkaltzen. Ondorioz, barriz, or geratzen dira anaien arteko ezin-ikusi, gorroto ta sumiñak. Gudak eta politikak dakarrezan zauriak ez dira iñoiz osatzen: intxaurrondo batek beti erakusten aizkora-kozkak. Arma-eraso baten, naitaez, batak edo besteak irabazi bear, eta or lotzen jatzuz zauri sakonak oso-osoan itxi eziñak. Irabazleak bere legeak jarten, eta ortxe daukazuz beste askoren asmo ta gurariak ixil-azoak, zakar be zakar zapalduak.

Gernikak bere soin-azalean asmatu eban gerrearen erpakadak itxitako zauri ertsi-gatxa. Ez aztutekoa. Bonbaz suntsitua izan bait zan errotaraiño, oiñaztarriak funditzen dauan pago baten antzera. Azkenengo guda-istilluari zor, munduan izan jakuz olan zuzitutako uriak, Hiroshima ta Nagasaki, adibidez. Ez dagoz areik be osorik aztuak, baiña izan ete dabe areik Gernikak beste idatzi, alkar-izketa, omenaldi ta gomutagarri? Ez, ziur! Onen gomuta urdiña berezia dan zerbaitak eutsita dago bizi-indar ta iraun-dardara artean.

Gaiztakeri nabarmen au jauki ebenak bizkor ibilli ziran berau guzur-zakura bota nairik, ainbat gezi ta dardai zuzenduz errubako uts ziranen kontra; guzurraren bizia baiña laburra izan. Erretzailleak urratsez itzuli iziñik ibilli ziran, alan be kondaira egiari bere tokia emon bear. Orixegaitik edo, mundu guztiak jakin nai izan eban jazo zanaren egi bete, eta aurkitu ebenean, orduan —baita gaur be, upelka egatu eben tintea Voru-uria kiskaldu eben sua lau aizetara axatutzeko.

*Eta ementxe gagoz gu gaur be zutik. Egiaren eguzkitan, goizeko su-printzak dizdiztu dauan osto berdea iduri. Gernika etzan egun areitan gudu-oin, istillu Ierro, ezta gero be. Atxakitzat artutako zubia, Errenderi-ko zubia, orduan lez dago oraindik, azpitik ura ta ganetik kotxeak eta jentea. Andik igaro gintzazan eta andik igaro ziñien zuok be, gu atzatzeka ta zuok aurreraka. Andik igaroteko, arrisku aundi zala-ta, Gernika lerkaiz josi ta su-tortxoiz kiskali?*

*Berrogetamar urte. Gernikar eta kanpotar asko il ziran bonbaketa negargarri aretan. Asko ordukoak eta arein seme-alabak bizi gara oindiño, ta jazoera a ospetzen dogu. Ez gero gorrotoz eta sumindurik, errukiz eta tamalez baiño. Or alde! Euskotar biotza ez da gorrotorako...*

*Jote, birrintze ta erretze madarikatu a, gerra-saio makur a, etzan ez ustean egin, jakiñaren gaiñean, ondo pentsatutik baiño: laba kiskalkor aretatik igesi joian jentea, zaar eta gazte, ama ta aurtxo, bee-beetik erasoten eben eleman eta italiar egazkiñak.*

*Eguzkiak arrezkero sarri egin dau bere sartu-urtena. Zuzen-tasunak eskatzen dauala orduan jazoa aztutea? Ez dala egoki joana oraiñaz orren estu loturik eukitea? Aspaldi gertatua ain bizi gogoratua? Bakea illai ta parkamena oker egon ziranai? Ederto!, ederto! Gaurko gazteak, alan be, jakin dagiela zer jazo zan; ez gorrotorako, bai ondorengoen zentzadurako. Ez, ez bedi jausi bonba geiago Gernika gain, ezta munduko beste uri bat ez daitela suntsitua izan.*

*Olako sentipenez burutua da nire lana. Iru zati daukaz: a) Gernika zoragarri; b) Gernika erraustua, ta z) Gernika kantuz goratua.*

*Eder bekizu berau, Gernika ezagutu, maite izan eta obeagotzen alegindu zaitezaz.*


**Larrea, 1987-V-2**

**AITA ONAINDIA**

"V



Ezki (tilo) ibiltokia.



Batasunaren Enparantza



Batzar-Etxea eta Gernikako Arbola

Batzar-aretoa, goi ta bee, jarlekuekín

## I Z A T I A

### GERNIKA ZORAGARRI

Gehexan Ponttok au idatzi eban Baiona-ko HERRIA astekarian aurtengo apirilaren 30-ko zenbakian:

«Duela berrogoi eta hamar urte —astelehena zen, merkatu eguna— Aleman airekoak suntsitzen zuten Gernika, suzko uharra ixurtzen zutela Euskaldunen hiri maite sailduaren gainean.

Gehiago dena, ikaragarritzko gezurra sakatu zuten frankistek erranez Euskaldunek berek erre zutela Gernika. Eta luzaz, biziki luzaz, jendeak sinetsi. Gezurra haundiago eta sinestez errezago.

Berrogei eta hamar urte iragan dira. Egiak egin du bide. Gernika bizi da, Euskaldunak ez dute deus ahanzten eta Gernikaren suntsitzearen oroitzapena biziko da mundu guzian Picasso-ri esker».



## ITZ-ERROA

Ona gai bati eldu aurretik, geure buruari dagiogun itauna: «Zer da ori? Zer da bidea, arrantzua, erlegintza?» Gero datoz beste zeaztasunak eta gaiaren azalpenak. Emen be, beraz, nik diñot beste ezer baiño leen: «Zer esan nai dau «Gernikak?». Euskal toki-itzak, batzuk ulert-errezak dira; beste batzuk naikoa zaillak. «Goikoetxea» erreza da, ba-dakigu zer adierazo nai dauskun, beekoa baiño gorago dagon etxea. Baiña «Gernika», nire abizena, «Onaindia» ta olakoak zail samarrak dituzu; sustraira jota be, egiazko argitasuna errez ez dakarskuenak.

«Gernika» ta «Garnika» erro bardiñekoak ei dira. Eta Juan R. Iturrizak, 1785-an argitara emon eban «Historia General de Vizcaya» liburuan «bizkar», «muiño» dala diño, erri au Kosnoaga mendiaren bizkartzoan aurkitzen dalako. Gaur, ostera, lau samarrean daukagu.

Itz onek emon dau, ta emongo be bai buruko miñik, berau nundik datorren aztertu naita. Dala «gern—», dala «garn—» itza-ren leen-atala, biak jakuz adieraz-gatzak. Hitz-amaitzat «—ika» dabenak badira Bizkaian eta Araban; naikoa gaiñera —Gabika, Fika, Totorika, Lekerika, Gorozika, Asterrika, Basterrika, Zabaldika, Ledika, Artika, Barrika, Sondika, Zabaldika, Atxika, Zulai-ka, Amarika, Bitarika ta abar—, itz onein bigarren zatia ez da iñundik be errez adieraztekoa. Jakitunak, ekiñaren ekiñaren, su-karritik txingarra lez, argia atera nairik, alegiñak erreta be, nekeza izango jake onezkero arlo orri buruzko argitasun aundirik lortzea.

Azken urteotan itz-etimologi auzian lan ikaragarria burutu dauna, López Mendizabal dogu. Or dogu aren «Etimologías de los Apellidos vascos» liburua (Buenos Aires, 1958). Gernika itzak

erderaz «zarzal» esan gura dau {erro, erno, arno, erni, «zarza») eta —ika atzizkia, G, proteikarekin. Usgunean zapart lartxo egitea ez ete?

## URIAREN EGOITZA

Eder, apaiña da egiaz Gernikaren seaska zabala. Bizkaiaren biotza ez baiña, erdi-samarra dozu. Nik onela margoztu neban Gernika «Lamiñak» idaztean: «Bean plaza edatua, zugatz orritsuz dana inguratuta. Astegunez umetxoz bete-beterik, erriko eskolak bait daukaguz berton, albo bietan. Jai eta domeketarako musika jo ta dantzari emon, toki berezi-berezia. Beeragotik, atertzeka dabiltz, Bermeora ta Lekeitiorantz doazan kotxeak, eta Zornotzatik, Muxikatik eta Errigoiti aldetik datozenak. Urriñago, teillatu gainez bistan dagoz Aiengiz eta inguruetako solo, landa ta piñadiak.

Ibar guztion, ego ta ipar, ikusgarria dago. Ikusmenari ego zabalagoak emonez gero, an urrin, gibel-zokondo lez, Ereñozar, Burgo, Burgogane ta besteak. Jo eskumarantz eta osertzean daukazuz Oiz gaillurra ta inguruak illun samar, Bizkargi onen lepagaiñ konkordunak, beti eder ta sotil. Atzekaldean Luno daukazu, Kosnoaga ta Foruko arkaitz illuna, gaur ozka-tramankulu gaizto baten agiñez naiko koskatua. Laua da geienbat Gernikako ibarra, izurdura gitxikoa». (*Lamiñak*, Zornotza, 1978, 94 orr.).

Bizkargi, Muxika, Errigoiti, Oiz ta Nabarniz aldeko urak, geienak, Oka errekea aunditzen dabe, gero, Gernikatik aurrera Mundaka izena artuz, bere urak Kantauri itxasoan utsituz. Barriro esanik, ibar luze, eder, aberatsa.

Ementxe dago Gernika, sai-abi guri bat iduri, itxasotik amar bat kilometrora. Ementxe daukagu Gernika, oraintxurarte solo, landa ta aberez bizi izana; gaur industriz be txarto ez dabillena.

Beronen mugak eta ertzak ez dira beti bardiñak izan. Ezta lur-sail eta bazterrak be. 1882-an Luno-gaz alkartu arte, Gernika txikia zan lurretan, 3 bat ektareakoa, naiz-ta gaur daukan lekuan

egon: iparrerantz Foru, Egorantz Muxika, sortaldera Mendata ta sartaldera Errigoiti.

Gero, 1943-an, Aiangiz lotu jakonean, Udal onetatik 762 ekta-rea artuz aunditu egin zan errime; 1967-an, oster, Korteziubi, Nabarniz, Foru ta Murueta erantzi jakozan, are geiago aundiagotuz. Jentez ez da beste bizkaitar erri batzuk baizen ugari azi: 18.500 bat arima eukiko ditu gaur-egun.

Bero-otzez ez da leku txarra. Aizerrota ta Burgoa mendiak daukaz atzetik, 300 ta 400 metro goi diranak. Kantauriko ura Gernikaraiño eltzen da; emengo giroa, beraz, itxas-egalekoa, amala bat maillakoa urte barruz, 12 gitxigora bera neguan, eta 20-koa geien be udaldian. Euriak polito ezotzen ditu inguruko lurak, udagoienez eta udabarriz atan be, ez ainbeste, baiña, maiatz, bagil eta garagarri barne.

Kementsu da gernikarra, eta uri au, 1937-an, kiskaldua izan zanarren, Gernikak arrezkero etxe, kale, egurats-toki ta gaiñerakoz jantzirik, aundiki itxura apain dotorea artu dau; etxe ta bizileku moduzko ta panpiñak ezezik, banku, tailler, lantoki, diru irabazleku ugari be ba-dituzu Gernikan. Jentez, bertoko ta kanpokoz, itxuraz ugaldu da, 1970-tik ona batez be. Leengo urteetan Amerikara ta Australiara joan oi zan bertoko jentea: gaur gitxiturik dago kanpora joate ori, pelota barrutian izan ezik. Kanpotik etorritakoak gailleguak, Zamorakoak eta andaluziarrak dira geienak.

## I Z K U N T Z A

Giza-eskubideen landakoa da izkuntza. Izkuntza!, gainberakoi ta itxiak ez ba-giña, jagon eta arduraz zaindu bear geunkana. Bizarnasa da norbere izkuntza. Itz-egineez dagerkigu geure nor-izatea, izkuntzak dagi gure nortasuna; izkuntza da gu benetako bizidun biurtzen gaituna. Txoriak, arraiñak, liliak euren nortasuna dabe, baiña ez giza-antzekoa. Beste zerbait da eurak daukiena; lurrealde asko dira lurbiran leenago eder ziranak, gero eder-izatea galdu ta eremu egiñak.

Izkuntza dau erriak berezitasunik gorenena. Gogo-biotzez erakutsia. Arbaso ta gurasoengandiko arnasa. Guk euskeraz, geure izkuntza jatorrez artu genduan geure izaera, amaren bularra xurgatu ta artuaz ikasia. Geure euskera!

Euzkadi, bere euskera galdu ezkeror, ez da Euzkadi, beste zer-bait baiño. Arnasa, bere arnasa galdu dauan erria, ez da iñolaz be egiazko erri. Ba-ditugu ingurumari antxiña baten euskaldun izanak, gaur ez diño iñok euskaldun diranik. Lurrak bai, mendiak eta abar, leen bezela diraue; baiña lur ori zapaltzen daben gizonak eta emakumeak ez dira euskaldun. Egi oni ez egiozu uko egin.

Gernika oraintsu arte euskaldun izan jatzu. Izker bereziz mintzatzen bertokoak, gaur be ingurukoakaz zaindurik berezitasun ori. Oka ta Mundaka erreka, ezker eskuma, egiten dan euskereak ba-dauka bere zantzu aparta. Nik berrogetaz urteak daroadaz Zornotzan, eta or ingurutik datozanai, oker aundi barik, igarten dautset nuntarrak diran. Euskeraz egikeran ba-dabe doiñu berezia ta itz-arteko azentu berekia. Adizki batzuk be bai, *artun* aditza ta gaiñerakoak; Gernika ta inguruetan izan ezik, ez da *artun* esaten, *artu* baiño.

Nire ustez ez da garrantzizkoena iker-lenetan urteak erretea, itz-egin, itz-egitera bultzatu ta irakurteko literatura sortu ta zabal-tzea baiño; alan be, bertoko euskerearen zeaztasun osoari buruz lan barri sakonak egiteari, egoki be egoki deritxat; onako lanak egiñak dira batzuk, geiegi ezta be, leen eta orain. Onako bat «Ensayo sobre la entonación vasca según el habla de Guernica», bertoko seme Jose Bazterretxea, «Oskillaso»-k egin eta Iruña-ko «Fontes Linguae Vasconum» aldizkarian 1974 ta 1975-ko zenbakian agertua. Seber Altube-k egin lanak albora itxirik.

Zenbateg berba dagie gaur euskeraz, Gernikan? Ez da errez jakitea. Albo errietatik joanda asko dagoz gaur bizitzen Gernikan, euskeraz dakienak ain zuzen. Oneik euskeraz mintzatzen dira ala ez? Or untzea! Ume ta gazteen artean, eskola ta ikastoletan, leen baiño naikoa geiago ikasten da. Baita kanpotarrak be ikasten dabe, eta sarri bertokoak baiño geiago jakuz orretan.

Kezka bedi Gernika arazo ontaz, areik eta oneik euskalduntzen aleginduz.

## JAIK

Jaizale jatzu euskalduna. Ona ori egiztatzeko erakusmen bat. Oraintsu Aratuzteak dirala-ta, Garizuma asi aurretik, zelako jaiak berton, Bilbon, ainbat ibilte, joan-etorri, panparroikeri ta mozorrotzez, ume, gazte ta zaarren taldeak ugari osoturik. Azkenez, zubitik beera bota dabe kalerik kale erabilli daben «sorgiña», burumakurka gur egiñaz. Mutillak!, gur egiteko ez ete dogu zer oberik? Ni ikasle nintzala Begoñan olako zerbait egin eroien Bilboko zozolisto ta gorriak: Aratuzteak amaitu-ala Artxandara igon oi eben «sardiñeari» lur emoten. Garizuma amaitu arte egon zedilla lurpean! Eurak aragia jango eben bapo. A zelango oiturak!

Gernikarrak, au ez dakianik ez dago, jaizala amorratuak ditugu.

Urte batzuk dirala, J. L. Muñoierro-k, kazetari danak, idatzi eban: «Kristiñautasunak asmatu eban domekea, inglesak zapatua ta gernikarrak... «Gernikako Astelena». Lenengo jaiak ia-ia bi milla urte daukaz; bigarrenak gizaldi bat eta erdi lez, eta irugarrenak, nok daki noiztikoa dan! Jentil jaiak dira azkenengo biak, ez dabe santurik, ez jainkorik, paganuak dira.

Oka ibai ondoko Gernikan ospatzen dan jai au entzutetsua da oso, Gernikako arizpeko batzarrak baizen antxiñakoa bear bada. Delmas jaunak onantza etozan ibiltarientzat gida-liburu bat idatzi eban, erri, bide, ibai, mendi ta olakoz ornidua, 1864-an argitara emona, eta bertan diñoskunez, Gernika arresituan egunero «ospatu oi zan azoica bere plazan, ortuariz, frutaz, egartziz, eizakiz eta arrainkiz. betea. Astelenetan, atzenez, peri-eguna egiten zan, abelgorrien azoka».

Entzute aundia artu eban urrilleko azken astelenak batez be. Irudi eziñeko gora dau azken urteotan. Astelen oro, oitura danez, ardiak solo gurira bai litzan, trunbilka doa jentea Gernikara, albo errietatik gitxik itxiko dau ara barik, goizean ezpada, arratsaldean. Eta orduan ikusgarria egoten da egon be Gernikaldea. Trenez, kotxez, oiñez al dan moduan doaz zoramenak aratuak lez. Bete-bete egiten jatzuz denda ta saltokiak erosle ta ikusgaiez; taberna ta jatetxeak blei-blei; frontoi, dantza ta jolasiekuak gaztez asetuak. Ainbat arrotzez pozik daukazu Gernika.

Orrez gaiñera agustuko Andra Mari'z, beste erri askotan lez, jaiburu galantak ospatzen dira aspaldi danetik, Erroke deunez amaia emonik. Era berekoak ditugu alboetako ermita ta ernetako jai-egunak. Gu bai jaizale! Era orretan biziaz, ez lengoak bakarrik gaurkoak be esan leikee gazteakaitik:

«Dantzan obeto daki  
artojorran baiño».

## KULTUR JAIK

Kultur gauzetan, gizaldiz gizaldi, ez da eskaxa izan Gernika. Lur onak frutu ugari-onak ekarten. Ainbat gaitan gizaseme jatorrak emon ditu foru-uri onek; emen baiña, ez luzatzearren, ez dogu bat bera be aitatuko.

Alan be, ezin bestean, begoz aitatuak azken aldiotakoak: Allen-Salazartarrak, Faustin Arrieta, Domingo Kanala, Aita Martin Murrutia, Aita Juan Ruiz Larrinaga, Segundo Olaeta, Jose Basterretxea, Aita Luis Villasante, J. A. Arana Martija eta abar. Aiangizko Oar-Artetarrak eta Balendin Aurre-Apr aiz olerkaria albora itxi bage.

Eusko Ikaskuntzak, 1921-ko iraillaren 25-an Gasteiz-en eginda-ko batzarrean, Gernika aukeratu eban «Izkuntza ta Irakaskuntza» gai arturik, Batzar orokor aundi bat egiteko. Bilboko Aldundiak gertatuko zituan jai orreik, Gernikako Udalak be lagunduz. 1922-ko iraillaren 10-tik 17-ra ospatu zan eta aundikiro ospatu be Batzar ori.

Euskal Izkuntza ta Irakasketari gagokiozala, Urkixo, Kanpion, Elizalde ta Euskaltzaindikoak izan ziran maiburuko. Irakaskuntzan, barriz, Landeta, Zaragueta, Urabain, Arantzadi, Eguren eta Apraiz. Egunean-egunean, egitarauan etorrenez, bete ta ornidu ziran egiteko ziran paperak eta aztertzeke ziran gaiak, au da, Itzaldiak, irakasketak, kantak, antzerkiak, ikasaldiak, dantzak, bertso-saioak, txistularien ekinaldiak, eta abar.

Lenego egunean, domekaz, Galbarriatu jaunak Santa Maria eleizan meza emon ostean, batzar-jaunak eta erria Foru-plazara zuzendu ziran, emen ondo-etorri itzak bertoko alkate Toña jaunak eta Eusko Ikaskuntzaren buru zan Julian Elortza-k esanik, eta euskeraz ain zuzen be. Jarraian Bizkai Aldundiko buru Jauregi ta Martin Zabala senadorea mintzatu ziran. Gero erakusketa batzui emon jaken asiera. Arratsaldean Guridi gasteiztar ereslariaren «Amaya» opereaa antzeztu zan Aiangiz ondoko zelaian, Bilboko Koralak eta Orkesta Sinfonikoak parte arturik, antzezlarien artean, kanpotik etorritako doixtar eta italiar andereñoakaz naste bilbotar Eiola, Fagoaga, Agirresarobe ta Olaizola abeslariak. Ondoko egu-netan, au da, astelenetik eguenera be Orrelaxe jarraituz. Barikuan eztabaida biziak sortu ziran «Euskera ta Estadua» gaiari begira batez be, eskoletako elebitsari ikutzean bereziki. Arratsaldean mugaz ango ta emengo bertsolarien arteko jarduna; trebe ta zoli agertu ziran euren artean Gernikako Benantzi Agilezpeiti ta Félix Ladislao. Bertoko Udaletxeko bandeak, Segundo Olaeta-n zuzendari-tzapean, ainbat kontzertu eder emon zituan jaiotan.

Iraillaren 16-an, zapatuz, Alfonso XIII, Espainako erregea eldu zan Gernikara bere jarraigo ta guzti. Batzar Nagusiaren amai-eguna zan. Lizeu-an egin zan berau. Erregearen biran jarri ziran Euskal Aldundietako buruak, Oroz, Aranegi, Jauregi ta Elortza. Itzaldiak eta azken erreguak. Bazkal ondoren erakusketak ikusi ta erregeak Lekeitio-rako bidea artu eban.

Arratsaldean, erregea joan aurretik, jazokun bitxia. Gaur ez bakarrik, orduan be kale-jira ta manifestapenak eratu oi ziran: kartel aundi bat «Eusko Ikastetxea nai dogu» iñoana Josu Mirena Leizaola-k eroalarik, goiko kalean asi, gar ori somatzen eban jente askoz aziagotu ta... Poliziak au ikusi eziñik, jentearen aurka gogor ekin ondoren, agiri-eroalea ta «Euzkadi» egunkariaren Zuzendari Ramírez Olano atxillo artu ta giltzapean sartu ebazan. Urrengo egunean, barriz, eskuak loturik, Bilbora ekarteko asmotan etozan oiñez, baiña Bilboko jaurleriaren aginduz Erletxetan askatu ebezan.

Iraillaren 17-an, igandez, amaitu ziran esandako euskal jaiak, obeto eziñik ospatuak. Alkartasun Plazan mezea eukita gero, batzarrean batu ziran Aldunak eta gaiñerakoak. Eusko Ikaskuntzako

idazkarí Apraiz jaunak irakurri zituan Batzarreko sail bakotxak onarturiko erabagiak. Gero, guztien artean Gernikako Arbolari ornen samurra eskiñiz, Foru Plazan egindako dedu-zeremoni ederraz amaitu zan gauzea.

Gozo ta aundiki jaiok amaitzeko, bigarrenez antzeztu zan Uar-ka zelaian Guridi-ren «Amaya». Orobat, illuntzean, Bilboko Or-kestak kontzertu bikain bat, erriaren gogo-betegarri.

## EUSKAL FESTAK

D'Abbadie jaunak asitako euskal jai edo festak, ainitz urtetan izan jakuzan ospe aundikoak. Pitin-pitian or-emen erri berezietan egin oi ziran. Baita Gernikan be. Joan gizaldian 1888-ko irailla-ren 8-tik 10-ra Gernika'n burutu ziran gar ez txikiz etozan kul-turazko festa-egunok.

Gernika urian eukitako jaiak ba eben garrantzirik, egiteko gertatu ta bete ziran egipen aintzagarriengaitik euki be. Oso erri-koiak izan zirala esatea dagokigu, edozein erritan eta edozein ga-raitan aurrera aterateko eredu lez artu leikezanak. Zergaitik ete? Erriko elementuak, gernikarrak artu eben parte: ezpatadantzariak, bertsolariak, aurrekulariak, zaarrak eta gazteak. Poesi-estrofa ziri-kagarritz jantzi zituen leio ta balkoiak, Iparragirre ta Arrese-Beitia gogora ekarriz. Errikoiak baita aari-topekak, arri-jasotze, palanka-ri, txistulari, musika-banda ta orfeoi-konkurtso, eskoletan margo, irudi, taillukintza ta artezko erakusketa ta abar.

Baziran oindiño beste zer batzuk be jentea bizkortu, gogo-bete ta sutuz, bazterrak giroz jarten ebezanak: bertsolari, olerkari ta euskal idazleen sorpenak, izkirimiri ta ipuiñak, erritar jenteak beti pozez gaiñezka artzen ditunak. Literatur zein-geiagokak noznai ditugu eder, txalogarri. Euskal jai guztion elburua bait zan euskal kutsua euken zer guztiak aizatu ta bizi-aztea.

Urte ontako idaz-batzaldi ta itz-jostaketa Batzar-etxe barruan ospatu zan, ebatzi ta gogo batez. Sariak emokerakoan, Arrese-

Beitia izan zan lirikan leen-saria eskuratu ebana; *Gure bandera* (liburu onen atzenean datorrena) eritxon, eta Migel Unamuno-k irakurri eban berau. Aapaldi ondo biribildu ta sentikorrak egiaz!

Ganadu erakusketa, txirringularien nor-geiagoka ta gabeko ziri-suzko ekiñaldiz amaitu ziran jaiok.

Beste bein be, 1922-an, teatru-batzaldi bat eratu zan Gernikan, teatrua ta teatru-zaleak ugaritu nairik. «Gernikar Alkarteak» eratua nunbait. Giputz Errenderiko ta Debako antzezleriak bertoratu ziran, eta Errenderiko Tedor Goñi-k zuzenduriko taldeak jaso eban lenengo saria ta Debako «Tene» idazle jatorrak zuzentzen ebanak, bigarrena.

## NEKAZARITZA

Esan dogunez, lau baten dago Gernika. Oiz eta Bizkargi mendiak euren ur saltari tartaiñez aberastutako Oka-k goitik beera, konta ezin alako mende luzeetan oiul-lurrez osoturiko lautadan ain zuzen, Ementxe irasi eban Tello jaunak, Bizkaiko konde zanak, 1368-ko jorraillaren 28-an, Orduñan emondako idazki batez. Karta orretan aitatzen ziranez, lur zabalak ziran Gernikarentzat, baiña egitez eta legez, kilometro gitxiren jabe izan zan Gernika, 1882-ko urtarrillearen 8-an Luno (edo Lumo)'gaz alkartu zan arte.

Luno azpian datza Gernika, au da, Luno-ren magalean lokartua. Bilborako bidetik ezker, Kanpantxu, Aiangiz, Errenderi, Kortezubi, Foru, Burgoa; Foru-ko arkaitza, Luno, Lurgorri ta abar eskumatik, lur-zati zabal, eder, bipilla dauka Gernika-k. Eta lau-ne guzti au, geiena beintzat, soloz, ortuz eta baratzaz beterik. Ikusarte guztia, ezin dogu ukatu iñolaz be, begi-betegarri ta eskertsu ta ugaritasunez jantzia da. Ez dago, gaiñera, lur-une alper, lantzar eta elkor itxirik; dana dozu erabillia, nekazari onak landua.

Emengo ta inguruetako barazki ta ortuariak beti izan dira, baita gaur-egunean be, entzute zabalekoak. Bertoko landa ta soloekarriak merkatu edegia dabe, berton, Eibar, Zornotza naiz Bilbon.

Emengo ta auzoetako piper, tomate, ta beste ortuariak urteko edozein arotan izan jatzuz edertzat artuak eta balio onekoak. Etxalde bakotxak ez dau lur-zati aundirik, baiña daukanari guna ataraten ba-daki gure baserritarrak. Leen garia ta artoa erein oi zan; garirik ez da orain ereiten, eta artoa be urri samar, naiz-ta arto artean edo-ta bakarrik naiko patata ta indaba artu. Orrez gaiñ ortuari mota asko batzen da Gernikaldean; oraintsu asi dira Kibi-sail politak landatzen be. Txiña aldeko fruta-zugazño au bait dogu, seguru asko, Euskal-erriko igale-arbola bikaiñena, etorkizunean.

Gernikar baserritarrak, ortuariz kanpo, txalak okelarako ta beiak esnerako azten ditu. Korta bete-ederrak ikusten dira, Erri-goitirako bide egaletatik batez be; ez da gitxi izan be bertoko abere ta ganauentzat artzen dan ortubedar eta ganajatekoak, negurako batez be, solo, landa, beresi ta zelaietan.

Abere larria gero, etxe geienetan azi ta jagoten diran egazti, txarri, untxi ta konejuak, diru ugaria dakartse gure baserritarraí. Amar bat urte dirala egindako kontaketa edo inkesta batek dirauskunez, ia 4.000 buru ziran emen inguruan bei ta idi, olandarrak geienak; eta 15.000 bat egazti.

## PERIAK ETA AZOKAK

Peri, azoka, merkatu ta abar, gauza bardiña adierazo ete nai dabe? Nik ezetz uste. Ni bederatzi-amar urteko nintzala, aítak Markina-ra eroaten nindun. «Goazan Markina-ko perira» esan oi eustan. Eta ni pozik, sasoi ortako mutiko guztiak lez. Eta an, Markiñan, abere ta ganadu asko batzen zan peri egunean, zapatuz ain zuzen. Zornotzan domekero ospatu oi da azoka, bertoko ta kanpoko jente askoren biltoki; kotxez, zama-burdiz eta kamioiz jente asko dator bertora, salgei asko ta era askotakoak ekarriz. «Azoke» deitzen dautsogu iganderoko jai oni. Abelgorririk ez da saltzen, jantzi, oiñetako ta tresneri eskerge bakar-bakarrik. Beraz, ba-dakizu ze alde dagoan batetik bestera; «peritik» «azokara» esan nai dot.

Noiztikoak ete dira Gernikan «peri» naiz «azoka» ospatzeko oiturak? Antxiña bateko istoriaren laiño artean galtzen jakun zera. Aspaldiko erri ta etxaldeak ditugu Luno, Muxika, Arratzu, Aian-giz, Kortezubi, Artia, Foru... Eta antxiñatik dakarre gora aparta Gernika ta ingurukoen abere periak. Bide-erdian lez aurkitzen zala-ta, ona artu eben joera inguruetakoko baserritarrek, ez ortu ta landa emoiak saldu ta erakusteko bakarrik, baita eurok salduaz txanpon-mordo galantak etxera eroateko be. Atxaki ta diru-irabazte au dala bide, jente-aldra ederrak batu izan dira urteak zear Gernikan, peri ta azoka egunetan. Onek ondorenez bizkor-azten gure Foru zaarren uria. Galdetu barriro be: «Noiztik dator oitura au?». Itan-du laiñoari noiztik dabillen bira-biraka Oiz gurenean. Ez dautzu erantzungo.

Ganadu, abere, egazti ta olakoak bakarrik etziran Gernikan erakutsi ta saltzen. Baserrietan bear ebezan tresna ta lanabesak eskinka be ainbat saltzaille agertzen ziran, euren solo-tramankulu, lai, atxur, golde, are, bostortz eta gaiñerakoak era guztietakoak illargi-antzeko oboan ebezalarik; ainbat buztarri, sapa, idi ta beien-tzat mantak, apaingarri dotore ta bitxiak, moduzko abarkak... Ez eban ezek uts emoten.

Gernikako peri-lekua, abereena, San Juan kalean aurkitzen zan gerra aurretik, gaur parke txiki bat dagoan lekuan. Orain merkatu plazan egiten da azoka ta Maloste-n ganaru peria. 1942-an jasoa dozu azoka leku barria, zabal ederra.

Ospe zabaleko peri ta azoka oneitara joateko urriñeko jentea bizkortu oi da. Zornotza, Durango, Eibar, Markiña, Munitibar, Ibarrangelu, Busturi, Morga, Mungi ta errixka orreitako jenteak ba-dauka joera, bizia, Gernikara urreratzeko. Labur esanda: Gernikako plaza nainoz daukazu jentez eta salgaiz betea.

Mendirako piñu-landaretan naiz solo inguruetarako fruta-lan-dararik bear ba dozu, zoaz Garneikara ta zer nai axe aurkituko dozu bertan.

## ASTE SANTUKO PROZESIÑOAK

Gernika ezta atzenena izan erlejiño auzian. Bizkaitar erriak oro batzar nagusietan alkareturik demokrezi gai ta ekanduetan aurrelari izan jakun lez, Jainkoari ta barne-ezpirituari dagokiezan arazoetan be, Gernika eredu izan jakunik ezin daikegu ezetzik esan. Euskal erriak orain arte, arrizko monumentuetan ez-ezik, barruko goi-zaletasuna, urtearen barrena, Kristoren misterio aundiak ondo be ondo ospatzerakoan batez be, erakutsi izan dau; au, ostera, erri azietan naiz ain aziak ez diranetan.

Eguen Santu ta Bariku Santuko prozesiñoetarako, alboetako erri txikiak, bideak betean, erri nagusiagoetara aldatu oi ziran. Amorotokoak, esaterako, Lekeitiora. Gernika birakoak nik ezagutu dodaz talde ederretan Gernika-ra urreratzen. Emen eleizkizun bikaiñak ospatu izan dira Aste Santuz, gaur be baita ospatzen. Bertoko ta kanpoko askok eta askok parte arturik. Ezta artobero usaiña; ni egona naz iru bider eta ba-dakit ondo jakin be zelan jaitzen dan Aste Santua. Urte batzuk dirala, Fernando Bizkarra jaunak deituta, egun orreitako itzaldiak egin bear izan nebazan. Bariku Santuz, goiz-goizetik, kaletik kale ibildeuna, errezuz eta kantuz. Irudien artean Doloretako Ama, San Juan eta Enterrukoa... Askok negar-malkoz! Leio ta balkoiak zapi baltzez jantziak...

Erriko etxeak eta kale-zuloak dardarka jarten ebezan kantu bioztiak. Erriak koruan eta abeslariak bakarka, beste musika ta kanta askoren artean, au izan oi zan legezkoa:

«Jesu-Kristori / kendu ezker  
pekatuakin bizitza,  
baldin ezipadot / negar egiten  
arrizkoa dot biotza;  
guztiok lagun,  
kanta dagigun  
bere penazko / eriotza».

Nik azkenengoz ospakizun orretan parte artu izan nebanean, prozesiñoa Bizkai Banku atarían geldí, ots-egin neban itzaldia,

jazokunak eskatu lez labur eta mamintsu. Koruak «Stabat Mater dolorosa» abestu ondoren, Andra Maria eleizarantz artu genduan, Udaletxeko banda zoliak lagunduta, azken bako kantutan.

Gaur-egun ez da erreza olako prozesiñoak eratzea, gure kale ta bideak kotxez eta jentez bete-beterik ditugulako. Bizi-neurriak aldatuaz doakiguz. Eta lengo oiturai ezin ba, naita be, osoan eutsi.

## MUSIKALARIAK

Gernika aldi oro izan da arteari emona, ta batez be musikan ta kantuari lotua. Aurreko gizaldietako lana saiets itxirik, mende ontako batzuk aitatuaz be aski daukagu. Seber Altube ta Olaeta'tarrak urte mordoa beteten dabe.

Lelokeri askoren artean, gaur, au be esan da: euskal errian ez dala izan erlejiño musikarik. Bai, mutil, izan da, ta ugari, aberatsa izan be! Aztertu, ikasi zuk be, ta ez ibilli ao zital batzuk diñoena ber-esaten. Barregarri dozu ori!

Euskal errian eleiz-koruak izan ditugu besteak beste musika zaletasunari su-emon dautsoenak. Gernika aurrelarien arteko dala; orra mende onen asikeran Juan Ojanguren Andra Mari eleizako korua biztu-azo ebana, Eleizeak garai aretan emon zituan liturji-Ilege barriak onartuz.

Erri-maillan, oster, Seber Altube-k Musika bandea sortu eban 1901-an, eta andik laster 1903-an bertako Orfeoia gernikar abeslariakaz, or-emen ainbat kontzertu ta entzunaldi eder emonaz. Gorago esanda geratu danez, 1922-an, Euska Ikaskuntzaren jaietan, lanik naiko burutu eban Koroa izan zan.

Urte areitan agertu zan Olaeta be «Elai Alai» izenarekin, erri-musikazko zabalkunde lanean. Arrezkero makiña bat joan-etorri egin ditu mundutik eres-talde onegaz. Gudu garaian erdi ondatu zananren, gero talde ontakoak izan jakuzan ain zuzen be Seber Altube-ren gizon eta emakumeen taldea osotu ebenak.

Anai arteko, obeto geure Aberria jagon eta etsai-erasoari agi-  
ñak erakutsi gurako gerra zitalaren ostean, 1950-an, Altube ta  
Segundo Olaeta-ren kantariak alkaturik, «Artagan» korua anto-  
latu eban Biktor Olaeta-k, andra-gizonena noski, or-emen denpora  
luzean kontzertuak emoten ibilli zana.

1954-an barriz, Andra Mari eleizan organu-jotzaille zan Ri-  
kardo Zallo-k Santa Zezilia Korala sortu eban, kanta ta musikal-  
diak emoten Euskalerrrian zear ibillia; gero, Zallo Bilbora aldatu  
zalako, Andra Mari eleizako Korua, Koru abeslaria, Jose Antonio  
Arana Martija-ren ardurapean geratu zan. Onek, parroikiko eres-  
zeregiñak osoturik ainbat urteera be egiñak ditu kanpora, Markiña-  
ra (1978), Eslaba-ren omenezko Musika Astean; Errenderi'ko Mu-  
sikastean be esku artu eban (1979); bai, Gernikako «Andra Mari  
Koralak» beti ta nun-nai bete izan dau aundikiro bere musika  
papera.

Gaur-egun iru Abesbatz daukaguz berton «Andra Mari Korala»,  
nagusiena, eun kontzertu doi-doi emon dabezana; «Odeiertz»,  
gazteena 1982-an sortua, neska-mutillena; eta mutikoak osotuten  
daben «Sebar Altube» izenekoa. Iru taldeok «Andra Mari» kora-  
laren erakuntzaren pentzutan lan dagie.

Gaiñerakoan 1983-tik «gregoriar» izeneko musika akademi bat  
be ba-dauke gernikarrak, «Juan Ojanguren» deritxona. 1901-tik  
1951-rarte parroikiko organista izan zanaren gomutaz ain zuzen.  
Juan Antonio Arana Martija dogu akademi onen Zuzendari. {Ikus  
*Auñamendi*, Gu-Hablista», 132 orr.).

## GOMUTAGARRIAK

Guk kasu gitxi egiñagaitik, Euskalerrrian, zazpi erkietan gero,  
naiko oroigaillu ta gomutagarri daukaguz zelai zabal-eder batean  
lili-pitxiak lez sakabanatuta. Gernika ez da azken barruti ontan be.  
«Abola Santua» beiñik-bein antxiñako urteetatik berton burutu oi  
ziran bizkaitar sendi-batzarregaitik, Iparragirre ta Arrese-Betitia-

ren kanta bero sentikorrakaitik, eta 1937-ko apirilaren 26-an bonbaz ta lerkaiz austu ta kiskaldua izan zalako, gaur munduan oiartzun zabala daukona danik ez dau inok ukatu al izango. Edozein ikuspuntutik begiratu, Gernika gaur ezaguna ta maitatua dozu.

Naiz bertokoentzat naiz kanpotik ikustaldiz edo-ta bizi-pozez bertora etorrientzat, baditu Gernikak monumentu ta oroigailu miresgarriak, eleizak, jauregiak, torretxeak, lekaideJekaimetxeak, lantolak, fabrikak, aizerrotak, garateak, baserriak, ezkutuak, armarriak... Eta itxas-gizonak, pelotariak, argiñak, ainbat eta ainbat.

Euskaldunaren fede-ziñaldari eder diran eleizai gagokiezala, or Andra Mari parrokia, XVI-garren mendearen azkenerantza jasoa, gotik egikerakoa. Beronen aurre-aldea ta Lekeitio-koarena ala-ala-koak dira, Santxo Enpara-k egiña, esku trebez egiña benetan. Berau jasoteak, egia esan, ekarri zituan naigabe ta lorrak: Gatzaga-ko Kondeak 1470-an erre kapustu egin eban, baiña barriro jaso, dotoretu ta kultura zabalazoa izan zan 1715-an, gaur daukan txairotasuna ezaririk.

Arras bikaiña da izan be eleiza au, Andra Mari parrokia. Altara nagusia, aurrez ta gaiñez apaiña, zortzi zokoduna, eder-sen aundiz burutua. Gain ederrean gaurko itxuraz oindiño lau Ebanjelarien irudiak aratz, sotil, marot agiri dira. Iru ontzi (nave) daukaz, zutoin jaso ta landuz, joniku egikerazkoak, leio gotikuak. Iru kapillatxo ezkerretik eta bat eskumatik, albizarrena berau, obi gaiñean irudi bi etziñakaz. Onen ondoan dago beste bat, Mateo Inurria-k egiñiko Kristo bategaz dotoretua.

Jauregi ta torretxeetan be, ez Elorrio beste, baiña aberats samarra da Gernika. Or Allende-Salazar etxea, XVIII-ren mendean egiña, ormak pinturaz edertua; gizaldi onen bigarren amar-kunean ondatu zana gaur diardue erabarritu ta apaintzen. Gokalean, Kalezarra eritxon antxiñako torrea, ate ojibala, irrikitu batzuk eta Arteaga'tarren babeskin edo ezkutuaz, 1937-an kiskalia. Zarate torrea, XVIII-garren mendekoa. Errege Katolikuak, azkenez, Ibarguen'darren etxea izan eban ostatu: atarian oindiño oiñarri be aurkitzen dira euren burdiñezko oboakaz, erregeen egoitza ikur dabela. Iturritza-k beste asko be aitatzen dauskuz.

Onez gaiñera, Gernika, gure gomuta merezi daben gizaseme askoren kuma dogu, letraz eta guda-izkilluz ospesu diranena nunbait.

«Bertotik datoz —idazten dau J. E. Delmas-ek— Aparizio ta Iñigo Gernikazarrak, a oiñezkoen kapitaiña Granada artu-aurreko burrukaldian eta au bere eskuan eukazan sei itxas-ontziz Boadill Txikia ren ontzidia suntsitu ebalako ospe aundiko egindako itxas-taldearen komandante; Domingo Bernaola jauna, itxas almirantea, eta Juan Olaeta, landa maisua, biak ospsu XVII-garren gizaldia-ren amaieran; Aita Martin Murga, *Historia general de los Incas del Perú* idatzi ebana; Juan Pedro Urbaibai, Salamanka-n San Bartolome ikastetxekoa ta Jovellanos argiaren adiskide bakan-eziña, eta Kasimiro Loizaga, 1820-an Madrid'eko Lege-biltzarrean Diputatu, 1839-an senadore aukeratua eta Jaurerriko aolkulari bizi-artekoa, Bizkaiko arazo ta gauzak ondo be ondo eraoan ebazalako epe neketsuan eta urte-mordo txit luzez». (*Guía del Señorío de Vizcaya*, 240 orr.).

## GERNIKA, ISTORIAN ZEAR

Nai izanik be, ezin gengikeo kendu Gernika-n istorian zear euki ta izan dauan garrantzia. Uri eder oni buruz zer-edo-zer idatzi dabenak, beronen edestiaz atan be, ez dabe ta ezin izan dabez ixillean laga beronen ospe ta aunditasuna. Gure mendien artean Gorbeia baizen eder-gaillen bait da biotz-betegarri jakun Gernika oben larri egiteke gaitz izan txalotu gabe iztea. Nik be bardin egingo, Gernika aupatu, bertoko gertakizun nagusienak emen miretsiz. Ona orreik, nik baiño luma ziurragoz idazten dauan Manuel Basas jaunak «Fechas notanles» deritxon lanean dakazanak:

1366

Urte onetako apirillaren 28-en, Tello kondeak Orduña-ko urian emon eban Gernika uri irasteko uri barri agiria, «Luno-ri kenduaz lur-zati bat», au da, eleizate oni andik artuaz, uri barri onen mugak bereizteko.

1371

Juan Tastamara-k, Enrike II-garrenaren eta Juan Manuel-en semeak, ondorez artzen dau Bizkaiko Jaurerria, eta Gernika-n alakotzat onartua da, urte onetako abenduaren 12-an Foruak zin-egiten berbera etorri zanean 1379-an, Gaztelako errege aulkian Juan I legeaz, bere aitaren ordeko jarri zanean, beragan alkatu zituen gaztelar koroia ta Bizkaiko Jaurerria,

1383

Gaztelako errege Enrike III-garrena be, berbera etorri zan Gernikara urte onetako iraillaren 1-an bizkaitarren Foru ta legeak onartzera.

1418

Andra Mari eleiza jasoteko lanak asi ziran. Amaitu orraitioño etzan amaitu XVIII-garren gizaldiaren asierararte, Aurrekalde bikaiña Santxo Enparan-ek taiutua da,

1452

Foru Zarraren bilduna osotu zaneke urte.

1457

Gaztelako errege Enrike IV-garrena Gernika-ra dator urte onetako apirilla'ren 2-an bilduma barrian txortatu ziran foru-legeak onartzera.

1463

Arte kale ta Barrenkalekoak, Andra Mari eleizara etozanen aurkakoak, San Juan eleiza barria jasotea erabagiten dabe; egin-dako onen ordeaz be, a zaar egin zala-ta, 1910-an lengoa botaz beste barriago bat jasoten dabe, 1937-an kiskalita geratu zana. Gaur ez dago San Juan eleizarik.

1476

Urte onetan, garagarillaren 30-an, Espaiña-ko errege zan Fernando Katolikuak Gernika ikertzen dau Foruak zineaz onaturik:

gogora emen Mendieta-k margoztutako lauki ederra. Onen emazte Isabel 1-goak 1473-an Aranda de Duero-n onarturik eukazan orduko euskal foruak, baiña Bizkaira etorri zan emen agindutako ziña ontzat artu ta izenpetzera. 1483-ko urtea zan.

1523

Idaztietan agertzen dan Gernika-ren leen-errete. Gerotxoago gertatu zan beste bat, 1537-an, eta, lau gizaldi ozt-ozt geroago, guztietan izugarriena, 1937-an, zearo zeatu, erre ta ondaturik geratu zanekoa.

1527

Aurreko urtean osotua zan Foru bilduma Bilboko Naja edo Abando-n, eta auxa izan zan Karlos V'ok 1527-ko bagillaren 7-an zin egin ebana. Urrengo urtean Bizkako Forua Burgos-en irarko-laz argitara emona izan genduan.

1792

Garagarrillaren 20-garrenean, Josef Ramón Aldama-k Batzar Nagusian aurkeztu eban Gernika-tik Laida-ra ibaia iztundu ta erretenak egiteko asmoa. Geroago be asmo aurrera aterateko asko dira alegiñak egin dabezanak; gure egunotan bat, Juan Arana jauna, zornotzarra, Muruetako itxasontziolaren jaubea.

1794

Aoz-ao datorrena dozu Itunbeneko frantses guda-gizonak, Espaiña-n indarrez sartu ta Euskalerriaz be nausitu ziranean, Gernika-ko Zugatzari goratarrea egin eutsoela, emendik ibilli ziralarik.

1808

Frantsesak bigarren aldiz sartu jakuzanean emen, urte onen asieran, Gernikako uria, Bizkai geiena lez, errege Jose I-aren agindu-pean egon zan, artu ta askatu epeetan egiñaz, frantses artzailleak 1813-an uri au iztean errete batzuk egiñik.

1833

Leenengo karlatar gerratea. Aldikada ontan Gerniak era askotako jazoerak euki zituan. Ramón Carrete galiziar jeneralak,

Gernikan aurkitzen zan gudarosteren buru zanak, Batzar-etxeko artxibua, onen ostean dagoan Klarissen komentura aldatu eban, altxor eder au edozein arriskutik seguru jarririk.

*1841*

Gernikan egoan Korrejidore ordezkariaren auzitegia kentzen da; 18 eskribauk, 8 arduradunek, eta 8 aguazillek osotzen eben berau. Urrillaren 29-an Espartero-ren aginduz egin zan, andik later, 1844-an, Leen-auzialdiko Epaitegi biurtuz.

*1874*

Bigarren goi-urteak. Tarte onetan Karlos VII-garrenak gure Foruak onartu zituan, 1875-ko garagarrillaren 3-an.

*1876*

Garagarrillaren 21-ko legeak indar barik itxi zituan gure Foruak. Urte onetan bertan, iraillez, ospatu ziran azkenengo Batzar Nagusiak «Gernikako Zugatz-pean», 76-78 urte bietarako; 1877-ko jorrrillaren 18-an Bilbo-n egindako billerak banatuta geratu ziran erabat. Geroztik, Bizkaiko Diputazifioa izan da arein legezko ordezkia.

*1882*

Urtarrillaren 8-ko legearen bitartez Gernika uria ta Luno eleizatea bat eginda geratzen dira; errialde biok aspalditik alkarregaz ekarren eztaibaida ta gogortasuna, amaiturik egoan orrela.

*1888*

Zornotza-tik Gernika-ra egiñiko trenbidea, geroago, 1897-an Txatxarramendi-rafiu ta andik Bermeo-ra 1955-an luzatua, asko irabazi eben Gernika ta inguruak.

*1896*

Agustindar lekaideen Ikastetxea estreñatzean, Karmelo Etxegarai-k oguztu eban itzaldia.

1922

Irailaren 10-tik 17-ra Eusko Ikaskuntzaren III Batzar Nagusia.

1937

Apirillaren 26-an, bene-benetan zorigaiztoko eguna Gernikarentzat. Ezta iñoiz olakorik ezagutu. Oso-osorik erraustua izan zan Gernika.

1963

Bagillaren 29-an, pelotaleku barriaren asiera.

1967

Gernika irasi zanetiko VI-garren eunurte-burua. Jazokun au ospatzeko edo, Foru, Murueta, Kortezubi, Nabarnitz eta Arratzu eleizateak alkartzen jakoz. Lendik egozan Luno (1882) eta Aiangiz (1943). Baiña oster a be, Luno ezik —Aiangiz orretan dabil— beste bostak euren buru-jabe gitea lortu dabe.

## GERNIKAKO MERINDADEA

Gure errian aspaldiko urteak zear jazoteko gauza asko ta bizi-modu ta erakundeak be ez gitxi daukaguz oindiño zeatz-meatz ikasi, jaso ta aztertu barik. Emen sartzen dira gure edesti-zati pillo ez urlia.

Seigarren gizaldikoak doguz, antza, lurraldeetako merindadeak. Ez dakigu noiz jarriak ditugun Bizkaia-n. Dana dalarik, gure probintzi au merindadez aitaturik dago guztiz aintxiñatik. Gernikako Zugatz-pean Bizkaiak ainbat Zarreko zar. gizon guren eta jakitun, autatu izan zituan bere giza-ardurak eta kultur-arloak aurrera aterateko, zarrak bai ekien ondoen Zeintzuk ziran egokienak barruti edo merindade bakotxean. Olako buru zanak bizi-arteko eban kargu ori, iru edo lau uri naiz eleizatekoa. Bakotxak, geienez beintzat, bere errialdean eukan egoitza, zuzenari egokiona ta aberriaren ona zaindu ta jagon al izateko, Beronen zaintzape egoan bere me-

rindadeko lurra, iñoiz etsai ta areriores bat sartu ta ez-egitekoren bat egin nai ba-eban be.

Ona Bizkaiko merindadeak: Uribe, Busturi, Markina, Zorno-tza, Arrati, Bedia ta Orozko. Zazpi guztira. Eleizateak eta Uriak ezagutzen doguz Bizkaian, eleizateak lenago uriak baiño. Bien artean, 105 guztiz.

Zer dira oneik? Lur lauко erriak, ez gero erriak lautada edo zelaietan kokatuak dagozalako, Uriak ez daukezan lege bereziak daukezalako baiño. Uriak leen eleizateak ziran lur-oiñetan jasoak genduzan eta naas-maas dagoz gaur be auzune ta baserrietan sakabanaturik; Uriak barriz alkar-batuago daukaguz. Oneik dozuz Bizkaiko Uriak: Bermeo, Bilbo, Durango, Markina, Orduña, Lekeitio, Gernika, Balmaseda, Plentzia, Portugalete, Ondarroa, Ermua, Elorrio, Areatza (Billaro), Mungia, Larrabetzua, Miraballes, Gerrikaitz, Errigoitia, Otxandio ta Lanestosa.

Uri zan Gernika, baiña, uri-bizitzak dakazan zerga ta pentzuak dirala-ta edo, 1626-an eleizate izateko gogoа erakutsi eban; ja-torritz lur lau-laua zan Bizkaiaz auzi, eztabaida ta leiaz nazkaturik ikusi eban Gernikak bere burua, enparau Uriak lez edo, Bilbo ezik; ta leenera jo naia erne jakon. Eta agintedunak leen zapuztu eban Luno-gaz alkartzea mesedegarri izango jakola-ta, elemeleka asi ziran. Bilbora jo eben gernikarrak baietza lortu al izateko, olan Uri-gor-putza laga ta eleizate mailla ostera be artzeko. Ori ez jakon Bilbo-ri egoki ta au laster asi zan neurriak artu ta asmo ori mozteko, bear zana egiten, beste Uri batzuk orobat orixe eskatzeko aiña izan ez eitezan.

Labur: asko luzatu zan auzia. Atzenez, erakunde bien artean, Uri ta Elleizateen artean, alkarri laguntzeko erabagia artu eben, Korrejidora buru zala Orduña-n batzartuak, amazortzi kapituluko itun baten ezarria onartu ta ao batez zin-egiña.

Edu orretan osotu zan Bizkaiko erakundeen batasun politikua, Jaurerri osoko bateratasuna nunbait, lur-barrutiz, legeз eta eko-nomi aldeз eskatzen zana. Gernikak orduan, 1630-an, 56 Sukalde baiño ez eukazan. Uriak euren aldetik zer askotan eleizateen mai-llara etorritz, egin zan alkarren arteko bake-bizitza.

## GERNIKA URIBURU

Bermeo beiñola ta, aspalditik, Bilbo da Bizkaiaren uriburu. Juan E. Delmas'ek dirausku, alan be, erri bat dala, arro ta egiazki, titulu ori erakutsi leiskuna, Gernika, politika ertzez begiratu ez-kero. Gernika dogu gure Foru biziaren eredu agiri beiñena; bere lur-gaiñ dago Zugatz onetsia, bedeinkatua, etxekoak eta arrotzak kantuz goratua.

«Gernika da —darrai— izatez Bizkaian daukagun uriburu politikua, berean daukan Arbola ez-ezik, beste altxor aintzagarri au be bai, Batzar-Etxe istoriz betea berak gorde ta zaintzen dau; berak dauka jaunak eta erregeak zin-egiten eben eleizea, Bizkaiko erri guztietatik ordezkariak osotzen eben Batzarra, urte bitik bein alkartzen ziranen lekua, euskal errepublikaren gai garrantzitsu ta interesgarrienak aztertu, eztabaidatu ta erabagitzeko batu oi ziran lekua; azkenik, Gernika, ikur orren eragin eta Ondorioz, Batzar-Etxe orrek eta bizkaitarrak antxiña-antxiñatik euren Batzarrean alkartzen ziran Foru-istoriagaitik, sagaratua ta aintzakotzat artua dalako, Bizkaiko Jaurerri txit leial eta txit argiak be Gernika dau bere Uriburu».

Ondoren Gernika nun datzan be egoki be egiko diñosku Delfflas jaunak. «Lau-une pizkat makurtu baten —diño— daukagu Gernika, ibar zabal-edatu bi aurrezaurre daukazala. Bekokia dauka etzanik Kosnoaga mendiaren sartarle magalean, eta oiñak Mundaka ibaiaren gaiñ luzatuz dago. Zazpi kale ditu lerroz lerro antolatua: Barrenkale-Barrena, Barrenkale, Artekale, Goienkale, Arrabale plaza ta Andra Marikoa deritxenak; eta lau zoko edo ertzeko plaza zabala, erdian daukagun plaza onek ebagiten dauala ara ta ona doan uri osoaren zorua, azpia. Uri titulua Bizkaiko jaun Tello-k emon eutsan, 1366-an, muga luze-zabalak bereizturik; baiña mugok guztiz laburtuak izan ziran urien aurka askaturiko leia ta istilluen ostean.

Luno eleizatea etorkion bere erraietaraiño. Orixegaitik diño: «Ondo estu geratu zan geroztik, andik naiz emendik, Luno eleizatez atan be; onen etxeak, ba, eta uriarenak ezin leikezan bereizi, alkar jota egozalako izan ezik.

Gernikak Seigarren jarlekua dauka urien artean Batzar Nagusietan. Iru-erdien buru da bertan eta auzi-barrutia, lenengo ekifialdiko epaikariaren egoitzaz, eta erri-barruko bizitzartan 1.583 milla arima artzen ditu. (*Gula del Señorío de Vizcaya*, 231 orr.).

«Ez gitxik uste dabe —diño Arana-Goiri-k— *Gernikako Arbol*a estean, *Gernika* onek esan nai dauala izen au daroan uria. Ez dago olakorik: Izen orrek adierazo nai dau Luno-ko eleizatea, Zugatz gurgarria ortxe daukagulako; toki orretatik artu eban antxiña bertan jasotako etxeak, gaur ezdanak, eta onegandik artu eban Luno lurzoruan Tello-k ezarri eban uria, toki aretik ur-ur, 1366-garreneko jorraillaren 28-an.

Beste batzuk, euren buruak jakituntzat daukiezanak, *foru-uritu*a deritxe Gernika-ri, bizkaitar legeen aldia ta Zugatzaren ikurra euren agindupean ba legez lez, eta, orrela ba litz be, olako izena egozteko aski errazoi legolakoan. Azken kasu onetan Luno izango litzateke, eta ez Gernika, titulu orregaz jabetuko litzakena; baiña ondo dakiguna da (iñoizkoaren baten Bermeo titulu ortaz jabetu ta mende t'erdian *Uriburu* izena erabillia dalako Jaun bati eskerrak, Foruz ezer be ez ekianari eskerrak), Bizkai-ko erakundeai batez be iguingarri jakez onako bereizkuntzak; oneik ez bait dabe uriari begira lenago ta nausiago ta nausiago izaterik artzen, Bizkaian elizateak dira-ta uriak sortu dabezanak, bion artean Bizkaiko Uri zerak sortuaz».

Onela uste dau ta idazten Sabino Arana-Goiri-k bere «Bizkaya por su Independencia» liburuan.

## BATZAR-ETXEA

Gauzak, etxeak eta pertsonak zarraren zarrez ondatu egiten jakuz, Orrelaxe bizkaitarrak aspaldi danik Gerníkan eukén batzar lekua be, urteak joan urteak etorri mazkaldu egin zan, igarri barik, eta gizonari dagokio orretan beintzat zarra barritzatzea.

Gernikan, urteetako Batzar-etxe ta inguruak itxurage lotu ziralata, etxe zarra bota ta barria jasoteko erabagia artu zan 1826-garren urtean. Beraz, leena egoan lur-zoru ta arloan bertan, toki apaiñean, eraikia dozu gaur daukaguna, neoklasiku erari jarraituz. Joandako gerra zibillak zirala-ta erdi jasota itxirik, geroago 1833' rako amaitu zan oso-osoan.

Batzar-etxeak, berau zeazten jardun ezkeru, bere batzar-leku, gela, areto ta zati bereziak daukaz, naiz-ta guztion artean gorputz bat-bakarra egin. Onela: Zin-eleiza lenengo, beiñolako Andra Mariarena, eta ementxe ospatzen ziran Batzar Nagusiak Bizkai Jaurreriko ernetako aldun guztien artean. Aritz zarra, Foru eleiza, zin-egiteko mintzo-lekua, museua, agiri ta dokumentuen gelatxoa, Bizkaiko artxibu orokorra, eta artu-emonetarako gela batzuk. Guzti au dozu Batzar-Etxe barruan eta inguruetan, burdinñezko esiz mugaturik daukaguna.

Zin-eleiza deritxona, antxiñatik Andra Mariari eskiñitakoa, eta ementxe euki oi ziran Bizkaiko Batzar Nagusiak, Foru Zarrak agintzen ebanetz. Arrautz-itxura dau, batzarkide danentzat jarleku ta guzti. Goi-sapaian Bizkaiko Jaunen irudiak daukaz, Galbarriatu ta Brustin anaiak 1664-an margoztuak. Onein gaiñean agiri dira baita Bizkaiko Foruak onartzera etozan gaztelar erregeen argazkiak.

Kuadru bi daukaguz eleiz barruan: bata, Bizkaiko Jaun baten zin-egitea, Anselmo Ginea-k egiña berau, eta bestea, Frantzisko Mendieta-ren lauki ospetsua; Bizkaiko Aide Nagusiak nabari dira berton, Espaiña-ko errege Katolikuari lotsa ta begirune errimean erakusten 1476-an gure Foruak onartzera etorri zanekea.

Altara erdian Andra Mariaren Sortzez Garbiaren iduria dago, Bizkaiak beiñola onen doe eder au aldeztutea zin-egin eta 1855-an bizkaitarren Zaindari izentatua. Berton datza oindiño Balentin Berrio-Otxoaren erliki bat be. Goitik dindilizka dago azkenetz borontzezko argontzi sekulako bat Eujenia Montijo, Napoleon III-garrenaren emazte ta frantsesen erregiña izan zanaren atsegin-sari bitxia.

Zugatzaren esparruan Gernikako Arbola dauka bere barruan, bizkaitar Foruaren ikur garbia. Orain daukagun Zugatza 1860-ko urtarrillaren 15-an sartua da, Erdi-arotik gero bizkaitarrak bero-

nen azpian alkartu oi ziran beste Zugatz batzuen jarraikoa, ain zuzen. Zugatz onen atzean dago Jaunak zin-egiten eben lekua; Errejidoreari emen emon oi jakozan bizkaitar aldunen aalak, aldunak ziralako agiriak, eta bertatik asten zan guztien Batzar nagusia.

Mintza-toki giblean daukazu baita aterpe bat, Zugatz Zaarra eritxona babesten ebana; gaur ez da agiri, aldatua izan zalako. Aritz au VIII-gizaldian landatu zan; gaur, esana itxi dodanez, aren orde z barria daukagu 1860-an jarritakoa; zaarra 1898-an osorik igartu zalako, Bizkaiko Aldundiak Zugatz ain aintzagarria iraunazo nairik, aren orde z, aren ezkur barritiko bat landatzea erabagi eban.

Zugatz zarraren barne auxa zan, izan be, Gernikako Arbola, istorian zear, landatuta egon zana, oroigai ta gomutagarritz jantzia esan bear; ementxe ziñez onartu zituen, ba, Foruak zaindu ta gordeko ebezala, Bizkaiko Jaun mazal guztiak, leenengotik azkene-raiño. Ementxe zin egin eban Agirre-k 1936-an eta Karlos Garai-koetxea-k 1981-an; eta aurten, 1987-ko martxoaren 1-an J. A. Ardantza-k. Ementxe bai, esan dot, Gaztelako erregeak, 1334-tik asita, Fernando Katolikuak 1476-an, Isabel Katolikuak 1473-an, Isabel II-garrenak 1839-an eta Karlos VII-garrenak, 1875-an,

Batzar-etxe onetan gordeta dago, ardura aundiz gero, Bizkaiko Artxibu Orokorra. Agiri ta dokumentu baliotsuz beterik dago, 1466-tik asi ta gaur artekoakaz.

Ementxe daukagu Museu istorikua, agiri ta oroigailu askore-kin, eurak ikusi nai dabezanentzat eukeran noznai. Ementxe daukaz ikusmin danak Bizkaiko Foruaren ale bi, 1526-ko esku-idatzia ta 1528-an Burgos-en egindako irarkol argitalpenaren kopia. Ementxe dagoz erregeen agiriak eta Aita Santuaren Buldak, dokumentu jakingarriak naitaez Bizkaiko istorirako. Ementxe dagoz J. M. Iparragirre-ren iduria ta Uruguai-n bizi zala erabilli eban gitarrea. Ementxe aurkitzen da «Gernikako Arbola» ereserkiaren partitura. Ementxe beste zer jakingarri asko ta asko (Ikus F. Sesmero-ren «*La Casa de Juntas de Guernica*»).

Areitz santua dozu Gernikako Arbola, ez geuretzat bakarrik, baita erbestetarrentzat be, munduan zear sakabanaturik bizi diran

euskaldunentzat bereziki. Eta autortu dogu, zugatz santu, sagaratu onen adarpe, onen kerizpean jaitu oi ebezan bizkaitarrak euren bilerak alkartuak, bertan arturik milla gauzari buruz erabagi zentzunezkoak etxeko ta erriko goraberak ondo ta zeazki aurrera aterateko, Auxe zan bai, aurretik Larrabetzu-Goiko ta Morga arteko Aretxabalagana izan zan lez, beti santu izan zan areitz orlegi orritsua.

Doai ta legezko kanpoko zer askoz jantzia genduan Areitz au. Doai orreitatik bat bego emen; askatasunari dagokion berezi izate dozu. Ots, bizkaitar bat, errudun zala-ta, ezin eikean giltzape ipiñi, aurretik Zugatz done onen aurrera ekarri bage. Bein Foruaren nai au ausi zalako, 1570-ko Batzarrak gogorazo ebanez.

## ZIN-EGITEA

Gaztela ta Leon-go erregeak Gernikara etorri ta bertoko Foruak zinegiea txit aundikiro burutzen zan zeremonia genduan. Erregeak Gernika-ra eltzeko bide bi egozan, gaur legez, bata Gasteiz aldetik, Iegutiano, Urkiola, Durango, Muniketa, Oka trokatik zear; auxe zan bear bada erromarrak Bermeo-ra eltzeko erabilli ebendea. Bestea Orduña-tik etorrena, Bilbo, Larrabetzu-Goiko, Morga, Muxika-tik Gernikara. Azken au, ziur-ziur, geienez ibillitakoa.

Bilbotik urtenda Larrabetzu-n egiten zan lenengo egotaldia, bertoko eleizan, au bait zan, Elexaldekoa noski, XI-garren mendean jasoa, erregeak len-ziña oguzi bear ebena; gero Morga-ko Andra Mari gaiñera, Bizkargi azpira eldukeran, ez dakigun istoriunetik ementxe egoan areitzaren azpira nunbait, Aretxabalagana eritxon toki aizetsu zabalera eldukeran, emen be erregeak euren ziña barritzatzen eben.

Mendi gaiñeko zugatz ospatsu onek oraintsu arte zutik iraun eban, baiña gizonen zidar-gose ikaragarria dala bide, Zugatz enbortsu urtez bete oni be lengo mendearen azkenerantz aizkorea ezarri eutsoen ondoan, eta Lizardi'k diñoskunez:

«Zuaitz lagunak begira agozkik ixilik,  
erroak dardarati, edaburua geldirik.  
Lurra naigabez zegok, aizea zinkuruz;  
txoriak urrun aldegiñik, izuaren izuz».

Zer pekatu egin ete dau areitz zarrak? Baiña gizon zitalak eratxi nai, ta eundaka urteetan euskalduna babestu dokan ori:

«Amildu aiz goitik, atereaz lertu-ots gaitza,  
ark jo ta ik ezin baituk burua geriza».

Eta ementxe auzpeztu ziran, orraitioño, Gaztela-ko ta Leon-go erregeak, Haro etxekoak, Laratarrak eta gaiñerakoak.

Angoa bete ondoren Morga-ko Meakaur gaiñetik zear, Mungitik Muxikarako bide ertzean, Gerekiz izeneko auzunan Bizente deunaren ermita biran arnasa pizkit artuaz, Gernikaratzen ziran zin-egitera etozanak. Gernikan, ementxe ta olantxe bete oi eben Bizkaiko Jaunak gure foru zarrak eskatzen eban zin-egitea; Bizkaiko foruak, askatasunak, usuarioak eta eskubideak onartu ta zain-tzeko juramentua.

Irakur Bizkaiko Foruak bere len-ataleko bigarren legean, Bizkaiko Jaunak zein lekutan eta zertaz zin egin bear dauan diñoana:

«Baita, esan eben: Foruz ebela, Jaun Aundiak, Bizkai-ra etorri-rik eta Bilbo Uriaundiko ateetan bertako Errejimentuaren eskuetan zin egiñik, auxe agindu bear ebela: Bizkai-ko Errege ta Jaun danez, bertoko Lurralde Laua ta Uriak eta bertoko Uriaundia ta Duran-galdea ta Enkartaldea gordeko dituala, baita bertoko bizilagunak eta eurotariko bakotxaren lege berezi, frankeza eta erri-eskubide guztiak, Foru usuario ta oitura ta lurak eta beragandik dituen me-sedeak bere, aurretiko aldietan izan zituenetz eta gorde izan ziranez.

Eta andik Larrabetzu-ko San Meterio Zeledon-era etorri-rik, Abade dan Eliz-gizonek Jaungoik o gure Jaun sagaratuaren Gor-putza eskuetan dauala, zin bera egin bear dauala: aurretiko aldietan orain arte izan dituen írankeza ta errieskubide guztiak, Foru ta usuario ta oiturak, eta, Bizkai-ko Jaun eta Errege izan ziranez, bere

Aita Erregerengandik arturiko lur eta bizilekuak zintzoro ta egitan gorde ta eukiko dituala, euki ta erabilli izan zituenez; eta Bizkaitarrei ta Enkartaldeko ta Durangaldekoei, Zaldun, Eskutari, Aitonon semeei eukiazoz ta gorde eragingo dautsela. Eta andik Gernika-rantz datorrela, Bizkaitarrek, Aretxalaga gaiñean arrera egiñaz, eskuan mun egin bear dautsoela, euren Jaun eta Errege da-ta.

Eta Gernika-ra etorririk, Bertako Zugazpean, Bizkai-ko Batzarrek egin oi diran lekuan, Bizkaitarrek dituen erri-eskubide, lege berezi ta frankeza ta Foru ta usuario ta oitura guztiak, zin egiñik, onartu egin bear dituala, baita aurretiko Errege ta Jaunengandik dituen lur eta mesedeak bere zaindu ta euki ta zaindu eragin eta eukiazoz egingo dituala.

Eta andik Bermeo-ko Uri aretako Santa Eufemia-n, Abade dan Elizgizonek, eliz-jantziz jantzita, Jainko Sagaratuaren Gorputza eskuetan dauala, eliza aretako altara gaiñean eskua ipiñiaz, zin bera egin bear dauala: Lurralde Lauko, Uri ta Uriaundi ta Enkartalde ta Durangaldeko Bizkaitarrek dituen erri-eskubide ta frankeza ta lege berezi ta usuario ta oitura guztiak, orain arte izan eta orain dituenek, zintzoro ta egitan gordeko dituala ta gordearazo bere egingo dituala».

Zin egite au etzan, ba, funtsik bako arazo ergela.

## DEI-EGILLEA

Aitatu beñik-bein egiña geratu da Batzar Nagusira nok dei egin bear dauan, merinoak. Alan be, 1625-ko jorraiaren 8-an Batzar Nagusia batu zan Gernikan, baiña urietakoak bakarrik Gernikaratu ziran. Eta, ulertzekoa da, gernikarrak ez eben ontzat artu jokabide au, ixekatzat baiño: laguntasun eta bero barik aurkitu bait ziran Batzar aretoan. Eta aurrerantzean olakorik jazo ez eiten ertzak artzen saiatu ziran.

Ots-egiteak txarto burutu ziralako, etzan oker ori lenengoz gertatu zanekoa. Jaurerriko idazkariena zan orren errua. Elizatekoai egiten eutsen dei, baiña urietakoai iruren buruak, Bilbo, Durango ta Bermeo-k bakar-bakarrik artzen eben Batzarrerako deia. Iru buru oneik gero berandutxo dei egitsen beste urietakoai; olan sortu oi ziran ez-etorteak eta berezko istilluak.

Oker au onez zuzendu al izateko, Gernikak eskatu eban aurre-rantzean Urietako idazkaria bera izan zedilla dei orreik berariz egingo ebazana.

## BATZARRAREN OSPAKIZUNA

Urte bitik urte bira ospatu oi zan Batzar Nagusia.

Ortxe daukagu gaur be Batzar tokiko areto aurrean, arlosaz estalita, 22 arrizko zutoin jagi bat, korinto egikera z trebe landutakoa. Zutoin onen aurrez aur dagoz *bi* mintzaleku balkoiz itxitakoa; batean Aldundiko idazkaria jarten zan Batzar Nagusietan, ernetako aldunai dei egiteko; oneik ostera, deia entzun-ala, Ortarako aurretik gertu dagoan jaspezko mai gaiñean izten dabez euren aldun izatea adierazten daben txartelak edo agiriak.

Txartelak batutakoan, Batzar-tokira doa Aldundia; ernetako aldunak orobat ara doaz, idazkariak ate aurretik dei egiñaz. Barruan ostera be guztien txartelak aztertzen dira lege z dagozan ala ez ikusteko. Zeaztasun onein ondoren emon oi jako asiera Batzar Nagusiari.

Batzar-aldiak iru ta lau ordu irauten dabe geienetan, goizeko bederatzi t'erdi edo amarretatik eguerdiko ordu bata edo ordu biak arteño; gabaz be egin oi dira batzuetan, gauzak zelan doazan, eta orduan, aretoa argitzeko, sapaitik dingilizka dagoan argontzi ederra biztuten da.

Ikuspegi miresgarria eukiten dabe Batzar Nagusiok; antxiñako bizkaitar kapusaiak, gaitza motzak, baserri-kapela biribillak, aundizki ta aberatsen ondoan jake ta alkondara garbiz jantzitako

baserritarra, an dagoz danak euren edertasun bitxian, begirune maitekorra dautsoela alkarri.

Ez dago zetan esanik, diñosku Delmas-ek, Gernika-k Batzar aldian, amar edo amabi egunetan, alaitasunezko irribarrea erakutsi daroala. Ezta arrigarri, gaiñera, gogotan badozu, egun orreitan, Aldundia ta bertako langilleak ez-ezik, bertan batzen dirala 250 errietatik 250 ordezkariatik gora, batzar orreitan zeozer aurkeztu ta erabagi bear daben pertsonak, probintziko gurasoak, urte bitik urte bira aukeratzen diran Jaurilaritzan karguren bat daukienak, eta bertakoak eta kanpokoak ikusmiran ara elduak.

Jente alkartze onen ondorioz lez, kale, espaloi, oinbide ta plazak jentez bete-beterik, txistu ta tanboril soiñu bizi-bizia entzuten da. Sutzar dizdirak argi ta pozkor, gabaz be alaitasunaren kiñua nainora edatuz. Leio ta balkoiak apain. Jentea, igande soiñekoz.

## ZER DIRA FORUAK, LEGEAK, USARIOAK?

Askotan miiñaren eta idazkortzaren puntan gau ta egun erabillita be, ez dakigu itz batek zer daroan bere barrenean. *Foru* itzarekin antzeko zerbait ete jaku gertatzen? Illunezko gandu artean ibilli ez gaitezan, irakur egizu Jose Lasa Apalategi-k bere «El Pueblo Vasco» liburuan damoskun irakatsia.

Zer da forua itaunez dago asiera-asieratik. Eta erantzun: «Erri batek, bere edestian zear, beretzat egiñiko oitura ta usarioen txorta bat». Zer pillo oni dagokionez gero eratu daroa bere bizi jakobidea. Usario ta oitura biok buztarturik jaio zan *foru* deritxoguna. Zentzun onetan, beraz, foru ta oiturazko lege, gauza bardiñak dozuz.

Esana euskal erriari erantsirik, ez da besterik oitura ta usario txorta baiño; onetxeri dautsoela bizi izan ziran euskaldunak onela eratuz euren aspaldi bateko aberria. Eta eusko foruak ortik euskaldunen jarauntsi ta ondarea da. Erri ontakoen oitura

ta usuario ba dira, beste zein erriren etorki izango ete? Euskal erriaren izate-barrutik erneak bait dira mendeak eta bear bada amar mendeka urte dirala. Ontaz, ispillurik gardenena dozu euskal forua, irudirik garbi ta aratzena, izatasunaren adierazpenik argiena; euskal erriaren agertze ta bizi izatearen zantzu nabariena bere istorian.

Bizkaiko foruak erri aske ta lau baten seme dira, euskal errazak bere buruari emon eutsan berezko legedla, millaka urteetan lur onetan iraunez doana. Eta auxe, ba leiteke, gure erentzirik bikain-ederrena izatea.

Oitura ta usuario orreik, batzuk diñoe, lege biurtzeko idatzia izan bear dabela. Ez da egia. Ez da bear-bearrezko lege bat, lege izateko, narru, mintz naiz arrietan idatzirik egotea, ezta gaur-eguneko kodize ta Olakoetan be. Legea izan daiteke idatzia edo idatzi bakoa. Bigarren zentzun onetan deritxo oiturazko legea. Baiña, naiz arek naiz onek indar bardiña dau; oraintxe be ba dira oiturazko legea besterik ez daukien erriak: Ingalterra bera kasu bat. Euzkadi-n be, antxiñako kofradiak, arrantzaleenak esate baterako, oitutak eta usuarioak darabillez euren auzi, eztabaida ta goraberetan.

Foru danak lez, gurea be oituratik eta usariotik erne zan. Luzaro be luzaro idatzitako letren on-etekiñik ez mugapenik. Sei edo zazpi gizaldi dirala, igaro ziran ingurrazti ta lege-bildumetara. Bizkaiari begira, zaarrenetariko dozu, Nuño Larra-k, Bizkaiko Jaunak idatzi eragin eban «Zuzentza eta Mendiak» deritxona. Leenengo foru-orrela deitua, alan be, *Foru Zaarra dozu*, XV-garren gizaldiaren erdirantza, 1452-an, idatzi zana. Gero, aldiak aldatuz joanik, Batzarrak, Gernikako Zugatz-pean alkartura, 1526-ko jorraillaren 5-an, 1452-ko Forua barriztatzeke erabagi benetakoa artu eban. Textu barri orri «Foru Barriztatua» dei egiten jako, eta onen arauetara zuzenduak izan ziran Jaurerriko auzi ta goraberak, 1876-ko garagarrillaren 21-an indargetua izan zan artean.

Orduan, Bizkaiko erriaren oitura ta usuario guztiak, au da, euskal Foru osoa ete dago kodigu idatziotan? Ez; oitura ta usa-

rio asko ta asko, orduan eta gaur be oiñean dagozanak, etziran sartu egitura barrian; au irazki bat lez izan zan, eta legelariak idatziz jarteko duin zirala uste eben usuario arein aukerapen arduratsua.

Itz gitxitan esan geinke, amaitzeko, euskal foru idatzian dagoana lendik egoala eta jarraitzen euskaldun alkartearen usuario ta oituran. Baiña usuarioz eta oiturazko guztia foru idatzian ez dagoala. Ezta urrik emon be. Erakusbide bat gura ete?

Ona bat askoren artean. Bizkaiko Foru Barrizatuan, arau batzuk datoz Gernikako Batzar Nagusien ospakizunari buruz. Baiña ez diño ezer urrengo puntu garrantzizkoari begira: noiz eta zelan iragarri bear diran Batzar Nagusiok. Orelaxe beste ainbat gauzatan be.

## BATZARRETAKO IZKUNTZA

Euskaldunak eta erdaldunak parte artzen eben Gernikako Batzarretan. Eta zein izan zan bertan erabilli oi zan izkuntza, euskera ala erdera, gaztelera? Entzun daiogun ontaz be Jose Lasari. «Tamalez» —diño—, gaztelera izan zan Jaurlaritzako izkuntza ofiziala. Euneko eun alan be errepubliketako batzar agiriak eta uri ez gitxiko Udal itxietakoak be, naiz itxasaldekaok naiz barrukoak, euskeraz egiten ziran. Datu au ziur-ziurra dogu.

Gaztelera edo erromantze, Legebiltzarreko izkuntza ofiziala lez, antxiñakoa da, korrejidorea baizen zarra; au Ebro-z andikoa bait zan eta Gernikako Batzarrean Koroiairen interesak zaintzen ebazana.

Ortixek, gaztelar izkuntza korrejidorearen aoan kontrol-izkerra egin zan, au da, Koroiairen interesen alde egiten zan azterketa ta salaketa zuzen baten agiria lege-barruko batzarretan.

Eta, alan eta guzti be, errietatik bialduta etozan aldunak edo ordezkariak *euskaldunak* ziran jaiotzatik eta eurotatik asko eus-

kera baiño ez ekienak, erderarik ulertzen ez ebenak. Uste izan bear dogu, XVIII-garren gizaldiz gero, euskeraz bakarrik ekienak edo-ta, beintzat, biak ekiezanak izango ziran uri guztietako ordezkariak, baita Bilbokoak be, Balmaseda ta Lanestosa ezik, oneik ba bata Burgos mugan eta bestea Santander-i ikutzen egozalako.

Eta alan be *aginduz* jarria izan zan gaztelar izkuntza.

Oni gitxi etsirik, gaiñera, Batzar Nagusietara etozan aldunak, erromantzez mintzatzen ta idazten jakin egiela agindu zan, orrela sarturik Udal barrutian benetan itxura txar-txarreko bereizpena Gernikako Legebiltzarrerako bere ordezkaria aukeratzeraoan.

E. Labairu-k bere «Historia General de Vizcaya» liburuan itxi dauskun oar au adieztatzea da egiazki. «1625 urtea; urte onetan ospatutako Gernikako Batzar batzuetan —idazten dau—, etziran ontzat artu Barakaldo, Ereño, Muxika, Berango ta Berriatua-ko ordezkariak ekarri ebezan aldun-agiriak, erromantzez irakurten, idazten eta itz-egiten ez ekielako; eta batzuk diru-nekez zigortuak be izan ziran, erabagita egoana ausi ebela-ta. Gauzea zorrotz eroana zan, itxura zanez».

Iñoiz espetxeratu be egin ebezan agindu orren ausleak.

Iruzkin oro astia alperrik galtzeko. Zer eragozpen euki bear eben Bizkaiko errietako batzarkide areik Gernikako billeran euren berbetea erabilteko, euren erri izkuntzan burutzen bait ziran errepublika guztietako batzar agiriak eta urietakoak be ia geientsuak? Eragozpenik bat bera be ez, erreztasun bene-benetakoa baiño.

Baiña jardetsiz atzera erantzungo jaku: kasu batzutan itzulpen labur batzuk egiten zirala, edo bakotxa bere lurreko euskeran laburpenak, batzar bitarteko eztabaidak erderaz ezin jarraituta ibillitakoentzat. Orrela da: alan be, zer esango geunke Boneko Legebiltzarrean ruso-izkeraz mintzatuko ba litz eundako aldunen artean izkuntza orretako bat, bakarra egonik, gero aren izkuntza bere-berea erabillirik, au da, alemana, itzulpen-izkuntza lege? Orain ba, auxe egin zan, egin be, Gernikako Parlamentuan, mendeko indarraren indarrez.

Ai! Ur bedeinkatua artu ta Aitaren egin bear da Euskal Istoria ikasi aurretik; bestelan, bada, sumiñak eta gorroto latzak odola zarmintzen (*El Pueblo Vasco*, 1980, 71 orr.).

## JAUN ZURIA, ZER?

Egia ala egi-antza? Leienda ala jazoriko? Guzurra dala esaten beiñik bein ez da iñor azartzen. Edestilari askok aitatzen ditun gertakari bi daukaguz emen; bata, bizkaitarrok beiñola Leon-go Ordoño ta onen gudarosteaz eukitako burruka Arrigorriaga inguruan, eta bestea Eskozia-tik igeska etorri ta Mundaka-n lurra artu eban, au da, Lope Txope Ortiz gazteak eskoziar neskatzaz maitemindu ta gure itxas-egalera eldu ta izan eben seme Lope Fortun, zuri-gorri zalako «Zuria» deituaren istoria.

Arrigorriaga (Padura) aldean izandako eraso aldian Lope auxe izan ei zan, Tabira-n illobiratutako Estegiz durangoarragaz batera, kanpotar etsaiok azpiratu ta Luiando-ko Malato zugatzerañño igeska joiazanai jarraitu eutsena. Gero Jaun Zuri au, aitaren aldetik Morga-ko Meakaur-en, Uribe-ko merindade barruan, Bizkai-ko lenengo Jaunak euren jauregia Isasui deritxon lekuan ta Busturi-n jaioa, Estegiz-en alaba Balda-rekin ezkondu zan. Eta bizkaitarren lenengo Jauna, Jaun Zuria gertatua nunbait; ez, oster, Arana-k diañoanez, «espaiñar edestilari batek idazten dauanez, gure erriaren buru-jabetasuna; au ain zuzen, beronen odola ta izkuntza baizen antxiñakoa dozu».

Egia ala egi-antza diñot barriro be. Euskaldunok sarri —makur aundi!— jazokun zaarra bada, duda ta ezmezean ipiñi daroagu olako jazokuna. Munduan, barriz, beste izkuntza ta kondaira-zaleak edozein gauza zaar, atalik pitiñena be, balio aundikotzat, urrea zapian lez esan oi da, jaso ta gordeten dabez. Badiara Bizkaian eta Bizkaitik kanpora jazoera arrigarriak, zarrak dirala-ta bazterturik dagozanak, agiri seguru-segururik esku artean euki ezik, itzul-eragin eta baztertzen diranak. Jokabide leiala? Norbere eritxian zorrotzegi jokatzea ez ete da?

Dana dala emen aitatu danari buruz ainbatek luma puntaz lerroak marraztu ditu. Batek onela ta besteak arela artu ta darabilen gauzeak naitaez dau zerbait barne-gunean; ainbatek ortaz diarduan ezkerro, or bada piperra edo berakatza, or bada egi-antza bederen. Arana-Goirik «Bizkaia por su Independencia» idatzi ebanean ikusi eban or zerbait; Otxandio-n, Gordexola-n eta Mungia-n izandako burrukak aitatu bakarrik ez eban egin.

Jaun Zuria ez ete da askorentzat Bizkaiko lenengo Jauna? Orrela Iturritza-k; orrela Lope Gartzia Salazar'ek Muñatones to-rre-etxean preso egoala idatzi eban «Bienandanzas» liburuan.

## GATZAREN AUZIA

Goikoaren esana betetea eder izanarren, ba dira errazoiak iñoizka olan ez jokatzeko. Gernikako batzarretan gertatu dira onako kasu batzuk. Bi aitatuko ditut emen. Gatzaren auzia 1631-koa, ta 1633-ko otsaillaren 15-koa bestea, Korrejidore barria aukeratzekoan.

1631-ko iraillaren 24-an, Gernikan batu ziran, beti lez, Bizkaiko Batzar Nagusia osotuko ebenak; baiña zarraparra ikaragarria sortu zan alkartu ziraneboxe. Zer zala-ta baiña? Batzar eguna 23 zalarik be, jentetza aundia urreratu zan Gernikara eguna baiño leen, Bizkaiko erri guztietatik: protesta egin bear zan bizi be bizi. Artega ta naspil aurkitzen zan jentea, kezkak jota, erregeagandiko lege bat zala bide: gatzaren estankua jarten eutson Bizkaia-ri ta onek karutu egiten bizitzea. Orrez gaiñ. Bizkaiko Foruaren kontra emona zan lege ori.

Batzar egunean, ots, 24-an, esan dogunez, milla ta bosteun batek lez, zalapartaka, jentetza aundiak nunbait, batzar-lekua bete eban; 73 eleizateko arduradunak ez eben nai izan euren agiriak erakusterik, ez egoala orren bear-izanik eta. Alan eta guzti be, aldunak aurkeztu ebezan euren agiriak.

Batzar-aldian izan zan iskanbillik. Eta azkenez erregeak bialdutako gatzari buruzko idatzia onartzea erabagi zan, baiña egi-tez bete ez egiteko aginduz, Bizkaiko Foruaren aurkakoa zala-ta. Beste erabagi au be artu zan: aitzen emoteko erregeari artu zan erabagia, ta Jaurerri osoa protesta onen aldeko egin zedilla. Korrejidoreak bere aldetik berba egin nai izan eban, baiña erriak, azpikoz goiti, ez eutson itxi. Batzuk, sumiñaren amorru-mende, erregearen agiria bera erraustu nai izan eben, baiña kargudunak ez eben olakorik laga.

Arana-Goiri-k kolore biziz zeaztuten dausku gertatu au. One-la: «Bizkai'ko III Pillipa (1379'garren urtetik Bizkaya'k, bere gatxerako, izan euzan Jaun gustijak letxe) batera zan España'ko errege edo bakalduna. 1631'garren urtian Jaun orrek bere Ordez-kari edo *Korrekidoreari* agindu eutson Bizkai'ko gatza-salerosme-na edo gatza salerosteko eskubidia berentzatu ta beretuteko. Au argiro lege edo lagi bizkaitarraren kaltez zan, eta *Errekimendu bizkaitarrak Korrekidoreari* esan eutson Jaunaren aginben ori ele-gijan ezarri. Onezkero III Pillipa'ren Ordezkarri orrek jazoten za-na adi-erazo eutson, berak erabagi legikiantzat. Alako barri edo izpar estukorra zabaldu zan Bizkayan, eta beraren kaltez bizkai-tar zindo gustijak asarretu ziran. Iraillako 23'ko Batzar Nagu-sijak erabagi euzan onek: Jaunaren aginbena lagikaltekua zala; Bizkaya'ren lagiren kaltez ezer agintzeko eskubide edo almenik ez ebal Jaunak; *Korrekidoriak* elegijan aginbena argitaldu: bes-telan, argitaldu ezkeroko kalte ta gatxak beraxek legikezan, gue-nez, bizkaitarrak, oro batzaldurik, euren aberrija defendidu edo aldeztu biarko leukien.

Baña 1632'an Jaunaren aginbena Bilbao'n argitaldu eban *Korrekidoriak*, eta bizkaitarrak, au ikusita, euren lagijak suzitu gu-ra euzala ulertu eben; eta euren *Errekimendu* ta *Diputaziñoiak* ezer bez ala gitxi Bizkaya'ren alde ez egiten ebela ikusi ezker-o, euren *Korrekidoriak* argitaldutako aginbenari jarkiteko asmua ar-au eben, eta ordubantxe gertatu zan Bilbao'ko urija ta Bizkai gustija ixutu asmua artu eben, eta ordubantxe gertatu zan Bil-bao'ko urija ta Bizkai gustija ixutu eban matxinada ospetsuba. Onetan bizkaitar zindo ta abertzale batzuk erakutsi ebezan eu-

ren burubak, eta euren izenak Bizkaya'ren kanpoko edo atako ta bertoko arerijuak ondo ikasi ebezan, euren gorrotoa geruago asetuteko.

Abertzaliak Batzar Nagosi bat egin eben 1633'garren urtian eta gauza onek erabagi ebezan: Jaunaren agindubena ez beteteko; Jaunari urteko diruba ez emoteko, berak Bizkaya'ren lagi zarra jagon ordurartian; eta lagija ezartzeko Bizkaya'ren kaltez zerbait egin izan ebenei. Baña urte aren beraren orrillako 23'an, Bizkaya'ren arerijodun *Errekimendoko* bat eldu zan, eta beroni etxakon ona eretxi Batzar Nagosijak itundu ebana, ta erabagi eban Ordezkarari bat Jaunagana bidaltzia, oneri Bizkaya'k gura ebana erakusteko. Bide au artu eben aberrijaren arerijuak, abertzaliak ulertu barik.

Bidaldu Madrid'era zan, ba, Ugarte'tar Gontzal, *Diputatua*, ta onekin Zalbidea eritxon *Sindikua*; bestia, Aulestia'tar Koldobika, abertzalia zan. Madrid'an bertan egozan beste iru bizkaitarrok: Ibarra'tar Kristobal, Gernika'tar Pantrzeska ta Lezama'tar Kepa, irurok Jaunaren aizkidiak eta espānazaliak. Bilbao'ko orde z juan zan Idiakez'tar Jon Albontsa, 1632'an Bizkai'ra au gedituteko, III Pillipa berak bidaldu ixan ebana.

Batzaldurik eguan 1634'garren urteko Jorraillako 6'an *Errekimendu* bizkaitarra, Jaunaren arentzupena artu ebanian: gatzari egokan aginbena kentzen ebala ziñuan. Onezkero, *Errekimendubak* elexate ta uri gustijei jakin erazo eutsen barri edo izpar on au, egiteko. Baña jayeguneko ostian il-egunak etorri ziran.

Beti bat Bizkai-semiak! Beti ona ziñesteko gertubak! Beti gata ta gaizpidia ikusteko itxubak! Beti zorijonaren bidetik al-dendurik!

Orrillako 13'an III Pilipa'k argitaldu eban, 1631'garren urtetik ordurartian Bizkayan kalte edo gatxen bat egin ixan ebentzako parkaziñoa. Baña amabi ixen bakarrik aldentzen euzan: ixen onek etziran argitaldu; ixen onek Idiakez ta Ugarte, bijok Madrid'era eruan ebezan, eta III Pilipa'k amabi abertzaliak il-tzia agindu eban. Erriak ezer ez ekijan: amabi abertzaliak eurek bez. Onek ziran sendoruago Jaunaren aginbenari jarki ixan yako-

zanak. Amen euron ixen gomutagarriak: *Aulestia*, sindikua; *Ajorabide*, sakretarijua; *Morga*, lixenzijao edo lagijak ekixana; *Belendiz*, bardin; *Larrabazter*, eskribaua; *Arauko*, bardin; *Armona*, jaupari edo abadía; *Bizkaigana*, anai bi; *Txarta*, joslarija; *Puente*, anai bi.

Egun 24'garreneko goxan, Pillipa ta España'ren aizkidien otseñak oratu ebezan, gustiz goxetik, Ajorabide, Morga, Larrabazter, Bizkaigana anayak eta Puente'tar Jon, euren etxietan eta, biarba, lotan egozanak. Beste seirak iges egin eben, baserrikuek urgazi ta lagunduta. Sei aek kartzelara ixillik eruan ziran, eta egun atantxe *Korrekidoriak* eurentzako il-apaya emon eban.

*Ajorabide*, *Morga* ta *Puente* egun aren beraren gabean emon ebezan euren burubak Bizkaya euren aberrijaren seme zinduk ixateagaitik eta bera gaizkatuteko. Bijaramonean, urija ta urraldiak geldí egozala, Plaza Zarrera atarau ziran *Larrabazter ta Bizkaigana* anayak, eta eurok be antxe emon ebezan euron bixitzak Bizkaya'rena sendotuteko. {*Lenengo Egutegi bizkaitarra*, Orrilla, 18).

## LAMIÑAK GERNIKA-N

Sorgiñak eta lamiñak izan ete dira euskal errian? Bai, agi danean. Sorgiñak, erriak alan uste, gaizkiñak dira, olan datoz ipuiñik geienetan; Ez osterá lamiñak, oneik erderazko *hadak* lako dirala dirudi, onak eta on-egiñez bizi diranak. Lurpean, bizi izateko zulo, aterpe ta leza ikaragarriak daukiez, goialde sotil ta orma bitxiz jantziak, euran jolas, dantza ta artu-emonetarako; lur-barruan dabiltzala auntz-zangoak dabez, itxastar diranean, arrain-buztanak. Gabeko emabiak arte kanpo bizitza daroe, ortik aurrean lezetan bizi dira, gabea oillarrak lenengo kukurruku aldia egin ezkeró, ostondú egiten jatuz, illuntzean agertzeko. Bidez dabillega mutil gazteren bat galtzen bada, lamiñak lagunduko dautse; etxean umetxoren bat badago lo egin eziñik, lamiñak joango

jakoz amari umetxoari lo erazteko. Sorgiñak, barriz, gaberditik ara errondan dabiltzanai kalte egin oi dautse, eguna argituz batera euren toki ezkutuetara bazterturik.

Gure eusko folklore ta gauza zar bitxi batzaille On J. M. Barandiaran jaunak onela: «Lamiñak sorgiñen antzekoak ei ziran eta ur ondoetan bizi edo egoten ei ziran. Iñok ikusi ez egizan, nor-edo nor urreratzen zanian, uretan sartzen ei ziran. Ezetik manteniduten ei ziran, au da, esaterako, labradore batek uste eban ogei anega gari eukiko ebazala eta baten batek itanduten baeutsen zenbat anegen esperantzia euken eta berak erantzuten baeutsen, esaterako, amasei; gero, euki egijazala amalau, nai amarzortzi, nai ogei, esan eban guzurregaitik lamiñek kenduten eutsezan lau anega, au da, berak erantzun eutsanetik itxaroten ebanera egoan aldia.

Lamiñak ez-amarrenakaz bizitzen zirala esaten da. Ez-amarrena, amarrenak egon eta ez dagozala esatia da» {*Obras Completas*, II, 421 orr.).

Lamiñak ainbat toki-izen itxi deuskuez Euskalerrian; 32 aita-tzen ditu Barandiaran jaunak. Ona Bizkaiko batzuk: *Lamiako* (Erandio), *Lamindano* (Dima), *Lamiñapotzu* (Gorozika), *Lamiña-zulo* (Gizaburuaga), *Lamikiz* (Markina), *Lamiña-arrieta* (Usansolo), *Laminaran* (Mundaka), ta abar.

Eta ataundarrak erri-esakun au dakarsku gogora: «Izena duen guztia ornen da». Zornotzan, emendik ur-ur esana dan lege, goiz-goizetik eguzkiak bere printzak ariltzen asi-ala, lamiñak uretatik urten eta ur-ondoetan jarten dira euren urrezko ule-mataza luze liraiñak orraztuten.

Gernika-tik urbil daukazu Santimamiñe koba zuloa, leen eta orain ospe aundikoa. Antxiña bateko euskaldun zarrak, amasei bat milla urte dirala bizi izan ziranak, gaba ango arpeetan igaro arren, egunez bedarki ta ezkurretan Gernikaldetik eta maskor, txirla ta arrainki billa Laida ta inguruko atx-ebagi ta labar-zuloe-tán ibiltzen ziranik, ezin daukegu uka. Ereñozar, Atxerre, Itzaro, Bizkaigana ta birak, gaur konta-ezin ala leienda ta ipuiñez josiak ditugu, bai! Emen inguruko zortzi lamiñ-ipuin sartu nitun nik «Lamiñak» (Zornotza, 1978, 83 orr.), Lezika-ko etxandereak edes-

tuak. Barandiaran-ek ba dakar beste bat, Kortezubi-n batua {*Obras*, II, 450 orr.). Eta ementxe urrean daukazu Busturi, eta bertan *Mozoio* koba (*Obras*, II, 477 orr.).

Gaur be, koba-zuloetatik kanpo, lamiña aldrak ikusten dira, *gabaz* batez be Gernikako kale ta dantza-tokietan. Gaizkin ez ei dira-ta, tira! Eta sorgiñik? Baietz diñoe. Zelan ezagutu? Min txarrak ba dakie, baita diranak alkar ezagutu be. Nortzuk, baiña? Bateatu bako pertsona bat, berez ei da sorgiña; *belagillak*, barriz, bateoa artzean, berbaren bat txarto errezaue balako. Gorputz-azalean oreiñik ez daukan pertsona, sorgiña dozu, Elorrio-n diñoe-nez. Mezea amaitu ta gero, abadeak meza-liburua zabalik izten badau, sorgiñak ez dabe eleizea izten liburua itxi arte. Eskuturra beste eskuaz artzen ba dozu, sorgiña zara, Zeanuri-n esan oi danez.

Eta orratzak zer indar daukie sorgiñen artean? Nik entzuna dot Amoroto-n, sorgin bat ezagutzeko etzala bide txarra oillarrari orratza biotzean sartzea. Sorgiñak badabe zer-ikusia oillarrakaz eta oillar-kantuaz. Orratz-auzian, oster, bego emen nik, meza-emon barri nintzala, ementxe ikusia.

Aita Juan Antonino, lenengo Areatza-n arima-zain eta karmeldar Larrako komentuan, gaixo bat eukala Ategorri-ko Poittoa auzoan eta laguntzeko erreguka urreratu jatan. Pozik lagundu neutson. Urteetan aurreratutako neska bat zan gaixorik egoana, gaixorik eta il-arriskuan. Zetzan gelan ainbat denporan ainbat itaun egin eutsozan Aita Juan Antonino-k, nun-edo-nundik bere pekatuak autortzera eroan naita. Ez egoan zeregiñik: arrain azkar batek lez iges egitson esku artetik.

Beera jatxi ta etxeoakaz alkar-izketa luze samarra izan genduan. Ortik atera zan gaixoak orratz-ontzi bat eukala buruko pean. Amabostero andra bat, sorgiña eurentzat, etorri oi jakon Mundakatik; oni, etorren bakotxean, oillar bat emon bear eutsoen etxeoak; oillar orren begien bitartez ei ekian gaixoa osatuko zan ala ez. Orratz-ontzian eukana oillarraren begia izan. Ontzia al ba eben ixilka kentzeko esanik, etxeoai agur egiñez komentura gintzazan biok.

Urrengo egunean deia: joateko, azken sakramentuak artu nai ebazala-ta. Olantxe egin genduan.

## A Z T I A K

Egungo egunean, euskal fedeari dardar eragitearren edo, sorgin, aztru, beragin eta gaiñerako ezkutu-indarrezkoai aipu emon nairik dabiltz irrati, telebista, idazle ta mintzalari ez gitxi. Egintza orren barren-sakonera jo ezker, baiña, urtxipristiñetan geratu oi da ia geiena. Sorginkeri pitin bat, leen lez orain be, nun-nai izan dala edozeiñek daki, ez euskal errian bakarrik ain zuzen. Guk, egia esan, ba-dazauguz toki apartak, sorgiñenak noski, Zugarramurdi bat, besteak beste. Eta Bizkaia-n berton, or Anboto-ko Damea, iñok ikusi ez dauana ta danok ikusi doguna, ipuiñetan beintzat.

Eta Gernika-n? 1511-an zerbait izan zala dirudi. Erandio-ko arduradunak, Pedro Uresandi-k berariz, kexaka agertu zan Batzar Nagusian, sorgin eta beragiñen aurka, pizti-sail au gogor be gogor zigortu bear zala eskatuz: kalte aundia egiten ei eben inguruan.

Lekuak eta inguru-giroak asko diño giza-bizitzan. Gure artean, Bizkaia-n baitik bat, Durango-ko *argituen* sekta antzeko zerbait izan ezik, ez da oraintsu arte siñausle ta besterik ezagutu; bai, oster, sorgin, lamin eta aztiak. Osatzaille, sasimediku, petrikillo ta aztiak, eurok bait ziran ordukoen arteko Osasuna zaintzen ebenak.

Gernika-ko Fóruak ez ebezan ondo ikusten. Beronek iñoanez, beste gaiztakeri batzuk Zugatz-peratu barik ezin eikezan zigortu; bai, oster, oneik: «Lapurtzea ta ostutzea, emakumea indarrez eroatea, lurraldean seniderik ez daukan erbestekoren bat iltea eta bideetan eta bidetatik kanpo ardauagaitik agurka dabiltzan eskekoak (Foruan eskale diretxenak), emakume lotsabagako ta auzo naastaille ta liburu zantarren antzera bertsoka ta kantaka diardenak (Foruz barritsu deritxenak) eta estalgilleak (Foruz estalgintza deritxana) eta gizonezko ta andrazko *aztiak* diralata izan ezik». (*Bizkai-ko Forua*, 8-garren atala, 1-go legea, 114 orr.).

## MATXINADA

Amazortzigarren mendearen asieran, 1718'gn. urtea zan. Jatorriazko eztabaida ta burruka Espaiña-n irabazi ondoren, Felipe V-garrenak, eusko Foruen Zugatz zarrari aizkorea ezarri nai izan eutson, enbor-enborrean ezarri be. Aren len neurria Ortarako 1717-an izan zan zerga-etxeak aldatzea erabagi ebanean; olan, aspaldidanik gurean burutu oi zan komertzio ta salerosketa askea galzórían jarten zan.

Bizkaiari ez jakon au begiko izan, eta len gatzaz lege zala-parta izugarria ekarri eban onek erregearen aginduaren kontra. Ortik sortu zan 1718-an istorian *matxinada* lez ezagutzen dan naspilla. Urte ontako iraillaren 9-an Gernika-n alkartu ziran Foru, Murueta, Busturi, Mundaka ta Bermeo-ko matxiño guztiak, Korrejidorearen Ordezkarí orokorra be euren artean naitaez sar-erazoz, kalera urten ziran.

Arana-Goiri-k edu onetan: «Urte onetan Bizkaya'ren istorija edo Edestijan aurkituten da jazopen gomutagarri bat. Bere Jaun IV Pilkipa'k (batera España'ren errege edo bakalduna zana) dagonillaren 31'an argitaldu eban, España'k Orduñan eta Valmasedan eukazan *Aduanak* Portugalete ta Bilbaon ezartzeko aginbena. Au jakinda, Bizkaiko baserritar askok arma edo izkillubak jaso ta Bilbaon sartu ziran, egun batzutan, eta egun onetan il eben Arenal'an Arana'tar Endika, *Diputaua* zana, ta beste batzuben etxiak utsitu ala sutau ebezan, Arana ta beste batzubok erriaren arerijotzat euki edo esten ziralako». (*Egutegia*, Irailla, 5).

Ondoren, emen esan danez, Migel Antoni Kastaños eta Ariz aldunaren billa joan ziran, eta, bera aurkitu ez ebanean, aren etxean su emon eta balio gauzak zati-zati eginda itxi eutsoezan. Beste orren beste egin eben Mezeta Albiz aldunarenean be. Biaramonean batzartu zituen, erio-zemaiz, Korrejidorea Bermeo-ra joaten beartuz, iskanbilla izugarria bazterretan zabalduaz.

Ezeri be kasurik egiteke, matxinoak eldu ziran, eta andik kartzelara; emen atxiloturik egozan bermeotarrak kartzela-zaiña ta

onen emaztea il ebezan, eta alkatearen anai bat bardin. Baita il eben oiñaztar alderdiko Jaurerriko errekimendu nagusiko lenengo errejidorea zan Gregorio Astarripa, ta beste batzuk. Antzeko naste ta iskanbilla Portugalete, Otxandio ta beste toki batzuetan.

Eta beronen amaia? Plazak odoldurik. V Enrike erregeak indargetu eban leen emon agindua: zergetxe ta aduanak leengo lekuetara biurtu ziran. Baiña auzi-bidea edegi eutsen iraultzan buru izan ziranai. Arin egin zan epaiketa, 1719-ko urtarrillaren 18-an erabagia zabal-azorik. Eriotzara epaitutakoak 15 bizkaitar eta Leintz araneko bat, Erkoriatzakoa, izan ziran. Bilboko espetxean egin ziran eriotzak, Zamudio-ko Atari ondoan. Gero Plaza Barrira ekarri ebezan euren gorpuak eta emen buruak moztu eutsezan. Urkabean ipiñi ebezan arein buruak, Jaurerrian an eta emen.

## GURE IKURRIÑA

Bizkaiak, eta Euskalerrri osoak, ba dauka bere ikur rin sotilla. Leengo mendearen azkenerantza asmautakoa da, Arana-Goiri-k asmautakoa. Urte luzeetan galazorik egona, 1936-eko gerra ostetik batez be, gaur askatasun osoz dabilkigu kulunkaz, aize txeratsuaren eragin maitagarritz ainbat eta ainbat etxe ta batzar lekutan. Ez dira gitxi lillura aundiz berau ikusi ta mosutzen dabenak. Ba-leiteke, alan be, berau zer dan eta zer adierazo gura dauskun, banaka batzuk besterik ez jakitea.

Olakoentzat bego emen Arana-Goiri-k berak, «Lenengo Egu-tegi Bizkaitarra»-ren garillak 13-an diñoana:

«Bizkaitar *Juan-Gokua eta Lagi-Zarra'ten* zalientzat egun au (garilleko 14'garrena) egizko gomutagarrija ta jai andiduna ixango da: onetan lenengoz erakutsi zalako euren bandera edo Ikur rin Deuna. Geure irakurleren batek ondiño ezpa-daki zelangua dan ikurriña, ementxe esango dautsogu.

Euna da gorrija, gorri bixija; eta euneko ganian ezartzen dira gurutz bi: bata da Deun-Ander'ena ta berde edo orleya da; bi-

garrena, besteko ganian ezarribiar dana, da Kristo'rena ta bere kolore edo margua da zurija.

Gurutz bijoen zabaldasuna bat da, ta bijoen besuak eunaren egaleteraño luzatuten dira.

Gurutz zurijak esan gura edo ikertzen dau Erlixiiñoē edo Gopatzen lagijak; orleyak, Bizkaya'ren arraza edo abendea, ekandu onak, antziñeko lagijak eta euzkerea: bijok, Bizkaya'ren kostituxiñoē edo laterkera zarra ta beste euzkeldun laterrijakin batza ikurtzen dabez.

Gurutz zurija da *Jaun-Goikua*. Gurutz orleya da *Lagi-Zarra*. Gurutz zurija da eskutu edo ikurdikua bera. Gurutz orleya da, bere eregaitik, lagatasuna, Deun-Ander'en egunan bizkaitarrak irabazi españarren kaltezko gudaldi andi bat ebelako; eta bere kolore edo marguagaitik, ikurdiko Aretxa.

Ikurrin Bizkaitarraren gorrijak, guenez, ikurtzen dau bizkaitarrok euron odola Gurutz bijen alde zarijoteko gertuta dagozala; eta gorri orixe da ikurdikua bera ta antziñeko ikurriñaren kolore edo margua».

Beraz, euskal nortasunaren zati bat dozu ikurriña: zaindu ta erabil eizu begirune aundiz.

## KARLISTA GERRATEAN

Barriro esanda be, bego eraen euskaldunok beti izan gareala fede oneko, lar fede oneko. Bizkaiak oso samar, txeratsu artu izan zituan Foruak zin egiten ona eldu ziran errege ta aundikiak, kanpaiak jo, kalez kale musika alaitasun berezitan, dantza ta erromeri gau ta egun. Mezea ta *Te Deum* eleizan. Eta uste genduan besteak be era berean jokatu ebela gure gauzak —lege, oitura ta izkuntza— begirunez ikusi ta erabilliaz. Askotan, baiña, itzez agindua ez da egitez beteten.

Gure erriak istori-une guztietan zentralismoaren aurka jokatu eban, egi ez txikia auxē. Euskalerriak, eta Bizkaiak leen-leenik,

ez zituan egundo eskutik itxi bere-bereak ebazan eskubide politikuak; gizarteko istilluak, erregeari yagokozanak, auzi orreik baiño garrantzizkoagoak ziran beretzat etxeko bakea ta batasuna, Foru-  
auzia. Bere barru ekarren euskaldunak, odolarena berarena lez, askatasun egarria, inñolaz be ito eziña; onexek eroan zituan burrukara euskaldunak, euren lurra arriskuan ikusiz, berori armaz be zaindu ta jagotera. Karlistak eta liberalak orobat, euren artean nas-taurik armetan ibillita be, Foruak dakarrez gogotan.

Gernikan bertan, adibidez, 1835-ko maiatzaren lenengoan, Iriarte-ren agindupe ebiltzan guda-gizonak galpen irakagarria izan eben. Sarasa-k, au da, karlistak eukien Gernika. Iriarte liberalak eraso ta lenengotan lur-zati ederra eskuratzen, baiña uri au zaintzen eben karlista gerrariak gogor be gogor eusten lubanak jasoaz Gernikako kaleetan. Liberalak ementxe galdu ebezan 45 gizon. Orrela beste makiña bat tokitan. Alkar-jote zentzun bakoagorik!

Oitura zanez, 1814-ko garagarrillaren 29-an zin-egiñez, Fernando VII-garrenak, Espaiña-ko erregeak, Foruak beteko zitula agindu eban. Alan be, Kadiz-ko Kortietatik asita, ainbat gauzatan zapaldu zituan gure legeak; 1818-an, esaterako, soldadutza egitera beartu ebazan gure gazteak. Lege ori, baiña, indarge geratzea lortu eban Diputaziñoak Orretarako 10.000.000 erreale ordain emonaz.

Fernando VII-garrena 1833-an il zan. Nor izango ete orren ondorengo? Beronen alaba Isabel II-garrena ala Karlos Maria Isidro, errege zanaren anaia? Ortik jagi zan batez be karlista ta liberalen arteko zazpi urte iraun eban gerra ergela; oneik, liberalak, Isabel II-garrenaren alde, eta areik, karlatarrak, Karlos M. Isidoren alde; euskaldunik geienak azken onen ikurrinpean jokatu eben, au gure Foruen eta erlejiñoaren alde agertzen zala-ta. Ziria sarturik geratu zala be, onen irudia ondo barrenduta ebillen euskaldun jentea. 1834-an onela kantatu oi eben Bizkaian:

«Don Karlosek emon dau  
errege berbea,  
errege berbea,  
gura dabela gorde  
euskaldun legea».

Liberalak etziran foruzale, edo beintzat zerbait aldatu bear jakela iñoen. Gernikan ez eben ondo ikusten liberalik, baiña Padero Pakual Uhagon, konstituziño aldeko zana ipiñi eutsen Batzarreko korrejidore; ori ikustean erriak sumin aunditan abarrotsari ekin eutsan gogor. Goiko ta beeko, danak ebiltzan asarreak jota, mendian eta urian burrukatzen zala. Ordukoa dogu Tomas Zumalakarregi, Begoña-n Zauritua eta Zegama-n illa, 1835-ko bagillaren 25-an.

Euskaldunok ez gara bape maltzur jokutzen dogunak, eta bai maltzur batzuk errezto erabiltekoak. Gudu onetako Foru-alde jokatzeari buruz be auxe irakurri daikegu «Gizartea Gaur» deritxon liburuan. «Euskaldunak —diño—, beren Foruak defenditzearren, Karlosen alde atera baziren ere eta Karlosek, itxurak egiteko edo, Foruak errespetatuko zituela zin egin bazuen ere, egia esan, ez zituen asko errespetatu «gerrateak ekarri zuen egoera» aitzakitatzat hartuz» (93 orr.).

Zazpi urtez atsedeen barik burrukatu ostean, ziri ederra sartu eutsoen euskaldunai Espartero liberalak eta Foru-zale agertzen zan Maroto-ren azken besarkada etoiak. Bergara-n Maroto-k: «Ez izan bildurrik, euskaldunak; zuen Foruak errespetatuak izango dira». Maltzur aundi! Espartero-k berak artu zituan laster Foruen kaltezko erabagi suntsitzailleak. Makiña bat joan-etorri, ainbat itzaldi burutu zan erabagi au uts izteko, baiña guztia alperrik!

## ALKATEEN BATZARRA

Jazoera onak eta txarrak ikusi ditu Gerniakak. Onak, jakiña, Euzkadi-ren buru-jabetasunagaitik eukitakoak. Txarrak, oster, II Errepublikan aldarrikatu ta egun birakoak. 1931-ko jorraillaren 17-an ospatu bear zan Batzar Nagusia, ta ortara deituak izan ziran Getxo, Munduka, Bermeo ta Elorrio-ko alkateak: Madrid-eko gobernuak galazo egin euskun batzar ori.

Getxo-ko endore lez emen izan zan J. A. Agirre-k idazten dau: «Gasteiz-tik, Bübotik ainbat kamioi ta .tarranta urreratu ziran guda-gizonez eta txapelokerrez beterik. Armaz arturiko uria ziru-

dian Gernikak; bertoko sarrera guztiak ondo ertsirik egozan eundaka kotxez eta autobusez. Zain geunkazan guztiak alkateen egin-tza noiz asiko. Alkateak, alan be, giro tamalgarria ikusiaz, euren agiri orokorra izenpetu ta alde egin eben uri armatu aretatik».

1931-ko garagarrillaren, 12-an, barriz, autatu barri ziran euskaldun diputatuak batu jakuzan Gernika-n, euskal udaletxeetako ordezkariakaz. Oneik omenaldia egin nai izan eutseen aldunai, Eusko Estatuaren testigu izango ziranai. 50.000 bat pertsona batu ziran. Errepublikak Plazan mezea euki ondoren, Udaletxean ospatu zan J. A. Agirre-ri aginte-makilla emoteko zeremonia.

Mitin ikaragarria bazkal-ostean. Besterik ezean be, ona nortzuk egin eben len-agurra: Elorrio-ko alkate Julian Ariño-k aurrenik, alkateetatik zarrena zalako; eta ondoren Kasto Orbegozo-k, Martzelino Oresa-k, J. Luis Oriol-ek, Antonio Pildain jaunak, Rodezno-k, «Altzeta»-k, J. A. Agirre-k eta Gernikako alkate zan Seber Altube-k.

J. A. Agirre-k onela: «Gernikako egintzarekin amaitzen da gure erriaren gaurko kondairako ekiñaldirik bikaiñetariko bat. Udaletxeen mogimentuak amaitua izan dau bere ekiña Euzkadi barruan. Askoren itxartuz asi zan euren sentipena, onen bitartez askok eta askok ikertu izan eben gure naziotasunaren eskubideen aldeko burruka barne daroan aunditasuna. Euzko aberriaren arnasa, ondo antolatuta iñoiz baiño indatsuago, bere gizasemeen laguntza eskuratu eutson, ta eurokaz bere indar eta kemenak». (*Entre la libertad y la República*).

Onekin amaitu zan, diño barriro Agirre-k, Euzkadi-k bere fe-dearen eta askatasunaren alde eraturiko ekiñaldia.

## JOSE ANTONIO AGIRRE-REN ZIN-EGITEA

Azken gudatean Gipuzkoa etsaien eskuetan eta Bizkaia be arris-kuan Madrid-en ikusi ebenean, len emon nai-ezta ebiltzanak be, emotera bizkortu ziran: gogoz ezta be, bearturik, sarri jazo oi dana.

Agirre-k lan ikaragarria egin eban Estatutoa lortu al izateko, Euzkadi-n eta Madrid-en. Zorretan gagokioz orretan euskaldun guztiok.

Estatutoak gobernu bat eskatzen, eta gobernuak Lendakari bat. Nor lendakari? Duda-izpirik ez eban inok. Aulki ori ondo irabazita eukan Getxo-ko alkateak. Alan be autarkiz egin zan aukeratzea. Bilbo-n izan zan. 1936-ko urrillaren 7-an, goizean, lau mai jarri ziran: lenengo maian Bizkaiko Gobernadorea egoan, ots, Jose Etxeberria Noboa, buru zala; bigarrena, Bilboko Aldundian, Rufino Laiseka, buru; irugarrenean, Bilboko Udaletxean, Erkoreka-ren ordezkari bertako alkate zan Fermín Zarza, buru, eta laugarrenean, Bilboko Auzitegian, Gipuzkoako Gobernadore zan Antonio Ortega, buru.

Autarki emote au eguerdian amaitu zan. Eta egun berean, urri-llaren 7-an, arratsaldeko bostetan, Bizkaiko Gobernadorearen eta idazkari zan Gregorio Ponzoaren aurrean, Gernikako Batzar-Etxean alkartu ziran Laiseka, Zarza ta Ortega jaunak aukeraketaren ikerketa Zeatza burutzeko. Lenengo maiak 15.951 boto emon ebazan Agirre'tar Joseba Andoni-ren alde; bigarrenak 84.498 boto edo autarki Agirre-ren alde, eta 100 boto Ramón Madariaga-ren alde (errepublikanua zan au); irugarrenak, 105. 011 boto Agirre-ren alde, eta laugarren maiak, 86.011 bota Agirre-rentzat. Erabat esateko: 291.471 boto Agirrek, eta 100 Madariagak. Beraz, Agirre-Lekube-tar Joseba Andoni *Euzkadi-ko Lendakari* autatua izan zan.

Jentetza aundia lagun, danak doaz aurrenik Batzar aretora kargu artzera ta gero Zugatz sagaratuaren aurrera zin-itza egitera. Itz oneik esanez bere eban bere eginbearra:

*«Jaungoikuaren aurrean apalik  
Euzko-lur ganian zutunik  
Asabaen gomutaz  
Gernika-ko Zugaizpian  
Nere aginduba ondo batetzia  
Zin dagit».*

Zintzo bete eban Agirre-k zin egiña. Biotz aundikoa zan, sen bereziz jantzia inguruan euakana ezagutu ta bide zindoz eroan al

izateko. Eritxi askotakoak zituan Gubernuan eukozan kargudunak, alan eta guzti be ezeren istillu ta gorabera barik zuzendu eban sei alderdikok osoturiko Jaurlaritza. Jaurleri-buru izateak ez eutson buruko min geiegirik ekarri, bai oster a gerra aldian Madrid-eko gubernuakiko artu-emonakaz. Erkalak be —nok esango!— beti agertu ziran muker eta urri, euskaldunoi laguntzeko.

## JUAN KARLOS ERREGEA, GERNIKAN

Mitxeleta antzo, arat-onat dabiltzan atzerritar turista ipurdantzariak ez-eze, jaun argiak be ikuskatu dabe Gernika, leengo gizaldietan eta oraintsu erabat. 1971-ko urrillaren 25-tik 28-ra ibillaldi bat egin eben España-ko erregaiak Bizkaira, Gernikaraiño be eldurik.

Antxiñako gaztelar errege zin-egilleen antzera edo, Bilboko ta inguruetako edertasun, oroigaillu ta pertsonak ikusi ta agurtu ondoren, Ikastetxe barria ta Derio-ko Bas-etzandea ederretsiz asetu ziranean, Gernikara jo eben, eta alkate Gerbasio Gezuriaga-k eta udaletxeko kargudun guztiak Batzar-Etxeko ateetan artu ebezan Juan Karlos eta onen emazte Sofia. Txilinteriak, bitartean, «Gernikako Arbola» joten. Pedro Aristegi-k esan zituan agur-itzak, Bizkaiko alkateak biran eukezala, Juan Karlos-ek erantzunik. Batzar-aretotik Zugatz-pera ta azkenez, «Agur Jaunak».

Andik amar urtera, ots, 1981-ko otsaillaren 4-an, barriro Gernikaratu ziran España-ko erregeak, Juan Karlos eta Sofia. Bilbotik etozan. Batzar-Etxeko oskol gaiñ errege-ikurriña kulunkatzen zan, agetan barriz Espaiñakoa, Euzkadikoa, Bizkaiko Jaurrikkoa ta Gernikakoa. Bi milla bat jente ingurumari.

Gaur oizko jazoera. Erregeak aratzean ba-zan «gora» bear ugari andik eta emendik; au da, «presoak kalera», «independentzia» ta antzeko dedar artean barruratu jakuzan. Erregeak, Garaikoetxeak eta beronen emazteak lagunduta, etozan Batzar-aretorantza; atean lerro egiñez, Jose Maria Makua, Bizkaiko aldun nagusiak, Eusko

Parlamentuko buru zan Juan Jose Puxana, Ramón Labaien Kultur kontseilaria, Foru aldundikoak eta Gernikako Udaletxekoak.

Ortik, txistulariak «Alkate soiñua» jotzen ebela, Areitz ospetsuaren ondora, eta Bilboko banda munizipalak «Grota ta gora» eusko ereserkia jo ta gero, Batzar-tokiratu ziran errege ta enparauak: jaurlaritzako alduak eta sedanoreak, Araba, Bizkai ta Gipuzkoako batzar nagusikoak, txalo bero artean.

Eguzki dirditsua be, ez gitxitan, laiño gogaikarriak estalpetu oi dau; argia kentzeraiño estalpetu be; arpegi alai baten negar malkoak. Era barean gertatu zan egun aretan be: errege senar-emazteak euren goi-aulkietara ziranean, Makua, Puxana ta Garaikoe-txeak itz gozotan emon eutsen ondo etorria euskeraz ta erderaz. Erregea bera mikrofonoratu zan gero ta irozkai aurrean zutik berbaz asi zan. Une aretan bertan Herri Batasuneko gizonak, abots baten, «Euzko Gudariak gara» abesten asi ziran, sekulako iskanbilla sortuaz.

Txaloak antza zaratak arintzeko bide dira-ta, gogoz jo ziran alderdi batetik, abeslariak eurenean ziarduelarik. Iskanbilla ixilazo ta erea ipiñi nai agintari ta ekintza antolatzaillak... Ertzaintzak onez edo txarrez baraillalariak andik bota naita lerrenak egiten. Azkenik, minutu batzuk joanda, abarrotsaren beroa zerbait giro-tuta, erregeak ekin eutson ostera be bere asitako itzaldian, zalapar bitartean zutik eta irr'barretsu egon zan erregeak.

Olako zuzperraldi batzuk noizik bein txarto ez dagozan arren, itzala zor jakonari itzala erakustea beti-beti dogu zoragarri.

## KARLOS GARAIKOETXEA, GERNIKAN

1980-ko jorraiaren 9-an, Eusko Gobernuko bigarren Lendakaria, Karlos Garaikoetxea, daukagu Gernikan. Batzar-Etxean artzen dau bere Lendakaritza kargua, 1936-ko urrillaren 7-an J. A. Agirre-k erabilitako zin-itz berberak, ots, «Jaungoikuaren aurrean apalik» erabilliaz. Jentetza bikaiña, jaunez eta erri zeetan.

Ospakizuna asi aurretik naiz amaieran, errazoiz oi danez, eusko ereserkia abestu zan, Arana-Goiri-k asmautako letraz eta Al-tuna-ren musikaz. Onela:

*«Gora ta gora Euskadi!  
Areitz bat Bizkaian da  
. zar, sendo, zindo bera ta bere lagia lakua.  
Areitz ganian dogu Gurutza deuna  
beti geure goiburu.  
Abestu gora Euzkadi,  
aintza ta aintza Goiko-Jaun onari».*

Emen be zarata errea! Batzuk, fedeari uko egin dautsoela di-ñoenak, eta erria eurek irakats-bidetik joan dadin, alegiñak alegin dagiezanak nunbait, ereserki orren letraren aurka agertu jakuzan, opa eben arrabotsa sor-azoaz.

Eta nik diñot: noren ikurrinpe ibilli nai dok ik, onaren ala okerraren mende? Nok ekarriko gure erriari zoriona, askatasuna, ondasunak, alkar alaitasuna, goiak ala beeak? Badabe batzuk buru-sapaia txartubearrik! Munduko aberri ereserki danak, edo geienak beiñik-bein, ez ete dabe Jainkoa aitutzen? Zer opa ete dogu guk, erriarekin gabiltzala esan eta erriaren lepotik barre egin?

## JOSE ANTONIO ARDANTZA, GERNIKAN

Igandez, 1987-ko martxoaren 1-an, abertzale ta sozialisten bu-ru, lau urtetako Gobernuaren Lendakaritza artu eban Gernikan J. A. Ardantza-k. Bere kargua ziñetsi eban oraintsu 51 urte Jose Antonio Agirre-k Gernikako Batzar-Etxearen ondoko areitz zarra-ren aurrean.

Ardantza-ren eskumako esku dardartia Bizkaiko foru zarraren gaiñean ipiñitako Biblia baten ezker-eskumako orrietan kokatua, gurutza bat aldamenean ebalarik. Eguerdian zan, arratsaldeko ordu bat l'erdietan, igandez; lendakaria, ezetariko zeremoni barik,

«Jaungoikuaren aurrian apalik» esaten asi zan, J. A. Agirre-k bere kargua egiteko erabilli eban esan-muiña berarekin.

Zeremoni launa, baiña ederra, ospakizunak eskatzen dabezan zer guztiakaz jantzia. Etzan itzaldirik izan. Erreserki ta musika, bai. Eusko Jaurlaritzako, Legebiltzarreko, agintari ta kargudunak, eta erritar ugari, an ziran Lendakariaren ingurua edertzen. Neke-tsua izango bazan be, lau urteko Jaurlaritza frutuz betea opa izan jakon irri-barrez agiri zan J. A. Ardantza jaunari.

## GERNIKA GOGORATUZ

Sarri, nik uste, kanpotik dabiltzan euskotarrak, bertokoak baiño geiago ta zindoago miretsi ta maitatzen dabela gure lurra. Itxaso andik bizi diranak idatzita zelako kartak eta liburuak dauka guzan! Esku artean daukat Ibiñagabeitai-tar Andima elantxobetarrak Karakas-en zuzentzen eban «Eman...» aldizkarian datorren *Delenda Gernika* Frantzisko G. Mardones-ek idatzitako artikulua. Beronek gaztetan Gernikan emondako egunak, egun gomutagarriak, dakaz gogora.

Txori-zale zan amorratua. Perretxiku billa ibilli oi zan, gibelurdirin, urretx ta udabarriko zuzi biribil batzaille. Eder jakozan peletariak: Makala, Marino, Txabiri-tarrak, Txapeloma, Kirru, «Eskolape» akademikuak danak. Gogora dakaz musikariak, txanbolin jotzailleak... Gogora dakaz Marijesiak, Gabon aurreko errondak; onela kantatzen eben:

*«Billosik ba zagoz bere  
etzara Zeu pobria,  
Zeruan jasorik dago  
Zeuretzako erropia».*

Aste Santua gogoratzen dau, eta Pazko kantuak.

Ba ditu oindiño beste gomutagari atsegin batzuk. «Gernika —diño—, Sukalde artearen seaska, bere emakume sukaldari tre-

beekin: Pernanda, Katarrosa, Bitori Batzokikoa, beronen jateko-gai gozoekin. Gernika, bere taberna ta arrotzetxe samur-epelakin; Gernika, bere jaialdi zar-zar, luze-luzeakaz. Gernika, bere itxas-gizon izen aundikoekin, Otxamitz eta Tximini-tarrakin... Gernika, erri apal! Gernika, erri zoriontsu! ».

## AREITZA

«Gernika! Nik pitean bein jo oi dot ona, astia emon-ala, antxiñako euskaldunak bertan itxi euskuezan gauzaz neure izate-barrena eder-murgildu gurarik. Gernika dabe, bai, Bizkaiak eta euskaldun jator guztiak euren edesti-orririk bikaiñena, urre gorizkoena.

Lur-puska onetan daukagu, lermen ta santu, antxiña bateko Zugatza, Areitza, ementxe sortu, erne ta azia, tantai garratz egiña, frutuak be, ugari ta baikor, gizaldietan emona.

Lenengo kimu ta landara, gero garrazta ta azkenez tantai; ez dakigu zenbat urtetan, baiña beti Orrelaxe.

Gaur or daukaguz zaarra ta gaztea, alkarren giro ta arnas be-roan. Zaarra, egia esan, arrizko zutoin artean daukagu gaur, joanaren gomuta lez, kristalezki kutxa barruan; zatitxo bat besterik ez da, enborra soilki, adar ta buru-besanga barik.

Amazortzigarren mendekoa ei da berau, baiña 1860-garren urterantza aultzen asi zan eta orde, zaararen ezkur eta landaretikoa, gaur Batzartegi aurrean lermen ta adartsu daukaguna da.

Zaarra, jakiña, 1892-an osorik igartu zan, eta, Bizkaiko Al-dundiak, Zugatz gogoangarria zaindu ta gorde nairik, orain ikusten dogun kutxa orretan ipiñi euskun». (*Lamiñak*, Aita Onaindia, 91 orr.).





|

Egazkin, lerkaz bete



Gernika sutan

**Gernika erraustua**

Ikuspegi **triste**a

## II     Z A T I A

### GERNIKA    ERRAUSTUA

Gernika ez da gaur. Euskaldunak, baiña, Jainkoa ta Aberria maite ditu, ta ex dau etsipena artzen, badaki miñaren bere atzazkal zorrotza bularrean sartzen dauscenean, errukiaren Jaunagana joten. Orixe ta orixe bakarrik izan zan, fazisten egazkiñak oi ez lako basatikeriz, ainbat ordutan, modu setati ta erruki bakez, beraiño jatsi ta millaka bonba su-emoille ta eundaka lerkai bota ebezanekoa, negarra ta eriotza bazterretan zabal-azoz.

Arronategi jaunak,

Andra Mariko parrokoak.



## GERNIKA KISKALIA

Geiegi luzatu zan gerra zibillean, Elgeta, Elorrio ta inguruak apirillaren 25-an frankotarren eskuetan jausi ziranean, gu, ezeren laguntza ta arnasa bage ikusirik, barrurantz tolestuz gentoan berezko barru-indar batek eraginda. Angoak eta emengoak Bizkaiko uri-bururantz.

Ni egun orretan Basalگو-n nengoan, Bergara ganetxoan. Egu-nez eutsi geuntson laiño, bala ta zaparradeari, baiña illuntzean andik alde egiteko agindua etorri jakun. Eta illabete batzuetan an arerioari agiñak erakutsi ondoren, Elgeta alderdiak itxiaz, beerrako bidea artu genduan. Atzetik etorkigun etsaia tiroka itzalean. Gabaz bide arlo polita jorratu gendun Eibar-tik Munitibar-eraiño koa.

Ziarrotz-pean gentozala illargia, zantzu txar ekarle, gorde egin jakun laiño baltz mordoan, eta gau-ontz bat asi jakun ulu goibel gozagaz. Eta Oiz azpiko Zenika mendi-bizkarrari gaiña artu ta egorantz asi giñaneko, gau-ontzaren uluaren oiartzuna egiazko egiñik doakigun: eguna urratzerakoan, or bonba otsak aurrez aurre.

Arbazegi ta Gerrikaitz ondo lerkaiz zanpatuta, gu ara eltzerakoan. Jenterik etzan agiri bideetan, geu ezik; bai, ostera, Bilbo-tik gu ordezkatzeko etorritako gudariakaz beteriko autobusak ugari, oneik etziran agertzen, zulo gordeetan ezkutaturik bait egozan. Plazako illak jasoak ziran; baserrietatik ekarrezan beste batzuk. Egazkiñen egiteko zakar!

Baserri erdi-jausi bati, arri, teilla ta ondar artetik kea, aizeak dardaratua, zerion oraindik. Guk, plazan zear pizkat ibilli ondoren, egazkin etsaien beste erasoren bat izan leitekela-ta, Gerrikaitze-ko eleiz ondotik gora artu genduan, Bonba zuloak nai-nun. An jausi ziranak etziran, ez, makalak!

Egun argia etorkigun. Eta guk, erritik zerbait urrinduta, Ganbe baiño beerago, bideak daukan oker-une baten atsedena artu genduan nasai ta arriskuz alderatu samar, eta norantza jo ez genkiala. Lendik Gernika-ra joateko agindua geunkan, baiña goizeko bonbaketa ori ez jakun ezaugarri ona. Galzoriaren aurrean, orrez gain, beti izan oi dogu zer orren agerbidea, naizta lauso artekoa.

Or, uste ezik, gure batailloko kamio bat aurrera doana: Algorta-ra doazala diñoskue bertan datozenak, Igeretxe izango da-ta aurrerantzen gure kuartela. An egokitu gara gu be, zortzi beintzat.

## URI BAKETSUA

Egia, zelan zaitue oindutzen! Antxiña esan zan, gaitz-ezpiritua on-ezpiritua baiño zuurrago ibiltan dala. Gernika lerkai ta bonbaz ondatua izan zanekeoxe asi zan guzurraren zabalketa izugarri aalkea: gernikatrak eurak edo orduan an aurkitzen ziran gudariak erre ei eben. Guzur, atso-ipuin eta asmakeri baltzagorik! Franko beragandik asita iñoen ori. Ondo adierazo eban Marx-ek: «Zuk egirik ezpadozu be, zabalaz zerbait, guzurra bada be, bardin; beti geratzen da zer-edo-zer». Au niñoan nik beiñola, eta bardin diñot gaur be.

Sarri laztura dakarre ondiño liburuetan irakurri daroaguzan lanak. Berrogei ta amar urte igaro ostean be, oraintsu argitara emoniko liburu baten irakurri izan dot Gernika kiskaltzean parte artu ebela orduan berton egozan gudariak. Nazionalak izan jakuzan aurrenik onen zabaltzaille berton eta atzerrietan; olantxe eskola textuetan be. Ba dagoz, itxuratan, denporak berak be gainmarratu ta ezereztan ez ditun gauzak. Joana dozu urte mordoa gertakaria izan zonetik. Ordua, beraz, burua bizkar-gain daroanek egia nun dagoan jakiteko.

Egun aretan gudari asko Gernikan? Kaletar eta baserritar jentea bear bada bai, baiña gudaririk ez. Munitibar eta inguruak bonbaz erre ez ba lebez, atzeratuaz etozan guda-mutillak Gernika

izango eben bear bada jomuga. Ez, urruti samar ebiltzan oraindik. Ni ta nitarrak, goizeko amarrak inguruan Oiz barrenean gengozan; Markiña ta Lekeitio aldekoak euren lekuetan, eta arei laguntzera joiazanak arako bidean. Erri, mendi ta bazterrak toki orreitan zaintzen egozan gudariak, ba, abiada ikaragarrian atzerantz eginda be, ezelan ezingo ziran Gernika-raiño eldu.

Gipuzkoa etsaiaren erpape jausi zanean, ango asko babeski billa Gernika ta birako erritxoetara etorri ziran. Inguru au txit baketsua zala-ta, ezbear arrisku bage, ementxe egozan iges egindako asko. Eta gudari taldeak? Onetxek, besterik ez: «Loiola» ta «Saseta» batailloak, Ospitala, Errigoitirako bideko Josefina lekaimen komentua, zaurituentzat, Karmeldar lekaimeen Ikastetxea ta olako batzuk gorde ta zaintzeko.

Astelena zan, jorraillaren 26. Eta jakiña da, astelenez Garnika geienik goiz ta arratsalde jentez bete-bete egiten dana. Egun orretan ba leiteke, bildurrak jota edo, besteetan beste jente Gernikaratu ez izatea. Gernikak orduan, dana esateko, 5.000 bat arima eukiko zituan bertan bizitez bizi ziranakaz.

Labur: uri baketsua, inguruko mendiak baizen jente baketsuz betea.

## GAIZKILLEAREN ERREA

Oker-zantarra dogu gizona. Orrela bait da arima baketsuen egoitza kiskaltzen dauana. Zelan lorrindu asmo orreik? Eta zelan aurrera eroan? Eta zelan egintza gaizto, anker eta giza-lege guztien aurkako orren errua iñori bota?

Ori dala-ta, Gernikako kiskaltzean testigu izan zan Kastor Uriarte-k onela dausku idazten: «Ez dago eskubiderik nobela arri-garri bat egin nai izatea gernikar ezbeartuen lepotik. Guzur biribil onein aurkakoak ziran Gernika-ri gudariak su emon eutsoela, Franko-k ez ebala jakin izan bonbaketa onen barri, aleman nazitarrak euren kontura burutu ebela erri bat birrintzeko saio au, eta olakoak».

Jazoa ta esana alkartu eziñik, onela darrai Uriarte-k: «Ni itanduten ausartzen naz. «Condor» taldearen buruzagi, italiar egazkin taldeko buru, Iparreko aintzindarien koronela, Juan Vigon koronela ta beste espaiñar nagusi batzuen artean Burgos-eko Udaletxeko aretoan eukitako alkar-izketan, eta Motegi mendiko muiñotxoan Juan Vigon teniente koronela-gaz ipar-ekiñaldia asi aurretik, au da, Bizkaia osorik menderatzea erabagi aurretik artu bazan Durango ta Gernika suntsitzea, zelan autortu leiteke Molak eta Keipok ez ebela orren barririk? Zelan izan daiteke, Durango bonbaz lertu ta birrindu ondoren (emen ez bai egoan arma-fabrikarik liburuaren idazleak, ots, Mister Gordon Thomas-ek, eta bai ainbat il-dako, erritar, apaiz eta monja), doixtar egazkinlariai ezer ez esatea, Gernika-z ase-bete ez eitezan, Errenteriko zubia ondatu bear ebela atxikitzat arturik, Durango-n ainbat zubi, zirudiane-z guda-arrisku etziranak?»

Egin daigun gaiñera aleman egazkinlarien elburua, batez be, Gernika birrintzea izan zala. Zergaitik orduan errudun egin gorriak eta abertzaleak? Ez genduan gerraldi guztian olakorik egin. Gernika erraustea, su emonik ez baten soilki, askotan baiño, eta an zer gertatu zan ziur jakinda, zer dala-ta ixil-azo egia? Zergaitik ez kontuak eskatu doixtarrai? Il aurretixoan be Frankok ukatu egin oi eban errete orren egia.

Iñola be burubide au, erri bat zelan austu daiteken ikusteko, Ortarako saioa Madrid inguruan egin naita alkartu ei ziran beinango ta emengo militar nagusiak, baiña Frankok ez ei eban ondo ikusi ain ondoan egitea. Bai, oster, Durango-n eta Gernika-n egitea. Durangokoa gitxi eritxirik, Gernika latz-gogo ta biziago artu eben, ortiko ondorenari begira. Bardin Gernika ta inguruko baserri ta bideak, iges joian jentea biur-azteko, egazkin txikiakaz gogoz zanpatu be.

## IKUSIAK DIARDU KONTATZEN

Bada aldetik ikusiz idaztetik irakurri naiz esanez idaztera. Nobere buruari geure-geure diranekoetan beintzat, nekez sartu oi

dautsagu ziririk. Ikusle danak be, paperean ezarterakoan ikusia noski, iñoizka ixil-erazo, naasi edo bazter itxi oi ditu dagokiozan gauzak. Baiña jokabide orretan dabillenari, berak uste baiño ari-ñago igarten jako barru zatarraren iraulketa. Gizon oro guzurti, baiña zelako arazo ta gaietan jatzun.

Gernika-ren kiskaltzeari buruz errazoi aundi barik zabaldu dira egiari ez dagokiozan barriak: gorrien zuziak erabilli zirala aldarrikatzea, egiazko zentzuna zauritzea danarren, garai aretan liburuz eta itzez zabaldu ziran okerrai eragin eta eurak zabaltzen orain-diño be ekitea, ezta bape gizakiago jokatzea, esan dogunez.

Urteak igaroagaitik ba daukaguz orrela idazten dabenak. Zer dala-ta ori? Gatzak arturiko izatea ez bait da errez garbitzen alde batetik, eta bestetik, idazle askok, Gernika erretea lako gaiak oso begikoak eta zuzpergarriak bai jakez, sekulako nobelak burutu-azteko, gauzak izan diranez ikasiz jakiteko astirik artu bage, besteak olan diñoelako, guzur galant edo egi-antz besterik ez ditugun jatzokunak, egi diralakoa saldu oi dauskuez.

Nik au idaztean, neuk ikusi ta bizi izanaz gaiñ, ainbat liburu irakaurri dodaz gai oni begira, lendik neukan eritxian are geiago tinkotu niaitzu. Errete ostean Gernika-z idatzitako liburuak, ia geienak, begi aurrean ditut, eta lenengoak esana beste guztiak be esanaz, aren atzetik, aren azatz edo ildotik dabiltzala, esan bear. Edo-ta besterenaz jabetu danaren mozoloa leporatu ez dagioen, indar utsez zerbait jorratu ta segi aurrera. Olakorik agiri jaku.

Gernika-ri buruz idatzi dabenen artean, niretzat, George Lowther Steer dozu federik geienen merezi dauskuna. Kazetari berau, Londres'eko *The Times* egunkariaren langille, eta 1936-an andik Bilbo-ra bialdua, emengo gerra zalata; beraz gure artean ibilli zan 1938-raiño, eta beronek emen artu ta batutako albiste ta barriakaz liburu bat osotu eban, «The Tree of Guernica» (Gernikako Zugatza), eritxona. Alemanak Gernika puskatu ebenean, emen egon zan begi-luze, nun-ze-barri ta idazgai billa. Onak diñoana, beraz, naiz-ta pizkat dotoretua, mamiñez egi utsa da; Kastor Uriarte-k be bere liburu «Bombas y Mentiras sobre Guernica»-n auxedala diñosku siñisgarreina.

Ez nintzan ni arratsalde aretan Gernikan egon, baiña bai —gero esango dodanez— ur samar. Nik goitik ikusi neban, onek, au da Steer-ek beetik. Onela idazten dau. «Gure kotxeko orduariak lau t'erdiak markatzen zituan asteleneko arratsaldez 1937-ko jorailaren 26.

«Azoka eguna Gernikan. Eta udan ain zuzen lau t'erdietan jentez beterik. Anai arteko gerrak ez eutsen oztoporik jarten baserritarrai goizetik euren abere, egazti ta ortuariak plazara eroateko, bertan saldu ta erosteko. Salpenak ugaritu ta gora egiñak ziran, bear bada. Gernika orduan, bertako ta kanpotar, zazpi bat milla biztanleko izanarren, uri aski aundia zirudiala autortu bear; Gipuzkoatik aratuakaz eta euskaldun gudaroztekoakaz jakiña. Matxin-alderdiko dirudun batzuk espetxeratuak izan ziran edo-ta uritik anka egiñak; ba ziran beste batzuk, bertan egonda be, merkatuaz iñoiz arduratzen etziranak, eta bake-garaian bertan Gernika-ra jo ez oi ebenak.

Gernika beti zenduan Bizkaiko uri xume bat. Beti eroien bertakoak bizitza lau-arrunta; kalean ebiltzan apaizak euren betiko abade jantzitan, uri zear naiz eleizan. Egunero esaten eben meza.

Eusko abertzale batalloi biak, Loiola ta Saseta, ipar aldera aurkitzen ziran, zugatz-oian berde-baten azpian, Bermeo-ra daroan bide ertzean. Gudariok ondo, txit ondo ikusiak ziran errian. Eusko Erzain Igeletuen egoitza bat be ba egoan Gernikan. Etzan aurkitzen alan be igeska etorren gudarozterik, uria zearkatuz. Markiñaldean burrukatzen zan oindiño sortaldetik eta Oiz-tik kilometro askotara egoaldetik. Gernika atzean egoan, Bilbo-gaz eukazan komunika-bideekin be. Berau apurtu ta ondatzeak igeska etozan gudariai, Gudalburuen egoitzari ta urruti samarreko oiñarriai bakar-bakarrik kalte egingo.

## LENENGO BONBAK

Jota egozan laurak. Goiz eta eguerdi baserrietatik Gernikaratuko zurezko gurpildun burdi, narru-izur dotorez buruak estalitako

bei ta idi-buztarriak, euskaldun baserritar gizon azoka brusaz jantziak eta etxeoandra dotore lirain pinpiriñak, etxerako bidea laster artzeko asmoz egozan. Goi-goi berba egien, azoka onak ekarsten barne-poza erakutsiz. Betikoa, nekez agur agiten Gernikari.

Ez, iñok ez eban gogora ekarriko, ez orixe!, Santa María eleizako kanpaia zarataz danba-danda asi zanean, inguruko gerrarik. Arratsaldeko lau t'erdiak ziran. Ezaugari bat dau Euskal-errian, Bizkaian baitik bat, kanpai-ots orrek, eta jentea barru dei batek bultzatua aterperuntz abiatu zan, toki seguru billa, etsaia gaiñ ebillelako.

Aterpe ta gordezulo asko egozan Gernikan, matxin-zaleen egazkiñetatik babesteko, Durango-ra egindako ibillaldian an jazoa gogoratuta; etxe-azpi, upeltegi, bebarru ta antzekoak arez beteriko zakuz zanzaturik aurkitzen ziran, bada-ezpadan. Olako lekuetako ate-gaiñak au iñoen: «Gordeltkua». Ba ekien, beraz kanpai otsak entzukeran, nun euken gordelekua. Ots ori etzan, ez, txantxetako, benetako dei adigarri baiño.

Miñutu batzutara «Heinkel III» bat agertu zen, eta lodiera aundiko 50 bat librak sei bonba bota zituen trenaren geltoki ondoan, granada truzua eriola. Trenbideko kargudun batek, bere lantegian aurkitzen zanak, telefonoz dei egin eban Bilbo-ra egazkin batek une aretan Gernika bonbardeatzen ekin eutsola iragarriaz.

Gerotxoago agertu zan beste «Heinkel III», bat, alderdi berbera suntsitu ebana, baiña oraingoan urragotik. Ebagita geratu zan Bilbo-azko urrutizkiña. Uria garbitu eban egazkiñak, aurre ta saiets, bere metrail-tresnakaz, nun jausiko jaurtiaz. Azkenez, ibillia arteztu, bira egin eta bere egonlekurantz egaztu zan.

Urten zan eleizatik Arronategi txauburua sakramentuakaz, esan eutsoenez tren-geltoki ondoan azkenetan aurkitzen ziranai launtzeko. Trankil joian kaleetan zear —etzan iñor agiri— untziño Santuaz. Erreteak etziran asi oindiño.

Amabost minutu joan ziran, eta aterpeetatik urteten asi zan jentea. Bat-batean, motorren runrun-zaratea sortaldetik. Olako momentu negargarrietatik kanpo «tranbiak» esan oi geuntsenatarikoak

ziran, «Junker 52» eritxenak, trauskil astunak, egazka baiño airean dindil egozala geiago emoten ebenak. Onexek izan ziran Alemaniak Espaiñara bialdu ebazan egazkin astunenak.

Ustu eben ekarren bonba ta lerkai kargea, taldeka, uriaren gaiñ, tonelada bat lez bakotxean; kale ta basterrak zaborrez beterik, igaro ziran Gernika gaiñez astiro ta astun; bonbak berez etozan beera, lerroan, igaro-aldi bakotxaren ondoren. Ostean etorren eztandaren lertze-zapart ikaragarria. Kee-moltzo eskerga joian gorantz Gernika gaiñes, baltz-illuna, algodoi-mataza aundi-puztua bai litzan. Alderdi guztietatik egazkin geiago ta geiago, infernu gorria zirudiala.

Berrogetamar eta eun librako bonba konta ezin-alen artean alemanak bota ebezan milla bat librako torpedoak be. Gernika lan-go uri txiki estu batean beti atzemon bear etxeren bat, goitik beera zuzenean arrakaldurik, be-barruetan eztanda egiñik. Aterpeetan be sartzen ziran lerkaiak. Jentea moral aundiaz agiri zan ordurarte, baiña laster izuaren izuz garraxika asi zan, zoratuta lez.

Eiztari maillako «Heinkel 51» aldra bat, arratsalde aretan gu zirikatzen jardun ebena bear bada, une onen zain egoan. Ordurarte Gernika inguruko bideak josten ebezana nunbait bei, idi ta ardi-taldeak zauritu ta ilten ebezana. Uritarrak bildur-ikara bizi gorrian iges joiazala, be-beraiño jatsi ta balaz lur-azala urtu bearez akitzeraiño alegindu ziran. Ildakoen artean etziran palta andrazkoak, neuk ikusi al izan nebazan euren gorpu etzanak. Martiaren 31-an Durangon erabilli eben teknika bardin-bardiña erabilli eben emen be.

Eiza-egazkiñak eurrezka etozan, lerroan, olatu bat ondartzan aurreratu oi dan legez. Bitsa ta aparra dariola lertuz, zelai gain dator artezean sua okaturik. Ogei metrail-gaillu batera ta lerroz-lerro lanean, eta amar motorren burrunba! Egaz egien beti muturra Gernika-runtz ebela. Egazkin-larientzat joko bitxia zan artean, bat itxas-ertzean bañu artzen dabillentan olatuak eroaten iztea iduri. Gernikarrak, eta gernikar etziranak bitartean, izu-ikarak jota, bide ertzetako erretenetan aoz-bera edo zugatzen baten enborrari sorbalda itsatsita.

Batzuk, pizkaka iges egin naiean, karkaba ta ur-zuloetan narasten ziran, lupetz-arteko ar gaixo baten antzera; beste batzuk, ur-ixurki barruan be, begiak itxi egiten zituen bakar-bakarrik, baita landa ta zelaietan zear itsumustuan iges baten urrindu be. Asko, buru-ergel, egazkiñen erasotik alde egitearren, barriro biurtzen ziran errira. Eta orduantxe asi zan Gernika gaiñ bonba-zaparrada ikaragarriagoa. Orduantxe suntsitu eban Gernika zapaltzaillearen esku gotor-zitalak, Bizkaiko ikuspegi atsegingarritik Gernika uri ederra erauzirik.

Bostak eta laurenak izango gitxigora bera. Ordu bi ta erdian, or-or, «Heinkel III» eta «Junker 52» motako irutik amabi egazkiñeraiñok, bonbaz ta lerkaiz josi eben Gernika erruki izpirik bage, aurretiaz erabagita eukien era ta neurrian josi be. Jakiñezko modu eratsuan jokatu eben bonbaketan. Batzar-Etxearen sortaldera asi eben saioa, eta izkillu fabrikearen ipar-aldera. Bermeo-rako bdean jausi ziran lenengo bonbak, izar-koroi antzera Ospital inguruan. Goi-indar batek eraginda lez egaz egin eben leio guztiak. Gudari zaurituak airean joan ziran euren ogeetatik. Etxe-egitura osorik arrakalatu zan dardarearen eragiñez.

Etxe brintzatueta, zapi, kortina, oin-azpiko ta zur-gaiak gertu egozan suak jateko, iruntsi ta kiskaltzeko; egazkiñak oindiñok be, orrein gaiñera bota ebezan zidarrezko matazak. Libra biko tuboak ziran, pertsona baten ukondoa beste luze ziranak, zidar-antzo dizdiza zerioenak: kanpo aldeak eukezan alumini ta magnesiozkoak. Barruan, Prometeu-ren munduaren asieran lez, lo egoan sua. Sua, zidar auts antzean, irurogei ta bost gramu pisukoa, gertu sei zirrikitutik erioteko, zidarrezko tubuaren oiñean jarritako zírrikiturik ain zuzen. Olan, etxeak etxetaren gaiñ jausten ziranean, su konserban eukia jausten zan zerutik, areik erretako.

Ogei minututik ogei minutura egazkin olatu barria. Bonba ta lerkaien eztandatik eztandara, metal urtuzko su-txorroak sua emoten eutsen kortina ta oin-azpiko ta alfonbrai, ate ta agai. Miesa gris eskerga batek estaldu eban Gernika: lurretik eutsia zirudian sutzarretatik jagitako abeak eusgai zitula. Gerra eratuaren arteak eskintzen zituan une laburretan, ariñak-arin ebillen jentea, era orre-

tan aterpe itogarritzkoen urteerak arin-azo ta era berean sutan egozan etxeetako ume ta zaurituak arriskutik jarein eta aterarik. Baita eskuratzen ebezan balio aundi bako zer batzuk be.

## NEGARRA TA INTZIRIA

Negarra zerion Gernika-ri, aiotsa ta intzira. Eta kemenez izkilluturik lanari ekion Gernika-k, zaurituak lertze ta ondar arte-tik onez atera guraz, urrengo egazkin olatua urreratu orduko; oneik ba —esan dogunez— ogei minututik ogei minutura ebiltzan euren egiteko donga ankerrean. Erriari kemena emon nairik abadeak. Eta orduko gernikarrak olako artze-ezpirituz sendoturik joiazan. Uria, barriz auts-itxura artuaz joian apurka-apurka; arpegi guztiak agiri ziran, Gernika lez, kolore goibel-grisez. Bildur-izuak, baiña, Bizkaian egundo ezagutu bako gotortasun etsiaren mailla gorenena lortua eban.

Bitarteetan batzuk igesari emonaz uritik urrunduz ziran, baiña beste asko eizako egazkiñen bildurrez eta familitik banandu ez ebelako nai izan, urian bertan geratu ziran. Eta egazkiñak biurtu ziran bein eta barriro euren metal tuboak Gernika gaiñ utsituteko, beste uri-zati bat suntsitu ta aterpeetan beste gizon eta emakume asko obiratzeko.

Urian ibilli zeikean alderdia gero ta estuago egiñaz. San Juan eleizea suak iruntsia. Bonba batek zulo ikaragarria egin eutson, eta teillatua beera etorri jakon, altara nagusia ta pulpitu sutan egozan, zuzi ixetua bai litzan. Alkarregandik bana samar aurkitzen ziran etxe batzuk suak polito menderatzen zituan. Andra Mari eleizea be, goizean bildots, abere ta egazti pilloa plazatik ur-ur euki ebazana, suaren sorki ta alikatu ziran, altara osteko kapera batez be.

Aterpeetan katibu geratu etzan jenteak ipar-alderantza jo eban bizkor be bizkor, kiskaitze izugarriaren aurrean. Orduan Gernika birrintzen ebiltzan egazkiñak, goiak itxi ta be-beetik asi ziran

egazka. Ez jaken erreza antza zanez nai ebena lortzea, sutzar esker-ga arek emoten eban ke ta kedar artean. Seireun bat oin goitik ebiltzan, ezeren eragozpen barik, euren zidarrezko tuboak jaurtiaz; oindiño zutik egozan etxe gaiñetara jausten ziran oneik, bero jasan-eziña jaregiten eban laba baten erdian, txirrist egiñik azkenez bizitzarik bizitza. Uri betea zan Gernika, erlauntz joria aleman egazkiñai janari ederra emon al izateko. Anbeian etzan onezkero iñor ezer gaizkatzeaz arduratzen, oro zan galdua. Bonbaketa ta bonbaketaz, sutan erretan, kiskaltzen eukien uriko jentea, eundaka mordo urduri, mintzo-bage, arri ta belarri uts egindakoetan, Bermeo ta Muxika-rako bidetaz aurkitzen zan. Bazan an intziria ta zotiña...

Zorionez, esan beariko? Eizako egazkin ariñak ostenduak ziran beingoz, eta ez eben igesari emoniko jenterik kirikatzen, zelai, bide ta txara zear sarraski egiñaz. Austuta egoan jentea izuaren izuz, ezin eban geiago, akitua, abaildua, jausia Oso-osorik. Edozein egaletan jausten jatzun, garbitzeko lurrera jaurti oi dan erropa moltzo iduri. Gernika-n ezin zeikean ezertxo ba alperrik galdu batorik aurkitu, koltxoi zar eta buruko zirtzil batzuk, sukaldeko mai ta jarleku batzuk, sutatik atera al izan ebezanak.

Arratsaldeko zazpi t'erdietarako, suak Oso-osorik iruntsita eukan uri txiki baiño jentez ondo asea, Batzar-Etxea ta fazista familien etxeak, oneik ba aundikiak izanik, eta aberatsak, erritik alde samar arrizko egoitza bikaiñetan. Sutzar ireslea etzan arein atxeetaraiño eldu, suak, aizearen ikutu biziz, kasu batzuetan arei be erpatzarrak ezarriz.

Zazpirak eta berrogetabostetan alde egin eban azkenengo egazkiñak. Entzun leikean orduan, egazkin lertzaille astunen motorotsez eta lerkai indartsuen eztandaz belarriak erdi-gor egozan arren, suteak ateraten eban txirtxir gogaikarria, eta ormak lez teillatuak beera jauskeran egiten eben dardara ta latz-ikara bizia Gain jausi zan gaba. Etzan Gernika-rik...

Eusko Ertzain Igiletuak geldi-une batzuk egin zituan bidean, telefonoz Bilbo-ra dei egin eta Gernika-renak egin ebala iragarteko.

Azken baten, ixilla urraturik, experientzi kontatzen alako orretatik onez urten ziranak, alkarri esaten asi ziran: zenbat egazkin izan ete ziran euren erria eraso ebenak. Batzuk inoan larogei, beste batzuk eun, eta irugarren batzuk berreun. Norbaitek uste eban are geiago izan zirala. Etzan errez zenbaki ziurra jakitea. Baiña Gernika-tik kanpo bonbaketa ikusi ebenak berrogei edo Berrogetamar egazkin kontatu eBezan, amar eiza-Burdi Barne sarturik. Joan-etorri asko egin eBezan egazkiñak, BonBa sorta Barriakaz,

Gernika erriarentzat ez da ezer kopuru auzia, latz-ikara neur-tuezin azken Bakoa Baiño. Bertakoak entzun eBezan Bai motor-ots ozena ta lerkai ta BonBen lertze-eztanda ikaragarria, guzti ori entzun eBen Bai euren Belarrietatik apaurka apurka illaz joan zan arteño. Ikusi Barriz aterpe ta gorde-zuloetako ate alboraka ebiltzanak ikusten zituen, erdi ausi ta askatuak, eta euren gizaki kuttunen arpegi lokatu ta giltzetik urtenak. Kalez ibilli ebiltzanak, ogetalau moltzotan ardatzetik loturik zerutik trumilka jausten ziran zidarrezko tubo areitatik erneten ziran suzko orratzak ikusten ebezan bakar-bakarrik. Batzutan, neurriak artuz, beerantz burua biurtu orduko, ke-mordo artetik ikusi egiezan, eurak il-azo nairik ebiltzan egazkiñen ego luzetuak, baita entzun be orma-murruak eratxi, teilatuak sustraitik atera ta zugatzak erauziz uria osorik jorratzen eban metrail-txirrio, zarrastada.

Iges joan ziranak arduraz barriro erritatzean, etxe bakoitzak emoten eban erre-berotasunaren giro epel leunpean, ikusi al izan eben nik neuk be gau aretan bertan ikusi nebana.

## GABAZ GERNIKA-N

Bilbo-n jadanik, bialdu genduzan geure kronikak Markina-tik Arbazegi-Gerrikaitz tartean arratsalde aretan Burutu ziran bonBaketan albisteakaz. Zazpirak inguru, Gernika lerkia zapaltzen inarduela iragarri eustan Arbex-ek. Izpar ori naiko arin artua izan

zanarren, beste zeaztasunik ez eukala, gaiñeratu eban. Ez eutsan itxuraz garrantzi aundirik ezarten bonbaketeari eta nik aitatu be ez neban egin bera neure txostenean.

Zortzi ta erdietan, Torrontegi-n gengoan aparía artzen adis-kide mordo bat: «Seven Seas Sprey»-ko Roberts kapitaina ta onen alaba Fifi, Arbex, Kristofer Holme ta beste zortzi kazetari, geugaz maira jarten ziranak.

Jantoki illuna eskuindar andra aundiki ta gizaseme zarrez beterik egoan; ixil-mixilka mintzaten ziran euren artean, eta oteleko karraju zear txirristatzen zuurki. Beti lez joian aparía, Andoni Irala-k iragarri euskunean telefonoz: «Sutan dago Gernika».

Esku-zamauak bera botaz, kotxeraíño eta arin be arin abiatu giñan, illunetan, Gernika-rantza. Gogoan dot oraindik zelako barne-ariz nengoan ni une aretan. Ziur asko barri onez jabetu ziran ingles asko lez. «Irala-k geitu egiten dausku gauzea —niñoan neure barrurako—; eziña da uri oso bat sutan egotea».

Arbex-en kotxeari jarraika joan gintzazan goizez zearkatu genduan bidetik. Zoro baten antzera joian Arbex, bere zigarroaren aotxo leio edegitik agertztan jakola. Zigarroaren argiak dirdir egian gure aurrean zeruaren islaz lausoturik geratu zan artean.

Gernika egoaldetik amabost millara, zeruaren koloreak zarrast egiten asi jakun.

Ezin zan, oindiño, orban arraru aren etorburua ikusi. Gernika gorderik egoan gu aurrera giñoiazan mendien atzekaldean. Baiña konturatu giñan, bai, eta errez konturatu be, dizdizera itzala ke-laiño lodiena zala ta ditzira gorrizkea suete aundiren batetik sortua. Zeru azpia bere barren naasian, oro artzen ebalarik, Gernika islatzen egoan, eta dardar egian geldiro ta arian-arian, guda-dantza bat dantzatzaz zazpi milla gizakiren Sukalde gaiñ.

Mendi artetik urtekeran, begi aurrean agertu jakun Gernika, mekanozko zur-atze eskerga baten antzera. Leio bakotxetik jalgitzen suzko miiñak. Eun eta zapi orde, erretan ez egozan zintzil zakarrak baiño. Etxe-gorputzak jausi-zorian dantzari, euren jeometri zorrotza unetik unera suak uzu ta gorri iruntsi nairik izugariro.

Sartu gintzazan kotxez Gernikan, kontu aunditan jakiña; ego aldeko kaletik giñoiazan, au onezkero kale etzanarren, Egur, aga ta zabor naspil baltz ketsua zan oraindik txinpart-urtika; atera-tako telefono-ari jausiak nainun oztopogarri. Ezker-eskumako etxeak sua erioen txuka, Niagara-ko Ur-jauziak bitsa baizen errez. Gure eskumaldean lau bildots ikusten ziran ilda, odoletan. Plazara eldu-ala, bonba zulo ikaragarriak eta lerkai-eztandak moltzotu barri ziran lur-mendiak igaroz, Batzar-Etxetik ur-ur, bide ondoan, Sasete Batalloiko gudari mordo bat aurkitu genduan, ikaraz zurturik egozan, aginduren bat adierazo nai ba lebe lez. Sutan egozan etxeetako erlantzak argitzen zituan arein arpegi laiño nekatuak.

Enparantzan, Batzar-Etxearen kerizpe illun-baltzean, auxe bait zan gau aretan Gernikan kerizpe egiten eban etxe bakarre, jentea egoan aulki apurtuetan jarrita, mai lakarretan edo-ta koltxoi bustietan etzunik. Andrazkoak ziran geienak, eunkada batzuk edatzen ziran bertan, egoteko gai zan toki estu aretan. Andik igarotean buruko loi batzuk gertetan ebiltzan lo pizkat egiteko asmotan. Baita beste batzuk ara ta ona zerbaiten billa. Eurakaz mintzatu giñan eta gertatu zan guztiaren barri emon euskuen. Jente areik, trajediak bizi joak, siñismen bete-betea damotsoe nik idatziari. Abade bi egozan an. Arronategi aita etzan iñun agertzen, eta iltzat jotan eben. Jakiñarena egiten eben neketsu ta itz gitxitan, eta au ezta arrunta España-n. Garraxi ta ots bitxiz adierazo nai eben egazkiñak bonbak jaurtzean, eiztariak metrail-lerkaiak erauztean, lertze-eztanden dundaba, arrakalduta etxeen jauste zaratatsua, sugarra urian zear zabalazoz su-tuboak dizdiz egiterakoan ekarren ondoren esan-eziña. Orixe izan zan Gernika-ko erriak emon euskun testigintza samin-alatsua. Geroago, Gernika-n egundo egon etziran pertsonak, beste istori batzuk asmatu zituen beste asmo batzukaz.

## ILLAK ETA ZAURITUAK BATZEN

Testigu asko ta asko betiko ixildu ziran. Ni ara eldu nintzeanean, arein gurpuak etxe zuzituetatik atera ta batzen ziarduen. Jesus baten desagertu ziran famili osoak. Maillatuak eta more

agertzen ziran illotzak. Gernika inguruetatik eroiezan ildako asko ta asko: bala-zuloz josita eukezan gorputzak. Neskatx eder baten gorpua ekarri eben gudariak; ospital ondatuaren ate aurrean itxi ebenean, gudari areik negar-malkoz eukezan begiak. Ezin adierazo izan eben zergaitik zan euren negarra.

Su-itzaltzaille talde batek, ur-aga makar bategaz, alegiñak alegin ebillen Andra Mari eleiza atzeko kaperako suari eutsi nairik. Ni, illunetan zear, Batzar-Etxera zuzendu nintzan. Ango baratzeke lilitegiak ondaturik egozan, eta leioak errotik eginda. Baiña Etxearen ostean zutik agiri zan eusko askatasunen Aretxa. Ikutu бага egoan! An egoan margo illun-arreko enborra, loratsu zanean, onen ader azpian Espaiña katolikuko erregeak zin egiten bait eben euskal demokraziari lotsa ta begirunea izango eutsoela; zutik egoan, izukaitz, bere erio momituan, an aurkitzen zan kolore zurizko zutabe lodi artean. Auzitegiak Bizkaiko eskutu landuaz —zugatza ta otso bi—; oneitan artzen bait jaken Bizkaiko Jaunari agertzen jakozan lotsa ta menpekotasunaren ziña, eta oneik be ez eben kalterik erakusten. Arlosen gaiñean zabal larros-orri batzuk ikus al izan nebazan azken bonbaketan Gernika gain egotzitako zer gorritzak bai litzan.

Uriaren erdian, sakabanatutako su-miiñak, alkarturik, txinpart irrintzi bakar egin jakuzan. Eusko Ertzain Igiletua, Barru-Jaurle zan Montzon jauna buru zalarik, enperantzaren andiko aldetik soegian, illaun ta ezinkor, ikuskizun gordiña; kaleak ementxe estuagotu ta alkar gurutzaturik sutzarraren erdiunea egiten eben. Araxe eldu nai izan genduan, baiña txingar gorizko alfonbra ikaragarri bat legez ziran kaleak. Arri, zakar eta apurreriak jausten ziran etxeetatik eta plastaka jausi be, eta oindiño zutik geratzen ziran ormak botaten eben berotasuna aundi-aundia zalako, erre egiten jakuzan matraillak eta begiak. Iñoenez, ba-egoan an jentea lur-pean salbatu bear zana. Dozenaka kotxeen azalak ikusten ziran txingarretan. Gu ezer egin eziñik, lotuta, eskuak patrikaretan genduzala, geure buruai itaunka, mundua zelan izan leikean ain zentzun bakoa eta gerrea ain erreza gaurko armentzat.

Laba izugarri aren ingurukoakaz berba egin genduan, ordu bian lez an iraunik. Zigarro-mordoa erre neban neure ezpiritua pizkat

sendotzeko. Gero, Bilbora itzuli giñan, eta emen lo egin neban Gernika-ri buruzko albiste emotea gogai izanik.

Biurkeran, gobernuko kamioiak eta andik-ona ebiltzanak aldatzen ebezan idi-burdiak aurkitu genduzan bidean. Gure kotxea-ren farolak, Bilbo-rantza ta Mungi-rantza astiro-astiro joiazan eundaka euskaldunen sorbalda mantaz estalduak argitu eroiezan.

Zigarro ta zigarro artean, jostaketan niñoian ni gau aretan Gernika-n batu nebazan zidarrezko iru tubugaz. Termita (alumini auts-egia ta metal oxidoaren nastea) tantaka erioan ariz-ari euren azpiko ziloetatik. Bonba su-emoille areik aleman fabrika RhS-koak ziran eta 1936-an noizkoak ziran ipiñiak, euren ikurrak iñoanez. Idazkun gaiñean txiki xakiz irudi bat eroian: Arrano Goile, bere kuso-egoak zabal.

Gernika suntsitzea berau ikusi ebenentzat bakarrik etzan izan ikuskizun izugarri-izugarria, baita izan zan guzurrik zentzun bage ta ikaragarriena be; ez, kristau belarriak ez eben entzun olakorik, Anania oiñak aurrerantz, laba batera eroana izan zanetik».

## BESTE TESTIGANTZA BATZUK

Kazetari egizale onek esana naikoa dogun arren, bego oraindik emen beste lauok esana be: Alberto Onaindia Apaizak, Jose Labauria-k, J. A. Agirre-k, R. C. Stevenson-ek eta Hugh Thomas-ek diñoena.

## ON ALBERTO ONAINDIAK

«Foru uriko sarrerara eldu giñanean bostak eta laurenak lez izango ziran. Astelena zan, eta azoka eguna. Geltoki ondotik igarotean, bonba leerketa entzun genduan, oni bertatik beste bi jarraituz. Bee-beetik egaz egiñez ebillen egazkin batek bere bonba

kargea bota ta urrindu zan, ez luzaro. Gernika-rentzat leenengo gerra experientzia izan zan. Leen uneko izu-ikarak gernikarrak eta asteroko azokara etorritako baserritarrak dardaraz ipiñi zituan. Zalaparta bizia somatu genduan or-emen.

Kotxetik jatsi gintzazan, eta jazotakoa zer izan zan jakiten alegindu; baita urduri ta kezkaz egozan emakume asko baretzen ekin be. Minutu batzuk gerotxoago, Mertzedeko lekaimeen komentu inguruan beste bonba batzuk jausi ziran, eta jentea kaleak itxi ta gordeleku, bebarru ta aterpeetan ezkututzen asi zan. Andik laster itxas-aldetik etozala zirudien zortzi bat egazkin astun agertu ziran, lerkai ugari jaurtiaz; eta onein ondoren, egi-egiazko bonba su-emoilleen eurite ikaragarria etorri zan.

Iru ordu ta geiagoz, jarraian, gain ibilli ziran egazkiñak, bonbak, lerkaiak jaurtzen eta bazterrai su emoten. Ba-ziran oindiño egazkin banaka batzuk, 200 metroraiño jatsirik, izu ta larri igeska joian jente gaixoa il ta zauritu naiean ebiltzanak».

## JOSE LABAURIAK

Labauria kapitaina, Seber Altube-ren ordezt, Gernika-ko alkate zan garai aretan, ots, uri au bonbaz ezereztu ebenean. Ziur egitia, beraz, beronen testigantza. Eta ain zuzen, beronegana jo eban Beljika-ko izparkari batek esaten zanaren labatik araka barri garbiak gura ebazala-ta, erreguka idatzi eutson Gernika-ra. Ona Labauria-k erantzuna:

«Zuk eskatzen zeustan azalpen lau egiti batzuk egin nengizuzala gure erriak gaiñ izan dauan zoritxar aundian buruz. Laua ta egiazkoa, izango da, bai, nik diñotzudana, dalako Ondamendia neuk neure begiz ikusia dozu-ta. Baiña zuk mundu osoari erakutsi nai dautsazun ezker, eta batez be Beljika-ri ta Frantzia-ri, nire testigantzaren egitasuna, adierazpen goi-goiko bat egiñez asi bear dot jazoaren barri emote au:

Katoliku ta euskaldun nozu. Katoliku lez Jainkoaren izena daurtort, eta euskaldun lez zin dagit neure aberri, Euzkadi-gaitik, emen diñodan guztia egia dala gertakizun negargarri ontaz. Baiespen au laster sendotuko dabe millaka gernikarrek, gaur geure aberri askearen geratzen jakun azkenengo bazterrean bizi ta mundu osoarentzat guztien artean dokumentu bat gertatzen diarduenak. Zin zabal eta istoriku au, aleman egazkiñak nire errian, lurrez txikia, baiña munduko tradiziñorik zaarrena iraun-azoten ebana, egiñiko millaka illen odolez izenpetua izan daitekena. Alai ta ustetsu ikusten genduan uri au, egun argizko baten, astelen arratsaldeko lauretan, 1937-ko apirillaren 26-an, iru ordu geroago sugar ta auts egiña egoan.

Laurak eta amabostetan alkatetxean nengoan neure karguko arazoetan. Egazkin baltz bat agertu zan, oso beetik, urreko mendietatik etorrena eta jente asko kezkatu ebana. Arrastian, ekin eta ekin, bonbak eztanda ta eztanda egien an eta emen, eta uste izan genduan gure azken ordua eldu jakula. Egun ortararte, Gernika-k ez eban iñoiz bonbaketarik ezagutu. Geroztik Gernika ezin daiteke bonbaz suntsitua izan, Gernika ez bait da jadanik. Txori baltzak emon euskun ezaugarri eriozkorra. Bederatzi bonbak ainbat bizitza ondatu zituen. Ondoren agertu ziran beste aldra batzuk, ogetazortzi egazkin. Aterpeetara jo eben errikoak, arin-arin. Udaletxe-pean geunkazanetara irureun bat pertsona batu ziran, emakumeak eta umeak geienak. Motorren burrunba otsez bete zan airea, bonba bitartean ia-ia entzuten etzana. Iru ordu egon giñan geure buru gaiñ botaten ebazala-ta atertu barik lerkai ikaragarriak, bonbaketan ziarduan metrail-egazkin batek. Aterpeko atean bertan biurtzen ziran lau pertsona, il-agiñik. Barruan, zinkuriñak, oiña-zea, otoitzak. Emakumeak euren seme-alabak basarkatuz, zarren eta gizonen ezpanetatik urtendako otoitz eta arrenak.

Lenengo bonbetatik iru Udaletxe gaiñera jausi ziran, gu aurkitzen giñan lekuan, eta beronen iru pisu arrizko ta kimizazkoak geure aterpearen gaiñ murgildu jakuzan, gu lurperatuta itxirik. Zazpiretan, argi-izpitxo bat ikusi genduan, poztu ziran gure biotzak. Ez genkian, orraitio, argi pitin orrek argi-azoko euskunik geure bizitzako ikuskizunik its negargarriena. Gernika len bi-

zitzaz eta edertasunez beteriko uria genduan, eta Gernika, orain, etzanugar ta auts-meta izugarria besterik; auts orrein gaiñean il-artitz au ipiñi bearko zan: «Emendik igaro da jermendar zibilizaziñoa».

Gernika ezta onezkero. Bere ondar-mondar gaiñean, auzoko oian eta basartetan, illak egon dira, il-agiñekoak, zaurituak. Euren sendikoen billa, estu ta larri ebilzan iges joan ziranak. Eleiz-gizonak zautiruak laguntzen iñarduen buru-ukapen aundiz. Eusko agintariak eta Bilbo-tik bialdutako laguntza-taldeak arrigarriro lan egien. Zenbat gauza triste argi egin ebezan Gernika-ko sugarrak!

Ospitalera joan nintzan Garteiz-en alarguna ikusten; bere alaba biekaz urten zan etxetik, bonbaketa asiaz betara; bidean arrapatu ebezan, eta ondo zaurituta aurkitzen zan amak bere alaba biak ilten ikusi zituan, berari oratuta. Uritik at, ogetazortzi mutikok osotzen eben gazte aldrea bat atzemon eban egazkin-taldeak. Egazkin batek jazarturik, Gernika-ko erre kara salto egin eben arriskutik iges egiteko. Baiña doixtar egazkin-zaiñak metraillak josi ebazan bertako urak, erruki barik josi be gero, eta gazte orreitatik (soldaduska egiteko adiñik ez euk en oindiño) amasei antxe il ziran.

Ormaetxea igesi joan zan txaratxu batera bere emazte ta alabeagaz. Eizako egazkin batek, be-betik egaz egiñik, metraillaz garbitu zituan. Zugatz artean gorde ziran lenengo; emaztea jausi zan, alabea gero, ta ariñeketan joan aita gaixoa luzaro be luzaro eraso eban txori baltz anker aretako lemari gaiztoak. Familitik auxa da bakar-bakarrik bizi dana».

## AGIRRE LENDAKARIAK

Gernika nun zetzan, zelako uria zan, astelenaz baserritarrez beterik, etsaiaren egazkiñak egindako triskatza biurria, illak eta illak, eta abar aitatu ondoren, onela darrai:

«Illunabarrak uxatu eban Gernika ganetik azkenengo txoritzar baltza. Su goritan egoan uriaren argitasunak euzko lurralde eda-

tsua gabaz egunduta eukan. Sutegi atan kixkalduten egozanen errukarria...! Ara emen ango bear negargarria ikusten izandako Euzkotar Jaurларikideak ziraustana: «Dante-ren gaiztoki ikuskizunen bat ez ete dan esango neuke, aretxek asmauak baiño biotz-ikara latzagoa emongo ezpaleust gero! Bide ertzetan jarrita, ikerarik egiteka, Gernika-ren azkena ta euren laztanen gorpu-kixkaltzea dakusanen lako begirakunik! Zoratu egin jakela zirudiek. Latzikaraz arri biurtuta legez yagozak. Miñaren miñez negarrari emoteko be ezpalitzozak, negarrik be etxoek egiten».

Euzkotarron uri agurgarriaren erraustea egiña zan. Baiña Gernika-ko Zugatzak, askatsun-ikurra dogun Aritzak, bere abar orritsuak garrez gorritzuriko ortzeruntz jasorik ebazala, osorik, ikerarik egiteka, tente irauan, askatasun alde Euzkotarrak eundakaz euren bizia opaldu bear izanarren, berak ikurtzen dauzan egiak ez dirala egundo aldatu ez igaro egingo, gizadiari iragarri nai izan bai leutsen.

Erasoaldi au jakitean, lenengoz Gernika-ra joatekotan be egon nintzan. Zoritxar onen negargarri guztia zeatzago iragarri eustenean, ostera, ez joango bai joango itxi ninduan. Gau beranduago egin zanean, ango suaren sua ta ango ondamendiaren gaitza ikusi gurez atzerriko Ordezkarri ta barrizaleak Gernika-ra joazela jakin nebanean, bape joan ez naiago izan neban. Ez neban nai onenbesteko basatikeriak egin leikedan biotz-ikareak geure egikera garbi, zindoa apurrik be aldatu eragidanik. Naiago izan neban neure gogapeko bakartasunean geratu, bere buruaren zindotasuna aintzat dauan gizonak, etsaiaren zindotasun-ezak biztuko sumiñari ezin darraikeola, esan be neure gogapeak beti esan daust-eta. Irratizkiñez, orraitio, onetaxe itz-egin neutsan gizadiari:

«Egunen baten epaitu bear gauzan Jaungoikoa ziñaldari dodala, ta geure egite ta itzak agirian ipiñiko dauzan Edestiari begira nozuela dirautzuet doixtarren egazkiñak iru ordu ta erdian gaurdaño entzunbako gogorkeriz, ezetariko zaingarririk ez eukan Gernika-ko uri ospetsua zeatz erre ta lautu artean bonbardeau dabela: egi-egia benetan. Latz-ikaraz zoratuenean iges egien andrazko ta umetan izugarria erail dabe: euren izkillu-azkarrez atzetik erauzika: ziardu-

tsela. Une onetan dantzustan gizadi gizatuari itandu dagitsat nik ta bere askatasun alde baizen Gernika-k eta onen Zugatz urte-tsuak ainbeste gizalditan adierazten izan daberen erkalmenaren alde jokatzea gogokoen eta aintzagarrien izan dauan Erria, onenbestean sakaildu ta triskau dagienik jasango dauan».

Baiña zetan arriturik etzan. Erasoka etorren gudarozte-buru zan Mola-ren beingo zemakuntzak egi urten eban. Bilbo ganean egazkiñez zabaldu ebezan iragarpen batzuetan Mola-ren zemai zital auxere irakurten zan:

«Bizkaia guk triskau egingo dogu. Bere lurraldeok erautzirik, zeatz ondatuta ikusi dagiezanean Ingelanderak Euzko boltxebitarroi geiago lagunduten jarduteko gogorik ez dabe izango. Geure Aberriaren egifiai kaltez jagi dan Erri galduaren uri nagusia zearo erraustea baiño tz dago».

## R. C. Stevenson-ek

Bilbo-n orduan kontsul zan onek, 1937-ko jorraiaren 28-an, Endaia-n Ordezkarier egoan Sir Henry Chilton-i onela:

«Ene adiskide Henry:

Atzo Bermeo-ra eldu nintzanean, Gernika erraustua izan zala esan eusten. Bertatik joan nintzan *in situ* begirada bat emotera eta arriturik geratu nintzan batez beste bost bat milla biztanle daukan uri a ta irailletik igeska etozanakaz amar bat millera eldu zana, Oso-osorik zuzituta egoala ekusiaz. Amarretik bederatzi etxe bizi ezindako moduan dagoz. Asko sutan oindiño, sutegi barriak jagirik, txarto egiñik egozalako edo, aurreko egunean eztanda egin ez ebenak bide. Eta oraintxe dagie ni emen nabillela, jausitako aga, kaperio ta orma tartetan.

Ezin daiteke igarri illak zenbat izango diranik, eta ziur asko iñoiz be ez da jakingo zeatz-zeatz. Batzuk uste dabe milla bat izango dirala, iru milla izango dirala diñoen lez. Dan-dana ikusi eban batek esan eustan, arratsalde laurak inguruan, Zeruan agertu zirala iru bonba-ontzi ta indar aundiko lerkai erretzailleak bota

ebezala. Ezkutatu ziran gero, eta, amar minutu barru, beste bost edo sei etorri ziran, eta era orretan ordu batzuetan jarraian, zazpirak jo arte. Euren eritxiz, berrogei ta amar bat egazkin ibilli ziran. Bi edo iru oster a egin ebezanean, errikoak sor ta lor erdi-zoraturik geratu ziran. Gizonak, andrazkoak eta umeak larri be larri urten ziran Gernika-tik inguruko muiño soilletan gora iginik. Bape erruki bage lerkai z josiak izan ziran, nai z-ta ondorio ta arrakasta ez aundiz. Izarpean igaro eben gaba, euren erria sutan ikuskatzen. Kaleetan zear ikusi nebazan gizon eta emakume ainitz euren etxetako ondar-mondar artean euren gizaki kutunen gorpuen billa.

Montzon aurkitu neban arratsaldean, zoritxar aundiaren aurrean arpegia be antz-aldatuta eukalarik. Nik esandako jentea atzerriratzaz itz-egin neutson, milloi lauren pertsonena zala esan eustan, eta a eziña zala atzerrian zentzun aundi barik jokutzen ebiltzala-ta; ez egoan, gaiñera, erakunde berezi bat alako asmoa osotu ta aurre-ra eroateko lain zanik...»

## HUGH THOMAS-ek onela:

«Arratsaldeko lau t'erdietan, eleizako kanpaiaren errepikak iragarri eban egazkiñak ur zirala. Aurretik be izan zituan alderdi arek eguratseko eraso batzuk, baiña Gernika etzan lendik bonbaz joa izan. Egazkiñen kontrako babeskirik ez eukan Gerniak. Bostak lauren gitxiago, Heinkel III batek (bonba-ontzi barri arin doixtar bat, 1.400 kilo bonba eroateko gauza zanak) Moreau komandanteak zuzenduta, lerkai z bete eban erria; ostendu ta barriro agertu zan egikera bardiñeko iru egazkin geiagogaz. Heinkel-en ostean iru talde barri agertu ziran espaiñar guduko mamu zaaretakoekaz osotua, dalako Junker 52-koak -23 egazkin—, eiztari barri Messerschmidt BF-109, eta beste eiztari zarrago batzuk, Heinkel 51. Zeregin bikotxa beteten eben eiztariak, bonba-botatzailleai lagun egin bear eutsen, baiña baita, be-beetik egazka, ikusten eben jentea lerkai z zuzitu be. Egazkin uinkada batzuk bonba su-emoilleak jaurti ebezan, lerkai indartsuak eta *shrapnel* tipokuak, guztiz 50.000 kilo eukezanak. Bonbaketa orretan 43 egazkiñek parte artu eben,

eta Junker-ak von Knauer, von Beust, eta von Krafft tenienteak zituen lemari. Uriaren erdia erraustuta geratu zan, garretan. Erditik urrun samar egozan Batzar-Etxea ta Aretx ospetsua, alan be, ikutuge gelditu ziran, baita erritik kanpo aurkitzen zan izkillu-fabrikea be. Askotsu il ziran, milla bai bear bada, gero jazoak jazo zirala-ta, baiña, ezin izango da jakin, zeatz-meatz, zenbat izan ziran guztira. Askoz geiago geratu ziran motzitu ta zauriturik. Azken orduko bonbaketetan italiar egazkin batzuk be parte artuko eben bear bada.

Jazokunok an egozan testigu guztiak baiestuak dira, bertako alkatea eta britandar kontsula tarteko dirala; orobat orduan Euskalerrian aurkitzen ziran erbestetar kazetariak be, inglesak baitik bat. Bolin-ek oraitiño, Salamanka-n nazionalen prentsa-bulegoko buru zanak, apirillaren 27-an jakin-erazo eban euskaldunak eurak ler-eragin eutsoela euren erri berarizkoari» (*La Guerra civil española*, 1985, 2 alea, 676 orr.).

\* \* \*

Orrelaxe iñoen eta Orrelaxe idatzi eben geroago beste askok eta askok, Alberto Onaindia-k, Valladolid-eko kanponiguak, Gas-teiz-ko eliz-barrutiko abade mordo batek Erroma-ra bialdutako idazki-gilleak, eta beste eundadak. Prieto'k Goering'eri: «Aukera leikezan —saio egiteko— bere sendikoak».

## NIK IKUSITAKOA

Ederra nunbait ikuslearen autorra. Ni ez nintzan, egia esan, Gernika zuzitu ebenean, bertan aurkitzen, ango kaleetan beiñik-bein. Baiña ez andik kilometro askora be, ez nintzan egon erri agurgarriaren kixkaltzea ikusten. Egun orretan, goiz-goizetik, Ar-bazegi ta Gerrikaitz bonbaz erre ebezanean, an nintzan ni be, kirats artean, Gernika-rantza artzeko asmuz. Baiña, aizeak ostoi lez, guri be barruan ixil-zirkin batek Oiz alderantz bultz eragiten. Eta ez gintzazan Gernikaratu.

Arratsaldean, Gernikaldeko eztanda-otsak entzunik, beste batek lagunduta, Bizkargi eltzeke Arburu mendixkara jo neban, andikaldeetik zer zan jakin naiean. Seirak etziran oraindik, eguzkia sartalderantza egiten asia ba egoan be. Gurme ta ipar-laiño zerrendak or-emen, baiña eguraldi argi ederra: urriñeko mendi gaiñak, Sollube, Izaro, Atxerre, Ereñozar, Igotz-mendi, Oiz, Anboto, Gorbei, Ganekogorta, Serantes... errez genkusan kokatu giñan lekutik. Ur-ur geunkan begi aurrean biok maite genduan Gernika, gure uri sagaratua.

Gu ara gintzazanerako, sutan egoan Gernika ta egazkiñak, eiztariak jakiña, andik ona ebiltzan, Gernika gaiñez eta Aiangiz, Kortezubi, Artia, Lumo, Errigoiti, Muxika, Gorozika, Arratzu, Mendata, Albitz inguruetan zear, burrunbots ikaragarrian, eta geratu barik; noizik-bein Autzagane-tik Bizkargi-rantza artzen eben, gu gengoan lekuraiño eldurik. Txapar ta sasi artean gordetzen genduzan geure buruak.

Tente gengoan giñartzan, bada azpadan. Zabal begiak, biotza zirrada bizitan; ke-laiñozko txapel izugarria Gernika biran, lanbro zuri artetik txinpartak gorantza. Egazkiñak, astun eta arin, dana triskau ta sutu nairik. Sabel barru dakarrezan kargak utsituz badoaz Laida zear itxasorantza, baiña laster datoz atzera, Laida-tik Oka-raiñokoa osorik erre ta zuzituaz. Dante-k ipernuan ikusitako sutzarretan Gernika, ke zurbilla gero ta geiago zabaldu ta igonik.

Sai ta bela tzarrak ez dozuz ikusi iñoiz ardi bat aitz-artean ilten danean? Edu orretan ebiltzan doixtar egazkiñak, joan eta etorri, aokada bat iruntsi ta oka, ta beste bat zanpa, bardin egiteko. Bildur ziran, antza, Anboto ta Oiz gaiñetik egaz egiten, eta Udalaiz, Santa Eufemi ta Amoroto-z itxasora zapart egien, Laida jomuga ebela, Gernika-runtz arturik; ortixek egin oi eben joan-etorria.

Ordu bi gitxienez joan jakuzan. Ikuspegi doillor biurri aren aurrean barne-negarrez aserik, Jainkoari otoitz egin geuntson gure Erriaz erruki zedilla eskatuaz. Badau artea ta eroapena euskaldunak, baiña olako miña ta oiñazea, ezin jasana ez ete? Erruki, bai, erruki zakiguz, Jauna!

Eta zuok, atzerritarrok, zergaitik olan jo, zapaldu, ondatu gure erria? Zer gaitz egin dautzue? Zek ipiñi dautzue barruan ainbeste amorru ta pozoï? Iñoren morroi izan zariela! Ez al dozue nortasunik? Or zuen gaiztakeria; errurik bako Gernika kixkaltzen dago. Zergaitik erraustu dozue Gernika?

Illuna gaiñ etorkigula ikusiz, Gernika sutan genkusanari agur itun tristea egiñaz, Arburu itxi ta beerako bideari ekin geuntson. Oldozkun jasten giñan, auturako gogo barik. Ezker-eskumako aretxak penaz mobiduten aize ariñak.

## «LAUAXETA» PRESO JAUSTEN DA

Esteban Urkiaga, «Lauaxeta», Bizkaiko olerkarietatik onena dozu. Asko idatzi eban itz-lauz eta bertsoz. Gizaseme ona, argia ta langillea. Bere aberria leialki maite ebana.

Gerraldian Eusko Jauriaritzakoa zan eta nagusiak sarri bialtzen eben ango ta emengo guda-oiñetara, komisario politiku lez, gauzak zelan joiazan ikustera. Nik lau-bost aldiz agurtu neban Kanpanzar, Intxorta ta Basalgo aldean, 1937-ko jorraillaren 25 baiño leen.

Gernika erreteak, tximista lez zabaldurik, entzute ta arrakaste izugarria izan eban mundu osoan, izparkarien artean batez be; ango ta emengo jazo zanaren barri garbiz jabetu nai,.eta bai eben kezkarik Bilboko Carlton otelean aurkitzen ziranak Jorraillaren 29-rako frankotarrak Gernika-n egozan. Alan be, an agertu zan Bordele-ko «Le Petit Gironde»-k bialduta, Jorge Bernard kazetaria, Gernika kiskalduan argazki batzuk atera naita. Axuriagerra-k aginduta, Lauaxeta-k lagundu eutson Gernika-ra.

Berebilla sarreran itxi ta ba-joiazan Batzar-Etxerantza; an etzan iñor agiri, ez gudaririk ez zaintzaillerik. Kale egalean, Andra Mari eleiz ondoan, itzulia egiterakoan, baiña, or aurrean soldadu mordoa; frankotarrak ziran. Biak jausi ziran atxillo, frantses kazetaria ta Lauaxeta. Ispitzat artu ebezan lenengo; kazetariak zirala esan

eben, baiña benetako arriskuan aurkitzen ziran. Queipo de Llano-k Sevilla-ko irratitik: «Periodista bat arrapau dogu, eta beragaz batera «separatista» bat. Arrapakin polita! »

Batzar etxera eroan zituen. Frantsesa, guzurrezko agiri batzuk —eurak ez ebela Gernika sutarazi, gorriak izan zirala, eurak euskaldunen uri santua ta jauregia begirunez ikusten ebela ta antzeko atso-ipuin eta guzur ederto biribildu batzuk— izenpetu azorik, aske itxi eben. Ez ostera Lauaxeta. Bata izparkari ta bestea aber-tzale zala jakiñik, Nabarra-ko 4-garren Iker-sailleko agintariaren eskuetan itxi ebezan. Euzko Alderdi Jeltzaleko zabalkunde-buritzat artu eben Lauaxeta. Gasteiz-era eroan eben ondoren, eta an espe-txe biurtutako karmeldar komentuan illabete bi giltzape emonik, bagillaren 25-an, goizeko 5,30'erdietan, tiroz illa izan zan Santa Isabel kanposantuko ormearen kontra.

Urteak geroago, 1985-ko urrillaren 8-an, neure senidarteko baten illetak zirala-ta kanposantu onetan nintzanean, datu batzuk eskatu neutsazan ango arduradun aspalditik danari, eta oneik emon eustazan: Obiratu egiña izan zala 1937-ko bagillaren 26-an, 21 saillean, 10-garren lerroan, 4-garren zenbakian. Andik aldatua izan zan gero, 1947-ko iraillaren 22-an, Estibalitz obi kalera, 73 zenbakira. Andik Mungia-ra eroan ebezan aren azur-ondakiñak 1977-ko abenduan.

Beraz, umezaroa igaro eban erri alai, beargin eta jakintsuan daukaguz gaur olerkari aundi fusilatuaoren gorputz ondar-mondarrak, Berbizkunde egun aundiaren zain.

## PICASSO ETA GERNIKA

Munduko istorian artistak batez be ez dau ezagutu bizi dalarik bere lanaren aintzaketa ain ots aundikorik. Era askotakoa ta txalo bizi goretsia danari eskintzen jakon omena. Arenaren ondoan ez dira ezer Migel Anjel-ek bere zartzaroan izan eban gurtza, orrela esan, ezta Rubens-ek ingurumari izan eban begirunezko lausengu aseena

be, Picasso, ogei urte doi-doi eukazala Paris-era joan zana, bizi izan dan mendean jaritxi izan da, gaur dana, izatera. Bere zartzaro kementsuak aro zoragarria nor biurtu dauskun artista izateko indar-adorea ezarri dautsa. Irurogei urte jarraian jenteak trumilka eza-gutu ta txalotu izan dabe sorpen izugarrizko margolari legez.

Dudarik bage, gizaldi ontako margarien artean bera dogu Margolari. Gaia tinkotu ta eder biurtzen dakian jainkotasun bat, esten dabe askok. Antz aldatuz milla itxura bestelakotuz jarten dauskuz, eder etea zoragarri. Olan, gaia aldatu bearrezko lanean, Picasso eldu da, leiakide barik, iñoren kerizpe barik, ertinausigoa, leentausuna jartera, marrazkintzaren, kolorearen eta itxurearen Minotaur izatera. Irudizko jeiñua dozu, Paris-eko «Grand eta Petit Palais»-en miretsi ta txalotua dana. «Trexpolariak» (1905), «Avignon-go Andereñoak» (1907), «Iru Musikuak» (1921) eta «Dantzea» pintatu ebazana. Eta «Gernica» be berak margoztu eban (1937).

Babesik ez eukan erri batekin egiñiko gaiztakeri izugarriaren aureran sumindurik munduaren aurrean garraxiz dagoan gizasemea da; agiri-agirian dei eta deadar dagi Gizadi osoaren aintziñean, eta berak burutu dagianagaz egin be; bere pintzelakaz eta bere erti-jeniu ezilkorraz. Picasso-k, adimen askatasuna zabalera osoan edegiz, ezeren oztopo ta muga barik bizi, protestaz dago munduaren aurrean, asarrekor eta bizi, egindako basatikeriaren aurka, errubako pertsonak ilten ebezan ideia ta pentsakera madarikatuen aurka, gizonen ekaitz antzuen aurka, eta gizaseme sentikor baten barne-miñarekin, gaurko Atila endekatu ta buru-galduen aurka. Eta bere Gernika pintatzen dau. Gizarteak euki daian beti begien aurrean, gaizkin erruduna jarten dau bizi-bizi...

Picasso izan zan, giza-ertilari naroari dagokionez, zuri ta baltz, marrazki-taiua egin ebana, gogorkeri osoa, politika zakar baten ondoren zitala, zaldar gaizto bat bai litzan, Europa-n erne ta aspaldi batetik bakez eta demokrazi txalogarrian bizi izandako erria orrela zuzituaz egiñiko experientzi nabarmena... Eta ona Picasso-k, basatiak doillortutako urian oraindik keetan egozan errekin nas-pilduen gaiñ sortu dau bere «Gernika». Eta euskal erri txikiaren

alperreko opari ori zala bide, egin eban bere iguiñezko protesta deadarra, istoriaren orrietan gizaldiak gizaldi iraungo dauana.

Euskaldun guztiok, bertoko ta kanpoko, zor dautsogu geure esker ona.

## GERNIKA, 30 URTE ETA ORAINDIK SUTAN

Andima Ibiñagabeitia-k, Elantxobe-ko seme euskaltzale jator-jatorrak, Caracas-en bizi zala, «Eman...» aldizkaria sortu eban 1967-an. Urte orretan, bigarren zenbakian (3-4), Gernika kixkali ebenetik ogetamar urte zirala-ta, lan au idatzi euskun.

«Bai, irakurle —diño—; ogeitamar urte betetzen dira aurtan, Gernika, euskotarren uri deuna erre zigutenetik eta oraindik ere sutan dago uri santua. Ez dira itzali espāñarrek biztu zituten sugarrak, eta ez dira itzaliko Arbola Santuak, azke ta libre, antxiñako gure asaben denboretan bezala, bere itzal ederra Euzkadi guztira zabaldu arte. Sutan iraungo du Gernikak, eta erri santuarekin batera, sutan iraungo dute euskotar guztion biotzak.

Badira gertakizun batzuk iñoiz aztu ezin ditezkenak eta orietako bat Gernikaren erreketata duzute.

Astelena zan. Oi bezela, antxen bildu ziran Gernika ingurueta-ko nekazari ta lugiñak beren abere eta lur oparoan bildutako uzta zorituekin. Antxen bildu ziran ez bakarrik nekazari ta lugiñak, baita alboerrietako millak lagun ere azokaren usaiera. Beterik zegoen uria, jendez ganezka. Naizta garai artan gudu gorria orruka ari Euzkadiko mugartean, Gernikan, astelen artan eta lipar batez beintzat, bakearen laztan beroa zan nagosi.

Bat-batean baña, zerua abarrots ikaragarritz bete zan eta gaindegietatik asi ziran erortzen, espāñar agintari zitalak aginduta, lerkaiak, burniz eta suz ernari. Su artu zuen Gernikak lau alderdie-tartik; millaka lerkai erortzen ziran erri gaxoaren biotzean eta ori gutxi bailitzan egazkin gaizkille aietarik, metralleta ilgarriak ari ziran, suzko segak bailirakean, uri artan bilduta zeuden euskaldun

errukarrien bizia epaitzen. Ango sarraskia, angu ilbearra! Erio, españarrak bultzatuta, bere uzta negargarria egittu ari zuen. Picassoaren margokia, Gernikan gertatuaren irudi epel bat besterik ezta.

Zertako berriz ere oroitu gertari deitoragarri oiek? Oraindik ere Gerniak darion garrean gure biotz otzituak berotzeko. Ondo zekien bai etsaiak zertan ari zuen Gernika erre zuenean. Gernika-rekin batera Euzkadi osoa ere erre nai zuten. Baña erratu egin ziran. Inoiz baino pizkorrago ari da euskal-gogoa bazter guztietan jeikitzen. Or dator gure gaztedi berria buruak zut, eta ikurriñak goi. Ez, Gernikako garrak ez dira oraindik itzali».

## GERNIKA-LUMO-REN AGIRIA MUNDUARI BERA ZUZITUA IZAN ZAN 50-GARREN URTE-URRENEAN

Gerniak idazti ontan aitaturiko errauste ikaragarriaren 50-garren urte-mugan, orduko illak batez be gogora ekarri naita, bertoko Udaletxeak eta alkateak, urrengo agiri au, 1987 apirilak 9, ostegunez, DEIA-n argitara emona, bialdu eutson munduari:

«Gernika-Lumo-ko Uri ta uritarrak, nik aginduz daukadan Udal demokratiku onen bitartez, erri guztiai ta mundu osoari geure aotsa zuzentzen ausartzen gara geure euskal izkuntza aspaldiko maitean, gizon-gisa begiratu ezkeru, negargarritzkoa dan urte-mugan.

Ba-dakigu Uri txiki bat gareana munduko besteen artean; be-  
rau, alan be, ospetsu egin izan dabe, naiko ospetsu, askatasun so-  
zio-politikuek ikurra dan Zugatzak lenengo eta gero, aipamen triste  
ta negargarritz, gaur gogoratzen dogun bonbaketa anker-basatiak;  
ainbat gizon eta emakume errubakok euren aragian ixil-gordean  
eroandako bonbaketa gaiztoa, artean be oraindik bizi diranen bake-  
oiu lez illezkor egiña.

Nai ta ez, uste dogu gogora ekarri bear dogula gaur bere basa-  
tikerian zitala ta ankerra dan jazoera au, ez zauri zarrak barriro

zabal-azteko, ezta istillu aspaldikoak barriztu ta luzatzeko be. Mundu osoaren aurrean egiñiko gomuta aundi onek dei bat izan nai dau batez be eta erantzun-bear bat geure aldetik, egintza basatia, dana dalako maillan, barriro burutu eziña, barriz gaurkotu ez daiten olako egitekorik.

Gernika saio bat izan zan, zerbait geroago ta tresna indartsuagoakaz, beste gudaketa baten mailladian, mundua «Martiri Uriz» erein ebana. Gernika aurkitzen da edu tristet ospatsu diran urien artean lenengo zerrendan. Gernikak erdi-argi itxi eban —baiña ez zentzatu ta galen-erazteko gero, indartsuen arrokeria puztuago egin eiten baiño— noraiño eldu leiken giza-teknika itsua, beronen itsumutilla gerrearen jainkoa danean; au ez bait da besterik gizonaren ezipiritua, gorrotoak eta erio zuzikorrak bere erpape daukana baiño.

Ezin gengike aztu —errialde bati be erresumin barik eta guztiakaz, txiki ta aztuakaz batez be, alkaturik dagigun arren— Gernika izan zala opagaitzat aukeratua, berau, Euskal-Erria zalako zelanbait erri txikia, berezia ta babes-bakoa, eta erri ontako geient-suak askatasunaren legezko gurariz arnas artzen dabelako. Diferentzi ori ta askatasun-sena sustraitik atera nai izan zan eriotzearen ego mezulari baltzak gure Uri Gernika-ren gaiñ suzko euria, baserritarrez batetako azoka egunez bota ebenean. Eta, illen odolaren eta autsen gaiñ, «guzur» aundiaren iraiña zabaldu zan, mundu zear edatu ta guzurtizat jorik egi tristea bizkar-gaiñ artu ta ondoren etorri jaken zapalketa latz-gogorra eroan ebenak.

Garbi itxi nai dogu, beraz, zuzenik-ezak, basatikeriak eta guzurak ez dabela jasaten aldiaren ibillia. Berrogetamar urte naikoa dira dauken maskara osorik kentzeko. Urte-urren neketsu ontan, ba, beranduko poztasun au nabari dogu, ildakoai zori txarrez bizirik ez bait dautse biurtzen, ezta bizi diranai eroandako neke-miñik kendu be.

Gure gomutapenak, gaurtik oroi-egintza sail batekin doanak, geure erri osoaren guraritik jaio ta Udaletxe onek babestuta ain zuzen, argi ta garbi adierazorik itxi nai dau bere asmoa ta elburua.

Naizta erri txiki bat izan, mundu bateko uritar gara; eta mundu au, bere aurrerapen ikaragarri ta uka-eziñai esker, aundi ta

zoragarri egiñik, gero ta arriskutsuago dogu, len susmatu be egin ezin gengikean neurrian: ba-dira oraindiño ta geituaz doaz errien arteko ezbardintasun zuzen-ezak, bestelakoak bai batzuk milloika gizakien gose aurrean, aserik dagozanak ortarakotutako gosea sarri; ba-dira oindiño ta geituaz doaz altsu diranak aul diranen gaiñ zuzenean tdo zearka egindako zapalketak, ideia naiz ekonimi bidez egiñak, edo-ta gerrara eroanik erri makalago diranak; laterri aundien arteko ar-emonak larritzen dira izkillu ta gudu-tresnak ugarituz, errialdeen artean latz-ikara zabaldu ta zuzitze bildurrak gizadia babestuko ba leu legez.

Ikuspegi izuiarri onen aurrean, guk geure oiu aul baiña erabagitsu adierazten dogu, au esateko: «Ez, naikoa da!» Ez daitezala berrogetamar, ez amar, ez urte bi bearrezko izan, berandu litzateke beti, giza-arrokeriaren geiegikeriak albora izteko; agintenaiak, geiago-irritsak eta norburua erakutsi-gogoak akulatzen ditun giza-dongakeriak uxatzeko.

Alkartasun errezena da bear bada oiñaze-aldian egiña; gureak, lurbira guztiko erriakaz egiñak, gizonak ekarritako ainbeste oiñaze bear ez dan eta zuzena ez dana, uxatu ta irrindu opa dau, Oroipena dagigun egun eta illabete guzti oneitan, gernikarren samintasun eta latz-ikarazko deadarrak entzuten doguz, eta bardin iges joan ziranen eiagorak, errien arteko bardintasun aundiago adierazo ta eskatuz, danak eskubide ta betebear bardiñakaz, kultura garatze bardiña ta orretan alkarri laguntza sendo ta beteagoa erakutsiz. Bego, azkenez, izkillu alorrean, adierazpen eta zentzun geiago, errazoiak lan geiago egiñez eta paso emonez garbi ta aske bakearen egun-sentiari».




Jose Antonio Agirre, Lendakari



# 77

Jose Labauria, alkate



Udaletxea

### III ZATIA

## GERNIKA KANTUZ GORATUA

«Erro-errotik gure griña okerrak *itzaliaz*, gure euskaltasuna indartuaz eta etxean eta kalean adiskide ta seme-alabai erakutsiaz, itxaropen argi-izpia ageriko zaigu berriz.

Iparragirre'k gizon bezela utsegite aundiak izan zitun. «Gernika'ko Arbola» ordea euskaldun guzientzako ikur eta sendagaitzat utzi zigun. «EMAN eta ZABAL ZAZU»-ren «mistikak» salbatu genitzake oraindik. Euskera begi gure ispillu ta izkillu».

Aspaldiko



## GERNIKA'KO ARBOLA

Urretxu-ko seme Jose Maria Iparragirre-ren dozu poesi au, urteetan zear euskal kantu biurtua. Musikea, barriz, Juan Maria Altuna, lekeitiar musikalaria ipiñi eutson. Iparragirre-k, Altuna pianuan ebala, Madrid-eko San Luis kafetxean abestu eban lenen-goz, 1853-garren urtean. Euskaldun sentipenez asetutakoa da olerki au.

Gernika'ko Arbola da bedeinkatua,  
euskaldunen artean guztiz maitatua;  
eman ta zabal zazu munduan frutua;  
Adorutzen zaitugu, Arbola santua.

Milla urte inguru da esaten dutela,  
Jainkoak jarri zuela Gernika'ko Arbola.  
Zaude, bada, zutikan orain ta denbora;  
eroritzen ba zera, arras galdu gera.

Ez zera eroriko, Arbola maitea,  
baldin portatzen bada Bizkaiko Juntea.  
Laurok artuko degu Zurekin partea,  
pakean bizi dedin euskaldun jentea.

Betiko bizi dedin Jaunari eskatzeko  
jarri gaitezen danok laster belauniko;  
eta biotzetikan eskatu ezkeror,  
Arbola biziko da orain eta gero.

Arbola botatzea dutela pentsatu,  
Euskal-erri guztian denak ba-dakigu.  
Ea, bada, jendea, denbora orain degu:  
erori gabetanik iduki biagu.

Beti egongo zera uda-berrikua  
lore aintziñetako mantxa gabekua.  
Erruki zaitez, bada, biotz gurekua,  
Denbora galdu gabe emanik frutua.

Arbola'k erantzun du kontuz bizitzeko  
eta biotzetikan Jaunari eskatzeko.  
Gerrarik nai ez degu, pakea betiko,  
gure Lege zuzenak emen maitatzeko.

Erregutu diogun Jaungoiko Jaunari  
pakea emateko orain eta beti;  
bai eta indarra ere zedorren lurrari,  
eta bendizioa euskal erriari.

## ARBOLA BAT

Karlista gudua galdu ondoren, ainbat euskaldun gelditu lurra  
jota, Foru, lege ta oiturak ondatu eutsezala ikusitik. Otxandioar  
oleskari bipillak etenbarik abestu eban zoritxar orren ondorena.  
1881-an Bilboko euskal Alkarteari donkitua.

Arbola bat zan Paradisoan  
Jaunak apropos jarria,  
mundu guztiak artu egion  
lotsa ta itzal andia;  
bere azpian bizitea zan  
Aita Adanen gloria;  
andik kanpora zer topau eban,  
ezpada negargarria?

Arbola santu aren azpian  
bizi zan, Zeruan legez,  
eukazalako atsegin danak  
eta nekerik baperez.

Ai! /begiratu baleutsa beti  
lotsa on eta itzalez!  
Mundua etzan gaur aurkituko  
onenbeste atsekabez.

Arbola bat zan Bizkaian bere,  
neure anaia laztanak,  
zeiñen azpian, pozez beterik,  
egoten ziran asabak;  
kerizpe zabal artan jarririk  
eginda euren Batzarrak,  
buztarri бага, nasai ta libre,  
bizi ziran bizkaitarrak.

Bere azpian umildu ziran  
errege Gaztelakoak,  
eta lekurik ez eben izan  
sekula barriz moroak;  
atzera gura badogu izan  
libre len giñan lakoak,  
itxi daiguzan erdaldunentzat  
erdaldun diran kontuak.

Aztu daiguzan geure artean  
izan diran aserreak,  
izan gaitean anaia eta  
euskaldun zintzo garbiak,  
betor guraso zarren fedea,  
betoz asaben legeak,  
bere negarrak leortu daizan  
ni jaio nintzan erriak.

O neure erri maite-maitea!  
Zakustaz triste negarrez,  
zure alabak euren buruak  
baltzez estaldu dituez,

trentza mardoak tiraka atera  
ta sutara bota dabez,  
gaur Euskaldunak dirala orrek  
ezin ezagutu leikez.

Ixildu ziran neskaten kantak,  
mututu artzain-txistuak,  
zelai zabal ta jolas-lekuak  
gaur dira basamortuak:  
arroak beera itxasoruntza  
doiazan errekatxuak,  
gau eta egun txilioz dagoz:  
ai, gara Gaztelakoak!

Bakarrik dakust pozgarritxo bat,  
euskaldun amen fedea,  
benturaz onek bigundu leike  
Jaungoikozko aserrea,  
eta zerutik jatsi barriro  
galdu zan libertadea,  
mundua mundu bizi dakigun  
Gernikako Arbolea.

## GERNIKAKO ARBOLEARI

Arrese-Beitia bere garaiko olerkaririk bizi gartsuena izan jakun.  
Asko idatzi eban poesiz, orduan ospatzen ziran konkurtsorik geie-  
netara bere lanak bialduta. Ainbat sari jasorik or eta emen. Au be  
saritu eutsoen 1886-an, Durango-ko jaietan.

Ez dot kantauko gizonak nozbait dabela ezautzen  
ez dala emen biotzarentzat poz osorik,  
ez dot kantauko gazteen lora zororik bere  
begi itxi baten dagozalako iragorik,

ez dot kantauko barri onaren lekuan orain  
aizeak egan dakarstazala ots tristeak,  
ezta aizea bera duin arin doatazala  
eni egunak, asteak, illak zein urteak.

Enoa bere jasotera gaur Euskal-erriko  
gizon andien doe argi ta birtuterik,  
gizaldioro dagoalako berau umantez,  
atx eta mendiz dagoan legeaz apaindurik.

Nok zeatz kontau zenbat gerrari leor ta urez?  
Zenbat lumadun eskribatzalla ain entzunak?  
Zenbat langin on kantari eta musika zale  
edozetara nausi direan euskaldunak?

Ez dot bere nai begi biok gaur eukiagaitik  
atsekabeen atsekabakaz negar baga,  
ez dot ez joko euskeldun lirau sentimentuzko  
otsakaz triste iñor jarteko ustez bada;  
ez da ori ez lira onegaz egun onetan,  
eregiteko gogoan dodan jasogeia;  
gaur dot niretzat eregigarri Euskal-errian  
oraindik zutik ikusten dodan Arbolia;  
kantau nai deutzut, zuri bai zuri Abe bizia  
zugatz danetan zu zareala erregea,  
kantau nai deutzut zu zareala Euskeldun lurra  
apaintzen dozun gomutagarri eskergea.

Zarealako bazter onetan gorde dozuna  
erri bat zeure kerizpeagaz ain librea,  
zeure semeak mendi ta atxez or eutselako  
arerioai beti itxiten arratea,  
Paradisuan eguan zugatz aren antzera,  
zuk dirudizu jakituria-dun Abea,  
zure barrutik ez jatzulako goruntz urteten  
jakituria zerukoaren Arbolea.

Zugan zugatz bi ikusten ditut or, Abe baten,  
o zugatz bikotx parebagako Landarea!  
Begotanduten zatxatazela bizi bizi,  
bata gorputza eta bestea arimea.

Gorputza zelan arima бага beti dan illa,  
autsa, errautsa, lur puska-puskat bakartxorik,  
o zugatz dontsu agurgarria! Lauburu бага,  
zer ziñateke erretako zur bat besterik?

Baña Lauburuak ipinten zaitu orren eregi,  
Lauburugaitik asi natxatzu gaur kantuan,  
Kristo baño len bere euskaldunak zirealako,  
fedegaitik kantetan ilten Lauburuan.

Lauburuetan emoten eben euren bizia,  
euren fedea eta legea zaintze arren,  
orrexegaitik erromatarren Jano-k ez eban  
adoralairik bapere euki inoz emen.

Lau milla urte Euskalerrriak badaukaz bere,  
Lauburuk bere beste ainbeste bardin ditu,  
aretx santua, jasoizu jaso, Lauburu gora,  
Lauburuduna beti erri au gorde egizu.

Zuregan dago euskeldun lur au personaturik,  
bere ispillu benetakoa dauka zugaz,  
zu zakusanak ikusi daike Euskal-Erria  
Paradisu bat dirudiala Arboleaz.

Zure frutuak ain dira bada osasuntsuak,  
arima eta gorputzerako adiutuak,  
aretx ezurrok foru maiteak esan nai dabez  
ta Jaungoikoa Lauburu orren lau besuak.

Nogaz bardindu ete zaikedaz zugatz bakarra?  
Nogaz zeurorren antzekorik bat ezpadakust?  
Nun topauko dot irudigei bat zuri deitzeko,  
zeu bakartxurik Lauburuduna nik bazakust?

Nun topauko dot lurra guztia aratu arren,  
topau ezinda baldin banator gaur atzera?  
Lauburu orrek gogoratuten deustazan deiak,  
noatzu Abe bardin bagea egitera.

Deituko deutzut zu zareala gure Erriko  
apaingarria, poza, ondrea, ta gloria,  
armada andi bildurgarriai oi zeuntselako  
unetaraño zuk beti sartu ikaria.

Deituko deutzut zatxakuzala torre sendo bat,  
zein ezin daben areriuak iñoz bota,  
euren olatu amorratuak direalako  
triskau, puskatu zure ondoa beti jota.

Deituko deutzut zu zereala aukeratua,  
landara eta arbola guzti-guztietan,  
zergaitik ez dan zure antzeko aberik iñon  
mundu osoan beste lekutan aurkietan.

Deituko deutzut gure anparua, gaur zareala,  
daroaguzan zorigatxeko egunetan,  
oneen ondoren baita dirautzut uste dodala  
nik kantetea gloriak zure kerizpetan.

Agur!, agur bai, Arbola utsik bedeinkatua!  
Sortu ziñean unetik zara beti zu or.  
Agur dirautzit, agur, agur! nik barriro bere,  
Jaunak zaitzala mundua mundu, zintzo jagon.

Aretx maitea, leiak errerik badozuz bere  
zeure orriak, igartuta gaur, ez da ardura;  
noz aretxari igarra bada noz sartu jako?  
Arrik, zerenik ta sitsik bere, noz barrura?

Gabetan otz ta egunez bero egiñagaitik,  
bero zein otzen kontra egingo dozu gogor,

euririk бага joanagaitik onen luzaro,  
Aretx maitea, ez da izango beti agor;  
agaitik, Aretx laztana, zukan ain sendo daukat  
itxaropena biotz guztitik nik jarria,  
Lauburu zeugan dozun artean ez dala ilgo,  
eta fedean ain gitxi jausi gure Erria.

Lauburu ori ortik jausirik ikusi baño  
naiago neuke atxok ikusi bera jausten,  
ene Jaungoiko euskaldunena, ez eizu itxi  
Euskal-errian orrelakorik gertatuten.

Beti euskeraz zaitugulako emen adorau,  
gorde egizu euskeldun danen Arbolea,  
Aretxa eta bere Lauburu direalako  
naste bagako euskeldun utsen banderea.  
Arren, gaur bere egingo al gaitu bedorrek batu,  
ama on batek umeak legez besapean;  
zorionakaz bizi gaitezen zorioneko,  
Arbola zutik emen daukagun bitartean.

## GURE ARBOLA GAZTEARI

Arrese-Beitia, santugille zala be, oparoa izan zan idazten; gitxi  
doguz arek beste idatzi ebenak. Eder jakon Gernika ta bertoko  
Zugatz biak, zaarra ta aren kimutiko gaztea. 1897-ko garagarri-  
llean Aretx gaztearen azpian irakurteko egiña dozu urrengo au.

Itxasoáren erditik iñoz  
farolen bati begira,  
pilloto larri ibilli dana,  
ontzia salbau ezinda;  
nekez ta larri zelan eltzen dan  
nai eban portu ta errira,

modu berean ni bere nator  
Arbola onen azpira,  
basamortutik gabaz ementxe  
ikusten neban argira.

Leiak gogortu arren goietan  
iñoz edurtza andiak,  
urtzen baditu ikutuagaz  
eguzkiaren begiak;  
zer egin daike gaur nire biotz  
bigun ta argizagiak,  
ikututean aurean dodan  
euskaldun izar biziak,  
agertu baño neure barruko  
sentimentu zar guztiak?

Arantza min bat dot biotzean,  
odei aztunak buruan,  
neure eztarri moteleko onek  
trumoi baten moduan,  
adierazi daian nai neuke  
tximistazoka munduan,  
zelan oraintxe sartu garean  
Arbolearen ortuan,  
edo obeto esan dagidan  
euskaldun Paradisuan.

Jakin begie gaur Aretx onen  
azpira batu gerala,  
euskaldun zarren seme zintzoak  
erdaldun bildurrik бага;  
maketo batek emendik bota  
egiñikoak bagara,  
gura dogula urtero batu  
dei egitera bertara,  
egin euskuna egin ebala  
nausi zalako indarra.

Jakin begie bere ezpata  
 gaur bada biar eztala,  
 jakin begie sekula baña  
 ez dala ilgo Euskara;  
 Arbola il bazan bere  
 seme bat emen badala  
 eta zelan dan berau orritsu  
 eta besagaz zabala,  
 bere azpian zarren Batzarrak  
 oraindik eingo dirala.

## GURE ARETXAREN KERIZPEA

Arrese-Beitiarena au be; 1887-ko garagarrillean gure Aretxaren  
 azpian egiña, diñosku berak.

Egiñagaitik mundu  
 guztia aratu,  
 au lako kerizperik  
 baña non billatu?  
 Nik beintzat nai ta nai ez  
 bear dot autortu,

Kanan euskaldunean  
 gaur nazala sartu,  
 eta biotz au zelan  
 ein jatan zatitu,  
 ez dakit bizitzeaz  
 zelan dan gelditu.

Ez dot iñon zapaldu  
 lur bat ain dontsurik,  
 Paradisuaren antz  
 geiago dabenik,  
 bertan daukagulako  
 Aretx bat zutunik,

mundu danak Arbola  
 Santua deiturik;  
 osterantzean, non da  
 beste Gernikarik  
 Arboleaz ainbeste  
 entzute daukanik?

Bere azpian barriz  
 zeinbat g'zaldian  
 batu ziran asabak  
 euren legegintzan;  
 eta nik gaurkoagaz  
 egon naz birritan

deitzera euren seme  
 nai dogula izan,  
 eta aurrera bere  
 urtero bai bertan  
 gura neuke anaiok  
 alkartu gaitezan.

## GERNIKAKO ARITZARI

Karmelo Etxegarai, ainbat urtez Gernikan Probintziko idazkari izana, gitxik daki olerkari izan zanik. Alan be, azpeitiar onek, Santander-en ikasle zalarik, poesi-mordoak idatzi ta argitaratu ebezan Donostiko «Euskal-Erria» aldizkarian, andik jaso da au 1888-ko uztaillaren 21-an egiña. Jose Manterola-ri eskintzen dautso, ta goiburu lez «Zazpi urteko doakabeak ez dute igartu Gernikako Aritza, ez eta ere itzali, Euskaldun guztiak berari dioten maitetasuna» dakar.

Euskal-Errian, zer gertatzen da?

Zergatik dago pozturik?

Zergatik daude lan utxalduak?.

Zeuden zelaia, apañik?

Zergatik daude txpri-taldeak

pozkidaz oso beterik,

alositsuzko soñu gozoak

alkarren leian kantarik?

Zergatik dira lore tartean

pozez gordetzen ibaiak?

Zergatik' bear likurtadunez

jantziten dira mendiak?

Zergatik dira gure gañetik

aldendu pizkor odeiak,

utzirik, bidal ditzala Febok,

gugan errañu biziak?

Mingarria zan len iturriak

egiten zuten murmurra;

naigabezkoa baso tartean

aizetxoaren surmurra;

negargarria gure lureko

aurren zizpuru samurra;

zirudien, ai!, gure biotzen

nagusi zala bildurra.

Aritzak zeuden ostorik gabe,  
zelai guztiak legorrik;  
mendiak ere beren kopeta  
jatxitzen zuten umilik;  
ikusirikan Euskal-erria  
samintasunez beterik,  
dolgaintzen ziran ibar gureak  
apaingarriak kendurik.

Zugaztietan kabia duten  
erretxiñolen kantuak,  
ziran tristuraz arkituten dan  
txoritxo baten lantuak;  
gure biotzak, entzunik aien  
Zizpuru negar mintsuak,  
bigundurikan gelditzen ziran  
penaren penaz lertuak.

Len naigabea, gaur atsegiña;  
zer zaigu bada gertatu?  
Zergatik dira gure nekeak  
ainbat batera gozatu?  
Zer ikuskerak, bada, gaur ditu  
Euskal-biotzak alaitu?  
Zergatik danok, penak azturik,  
degu pozkidaz kantatu?

Ikusi degu ostoz jantziten  
asirik Aritz maitea;  
ikusi degu, bai!, lora-motez  
berriro dana betea;  
Au ikusirik, biralirikan  
gure barrendik nekea,  
«Euskal-erria! —esaten degu—  
badatorkizu pakea».

Aritz ederra! loretu zaite,  
gal-gabe zure moterik,  
euskal arraza gelditu dedin  
otsare biziz beterik;  
ikusi zazu nola dagoan  
Euskara zarra goiturik,  
nola gauden gu, bere semeak,  
Ama biotzez maitarik.

Ikusi zazu zeru garbian  
euskal-artizar argia;  
ikusi zazu mugida gabe  
itsaso zabal aundia;  
ikusi zazu lorez jantzirik  
basoa, txara, zelaia;  
beretan pozez txiruliruka  
luma kizkurdun txoria.

Guztiak gaude pozez beterik  
Aitor-en erri dontsuan,  
esperantzaren argiarekin  
suturik poza barruan,  
esperantzaren izar ederra  
ikusi degu zeruan;  
artizar orrek zuzendaturik  
biziko gera munduan.

Ai!, nik banuke gizon argien  
etorri suzko naroa,  
kantatutzeko bear bezela  
zure kondaire gozoa,  
esango nuke zerala gure  
biotzen amets osoa,  
zuri dizugun naitera dala  
sortzetik gugan jaioa.

Esango nuke, zure naieraz  
euskaldun zarrak pozturik  
beren barruan zuten ausartza  
berdingabea suturik,  
joaten zirala etsaiengana  
bildurra zer dan azturik,  
joaten zirala, zaldun azkarrak  
buruzaritzat arturik.

Esango nuke, begiratzean  
zure garraio goitua,  
ikusitzean intzez bustirik  
egun-sentian ostua,  
zerutik dala gugana jasten  
aingeru baten kantua,  
esanaz: «Jaiki, poztu zaitezte,  
Aritza dago piztua».

Aingeru baten itzak dira, bai!  
or ditugunak aditzen,  
bada, gozaro zerutar batez  
berak gaituzte betetzen;  
gure biotzak maitasun aundi  
gartsu bat dute sentitzen,  
eta, non gauden ez dákigula,  
gera lurrean auzpezen.

## GERNIKA

Enbeita'tar Kepa, Areatza-Muxika-ko Urretxindorra. Abertzale izlari ibilli jakun Euzkadi zear, eta Usparitxa bere baserrian, lan artean idazle. Bilboko «Euzkadi»-n, 1913-tik aurrera, konta ezin-ala bertso eder argitaratu zituan. 1942-ko abenduaren 12-an egaztu zan bizitz obero gure Urretxindor kantari zolia, bere antzeko kantari txiki, ez gitxi, sendian itxirik. Erre baiño len egiña da olerki au.

Erri ospsu polit ederrak  
ludían izan arren aneika,  
guztietatik begikoena  
niretzako zeu zara, Gernika!

Erri polita, erri garbia,  
erri alaia, erri txukuna  
lau aldetatik begiratuta  
zeru txiki bat dirudizuna.

Zeu zara egiz antxiñatetik  
zuzentza-zelai jatorrizkua,  
gure asaben batzar-tokia,  
Lagi zuzenen gorde-lekua.

Euzkoen txadon kutuna zara;  
zeru ganga ta ortze urdiña,  
eguzki eta izar ederrez  
guztiz apainki Urtzi'k egiña.

Zeure ormeak mendiak dira,  
zure arpillak dira zugatzak;  
zure ondia zelai orlegi,  
argia lora zuri-gorritzak.

Zure jaupari euzko-sendia,  
zure idaztia lagi zuzena;  
izki danetan irakurten da:  
«Beti ta beti zuzentasuna».

Zure txauneskin bardin bagiak  
dira egizko euzko-txoriak;  
eta ez askok uste daben lez,  
mozolo besten lumaz jantziak.

## GERNIKA APURTUA

JEL-ORDE koplari errikoi au ez dakigu nor dan. J. M. Leizaola-k ainbat barri damoskuz bere lan «Acontecimientos del siglo XX en Poetas euskéricos» deritxonean Jose Zapirain eta Jel-Orde aztertuaz. Bizkaitarra dogu bigarren au, baiña onetzaz ez diño zer aundirik, 1890-an jaio ta Arana-Goiri-ren eskolakoa zala ta beronen 7 olerki argitaldu zirala Paris-eko «Euzko-Deya»-n, iru 1945-an eta lau 1949-an. Iparraldeko Be-Pirineoetan bizi izan zan.

Milla bederatzireun eta  
ogeitamasei urteren  
gomutapenak jarraituten dau  
ludijak diraun artien.  
Garagarrillan amazapitik  
amazortzi bitartean  
gudalburu ta txarrantxadunak  
guda oska asi ziran.

Gudazaliak izan zirian  
Franko, Keipo eta Mola;  
makinatxo bat gizagaxori  
atara jautzek odola.  
Gomutatzen dot Kalbosotelo-k  
esan ebana beñola:  
«España rota» izan atzedin,  
«España roja» oba zala.

Ikusi dogu «España roja»,  
baita be «España rota»,  
erri osoak itxi dituez  
auts biurturik erreta.  
Odol gorritan gañez egiñak  
makiñatxubat erreka,  
erabiltzeko aski ziranak  
bolua eta errota.

Euzkel-erriak ezpaleu izan  
guda onetan parterik,  
neure ustian etzan izango  
ezetariko kalterik.  
Aberitarren aurka zan,  
etzan geuretzat bakerik,  
naitezian atera giñan  
etzegon beste tarterik. •.

Egazkiñakaz etorri eta  
Gernika dana apurtu,  
emen bonbakaz sua emonik  
erre ta ikatz bigurtu.  
Basatikeri ori egiñaz  
jente guztia bildurtu,  
atzerritarrok aspaldi ziran  
ori egiteko; gertu.

Paxista oiek ekarri dabe  
askoren ondamendija;  
zorítzarrian egin ditubez  
makiñabat pikardija.  
Gizon illakaz estaldu eben  
baita Sollube mendija,  
egia garbi esan biar dot  
naiz eta kendu bizija.

Lemona aitxian izan genduzan  
gudaketá ain aundijak,  
egün aréxek ziriala bai  
oso estu ta larriják.  
Gogoz ta zintzo erantzun eben  
Euzkadi'ko gudarijak;  
paxistak gaitik zoritxar asko  
bajituk euzkel-erriak.

Ekin da ekin lortu euskuen  
Artxanda-ra igotzia,  
Ondarreta-tik Erandio-ra  
ausi euskuen eritxia.  
Pagasarri-tik bera jatxita  
artu euskuen atzia;  
arrezkeruan makiñabati  
bizia kendu dautsie.

Neure gomutan dabiltzaz beti  
aitona zarren esanak,  
urte luziak igaro arren  
aztu ezin daikezanak.  
Antxiña bere gudazaliok  
etziran izan zuzenak:  
aurretik eder, atzetik saldu,  
arpegi biko gizonak.

Guda beti galgarrija da  
neure aititai entzune,  
alde batetik ondamendija  
besterik barriz lizune.  
Gorrotoa ta erijotzia  
askok ondo dakizune,  
gauza guztijok olantxik dira  
ondo badaukat zentzune.

Ludiko gauzak okertu ziran  
eztaikit zer dala bide,  
zuzentasunik ez daguala  
ori ondo agiri de.  
Ementxe gagoz negar ta negar  
zer izango dan begire;  
makiñatxobat igarotzeko  
etorri giñan ludire.

Aldi oneitan ezta ikusten  
iñundik gauza zuzenik,  
ikusmen ona daukoen asko  
alkar-ikusi eziñik.  
Gaitzak soñian izanagaitik  
etxakot baña gizonik;  
gauza samiñak olerkietan  
JEL-ORDEK daukoz esanik.

## GERNIKA SUTAN

Nik goizean, jorraillaren 26-an, ikusi al izan neban egazkiñen lana. Norenak ziran? Nundik etorriak? Argia urratuz bat, an ebiltzan beintzat. Arratsaldean Gernika-n, eta doixtar egalariak ziran uri zoragarri ta baketsu au kiskali ebenak. Nik, Bizkargi ertzean urduri, ikuskatu neban sekulako erretea ta kiratsa. Errazoi ta zentzunbako ondamendiaren garraxia! Nire «Goiznabar» olerki liburuan daukazu amalauko au eta beste amabost bat antzeko.

Begi-aur zaitut, uri!, euskal eleiz zarra!  
Kiskal zakustaz dana, gar, errauts egiña;  
ilkor lerkaiz zaitue zanpatu zakarra;  
gaiñ bota dautzue, nasai, errekiña.

Eziñaren garrasi, eriotz-negarra  
zabal dituk edatu, doixtar egazkiña.  
Errugea dok zuzi —ire biotz txarra! —  
Nork iri, ai!, opako parkamen ariña?

Amaitu eziñeko eztanda gaiztoa,  
gordeleku billaka jenteen arrapala...  
Ifernu bizia dot Gernika osoa.

Joanak, azkenik be, doixtar sai gaizkiñak.  
Gaiñez gaiñ errukior da jasten itzala...  
Lazkor dira bazterrak, su-mendi egiñak.

## GERNIKA!

Xabier Iratzeder, gaur Beloke-ko abata, Donibane Lohitzune-n jaio zan 1920-ko urtarrillaren 4-an. Olerkari gotorra. Bere lana, batez be: «Biziaren Olerkia» (Bilbo, 1982), urtez urte argitara emon ditun 6 olerki liburuxkaren bilduma mardula. Mugaz andik bizi dalarik be, emengo gauza, ta jazoerak kezkatua dabilkigu.

Gernika!  
Zure kantu sarkorra  
entzun dut gau huntan:  
aditu izan nuen  
jadanik askotan:  
bozkarioz bihotza  
gainditzen zitzaitan.  
Gaur egin dut gogotik  
nigar ilunbetan...  
Gernika!

Gernika!  
Ikusten zaitut hilen  
herria iduri;  
etxe aurtikitz baizik  
ez zare igeri...  
Udaberria irriz  
dago munduari,  
harri beltzetan lore  
guti zait ageri.  
Gernika!

Gernika!  
Orai datza ohiko  
Kartago bezala,  
paret beltz andi batzu  
baizik ez dauzkala.  
Jazko Eskualdun-iri,

haren gorputz hila  
nigarrik egin gabe,  
nola ikus, nola?  
Gernika!

Gernika!  
Xorutzen, iluntzen daut  
hitz orrek bihotza.  
Mendek jakinen dute  
haren zorigaitza...  
Numantze ta Kartagoz  
ez gaitezke mintza,  
goraki erran gabe  
«Euzkadi-n, han, datza:  
Gernika!

## GERNIKA PUSKATUA

Basarri, Eizmendi'tar Iñaki, errexildarra, guda aurretik eta ondoren, beti bertso kantari bizi izan jakuna. Kazetari aspergaitz, egunero idatzi izan dau zerbait Donosti-ko egunerokoetan. Onen bertso-lanak, barriz, aldizkari, guztietan agertzen. Argitara emon liburuetatik bi: «Atano III» ta «Bertso-sorta». Gudu ostean Paris-eko «Euzko-Deya»-n idatzi euskun asko.

Milla bederatzireun ta  
ogei ta amazpia,  
euskotarrentzat urte beltz illun  
triste ta negargarria,  
auts biurturik utzi zutena  
Gernika zoragarria,  
eusko reliki maitatuenak  
gordatzzen zitun erria.

Pitxirik goxo ta kutunena  
zu ziñan euskaldunentzat,  
lur mardul ona eman baizendun  
Arbola maitearentzat;  
pentsatu utsez begiak ibai  
ditugu negarrarentzat,  
orra zer sari modu zeukaten  
etsai ankerrak zuretzat!

Apirillako illarekin zan  
ogei ta seigarrenean,  
ain justu ere peri-eguna  
astelen-arratsaldean;  
kale, baserri, millaka anai  
gizatasun ederrean,  
plaza inguruan arkitzen ziran  
lengo oitura zarrean.

Kanpantorreko ezkillak asi  
ziran *dinbiil danbala*,  
goiko piztien motor-burrunba  
entzuna zan bereak;  
emakume ta ume gaxoak  
kurrixka zeriotea,  
eriotzari iges nairikan  
nora jo etzekitela!

Bertsoz nork esan bonba txar aien  
indar gaiztozko danbarra?  
Osorik etzuten utzi beintzat  
bizi-leku bat bakarra;  
ta dana txetu zuten garain  
alde guztitik su-garra,  
erru gabeko gixaxoentzat  
**orra** or azken ederra!

Eunka ziran, bai, etxe jausien  
zakarpetan geldituak,  
ez jakin zenbat kale gorrian  
zearo erdibituak;  
inpernu ontan uzten gaituzte  
laguntza gabe galduak,  
ai, euskaldunen min oiñazerik  
ez du sentitzen munduak!

Bizi ziranak igesten zuten  
sutegi zakar artatik,  
ta egazkiñak tiro ta tiro  
eten gabe goietatik;  
kristau gorputzak alde batetik,  
beso-buruak bestetik,  
odol gorrizko itxaso artan  
etzan ikusten besterik.

Millatik gora izandu ziran  
arnasa utzitakoak,  
ez jakin zenbat txit zauriturik  
eri gelditutakoak;  
ta danetatik geien-geiena  
andrazko ta umetxoak,  
gerra txar ontan erru galantik  
izango zuten gaxoak!

Puska dituzte mendi ta erri  
apain eta maitekorrak,  
puska dituzte basetxe txuri,  
gure kabi on xamurrak;  
ta zirtzildurik kaletan utzi  
bai euskaldunen ezurrak,  
Alemani'tik gu txikitzera  
etorritako maltzurak.

Basati gaizto odolzaleak  
atzerritikan ekarten,  
tokirik zoragarrienari  
txikituta su ematen;  
auts egindako gure Gernika  
antzika dago esaten:  
«Franko ta bere agintzalleak  
zein biotz ona daukaten! »

España aundi bat egin nairik  
gerra latz ontan asiak,  
bere erririk ederren aiek  
zeuen aginduz autsiak;  
denbora junda gero damutzen  
zeraten pekatariak,  
zer griñetako jaunak zeraten  
badaki mundu guziak.

Ikusi zuten ainbat kristau on  
odol-ustu zituztela,  
ikusi zuten berdin gabeko  
pekatua zeukatela;  
ikusi zuten mundua kontra  
jeikiko zitzaietela,  
eta orduan zabaldu zuten  
«gorriak» egin zutela.

Ai; esaerak dion bezela,  
fededun da euskalduna,  
berak badaki zein ederra dan  
barrengo garbitasuna;  
itxoin, jaunak, bai, itxoi ta lasa,  
iritxiko da eguna,  
Goiko Jaunaren aurrean kontu  
eman bearko deguna,

Ezta, ez alperrikako izan  
or ixuri dan odola,  
pentsa oraindik emaitz ederrak  
ematekotan dagola;  
eusko gogoia armez ta indarrez  
ezin il leike iñola,  
Gernika erre ziguten baña  
zutiñik dago Arbola.

1937, **APIRILAK** 26

Mikel Zarate Lejarraga Lezama-n jaioz 1903-III-6-an, gazte zala azken arnasa emonik. Euskal idazle beroa zala, ainbat liburu euskerari buruzkoak itxi euskuzan. Baita «Bizipenen Bultzadaz» deritxon idaztia be. Arek laga lorratza ez da errez atzinduko.

Zeus txikiaren haundi izan gura.  
Agindu eroa, Indar frogantza.  
Zezen hegalarien mnarruma dantza.  
Inpernua dator gure zerura.  
Tximist lehertuen abiadura  
hasarre gorritan Gernikarantza...  
Hsi da, hasi da hiri triskantza  
eta garrasika dago mindura.  
Garrasi larritan ama, umea,  
altaren gorputz hil buru gabea;  
garrasika txori, oilo, burdina.  
Harri, ohol eta su irakina; .  
garrasiz herrien betiko lotsa,  
askatasunaren betiko hotsa.

## GERNIKA

Telesforo Monzon Olaso Bergara-n munduratu zan 1903-an, Eusko Jaurlaritzakoa, J. A. Agirre-rekin batera. Euskaltzale Zintzoa. Olerki liburu bi daukaz: *Urrundik* eta *Gudarien egiñak*. Gusto aundiko euskal idazlea.

Euskal semeak sumatu al zezaken  
zorigaitz aundiago?  
Bizkai erdia birrindu izan ondoren,  
Gernika sutan dago!  
Gauaz, Bizkai gain, ageri zitzaigun  
odoletan ortzia...  
Ta arri azpietan, artean, genun  
txingarretan erria!

Siñistu eziñik eldua naiz  
Gernika'raño gauerdi gariz:  
Erria su-argietan dago!  
Zelai ta bideetan... umeak lo!  
Anaia dabil anai billa,  
ta aitak arkitu semea illa!  
Beiak marruka mendi bidez...  
Andrak begietan negarrik ez!

Entzun, entzun suaren zarata...  
Odol-malkoa iduri txinparta!  
Baiña arrotzak alperrik dabilta:  
Zutik, besoak zabal, Zugaitza!  
Gernika ba'zan len gurea,  
orain Ludiak du berea...!  
Askatasun izenarekin  
Gernika'rena dala bat egin!

*Erriak:*

Dantza ta Guda mendi goietan...  
Aupa mutillak! Aurrera!

Bakea baitegu biotzetan,  
ez degu iltzeko beldurra!  
Euskalerriko mutil gazteak,  
—Aingeru, naiz ta Gudari—  
gorroto gabe yausiak dira  
mendigoietan kantari!

## G E R N I K A

### (Kontrakantua)

Oiartun-en jaioa X. Lete 1944-an. «Ez dok amairu» kanta taldekoa, asieran. Euskal idazle. Baditu poema liburuak: «Onduen gurpillean», «Bigarren poema liburua» ta abar.

Eguzki gorri bat  
bolkan gorri bat  
eguzki gorri bat  
gorri gorria.

Bolkanaren sabeletik eguzkia lehertuz  
ixuriz  
suzko orgasmoan libratuz  
barruko gar guztia.  
Horrela maitatu ginduzten,  
eta erdituak izan giñen  
harri gesalezko ohatze fiñetan  
altzairuzko maindire artean.  
Eta bataio pontean  
odol illun beroz  
konjuratu ginduzten,  
anaien odolaz  
izan giñen aitaren etxera erakarriak.  
Aleluia!  
Aleluia kantatu zuten  
labe eta sumendiek,  
aleluia aleluia aleluia.

Aleluia

errepikatu zuten asperen etsituz  
halabehar justiziasuaren  
aitonenseme tajuzkoek.

Malko bakan batzuen errekatxoak  
itsaso beldurrak irentsi zituen.

Ai, sumendien gorria!

Ai, eguzkiaren erredura indartsua!

Hobe ez begiratzea, erabaki zuten.

Hobe, bai, hobe  
ez jakitea, ez hestutzea,  
hobe, bai, hobe  
erabaki ziten  
ez hestutzea, ez jakitea  
ez begiratzea, erabaki zuten.  
Erabakirik zegoen.

Delirio bat izan zek ta,  
zorabiao,  
besterik ez.

Judutar zimelak,  
poloniar goseti,  
Hiroshimako zingurri ori,  
euskaldun fededun hain leial, hain zintzoak,  
delirio bat ornen,  
deskuido bat,  
ez besterik.

Barka, otoi. Ikas barkatzen kondairaren deskuidoak.  
Harri gesal grisezko ohatzetan  
erditu gintezten.

Burdinaren saporea destatu genuen.  
Eta azkenik atsegingarri gertatu zitzaigun.

Beti zenioten: borrokalari!

Eta errepikatzen: zuzen!

Baina burdin irakiñaren jabeen  
kodigo berean ikusten zintuztedan otoizten.  
Apalki miazkatzen zenduten  
aker zuriaren oinetako terziopelatua.

Suaren zai bizitu zerate beti,  
burdin zaurigarriaren nostalgian  
itsatsirik,  
iranagaz lilluratuak.

Ezin uler dezaket  
sekulan gerlarik irabazi ez duen  
herri gerlariaren historia.

Eguzki gorri  
bolkan gorri  
eguzki gorri bat  
gorri gorria.

## GERNIKAKO ARBOLA

Meñaka-n jaio zan Luis Baraiazarra 1940-an. Karmeldar. Maisutza ta euskal Filologi ikasturteak egiñak daukaz. Markiña-n, Mertzedeko Ikastetxean dago irakasle; euskal idazle jatorra, KAR-MEL eta OLERTI aldizkarietan idatzirik. Beronen liburu batzuk: «Salbabide eta Laguntza», «Euskal Herriaren Historia», «Bizar-gorri» ta «Hitzezko txirlorak», poema idaztia.

Untzorriak sustraituz  
zure ximurretan  
ezkata-sare latza  
larru-ixurretan  
ikusten zaitut, Haritz,  
lehenaren lorretan  
zahartzaroko irudi  
urtetsu horretan.

Asabak biltzen ziren  
zure itzalera  
herri-ohitura zaharrei  
zerien legera;

zu zinen bakezko ikur  
askatasun lera.  
Geroztik ezbeharra:  
Foruen galera!

Zure auhen tristea  
Euskadi-n entzuna  
kezkaz hartzen diogu  
hileta-zentzuna;  
Iparragirrek jasoz  
nigar-oihartzuna  
bertso-doinutan bildu  
zizun erantzuna.

«Gernikako Arbola»  
kantatuz ozenki  
dardara bat barnean  
zuten haiek senti;  
gero gartzelarako  
kantaria atxiki.  
Negar egingo luke  
hire amak baleki!

Munduz mundu darama  
berriko negarra  
berea esijituz  
diraueu deadarra.  
Mendez mende datorren  
iraupen-indarra;  
zuzpertzuko ote da  
gure Haritz xaharra?

## **AGUR, EUZKADI!**

Bizkaiko olerkari gotorra, Lauaxeta. Laukiniz-en sortua 1905-an. Euskal idazle ugaria. Bere idazti bi: «Bide Barriak» eta «Arrats-beran», poemak. Egin-egíñean be, Eusko Gobernuak bial-

duta, Gernika kiskaldua ikusi nairik etorren frantses kazetari bati  
laguntzera etorri ta ementxe jausi zan paxisten eskuetan, apirillaren  
29-an; Gazteiz-en tiroz il eben.

Agur, Euzkadi, Jaunak naroa  
Aberri eder argira.  
Neure negarrak jarion neuzan  
zeure mendiai begira.

Seme bat zeukan, baiña etsaiak  
kendu eutsoen biotza;  
soin ederrera ixuri jakon  
maietz bateko goiz otza.

Gurutz Deunari mosu egiñaz  
aldegin eutson mundutik,  
Kristoren gentza abo ganean  
loratu jakon gaztetik.

Jaunaren maitez, Aberri maitez,  
ez eban euki bildurrik,  
eta Zeuretzat zorion utsa  
opaldu eutson gogotik.

Euzkadi ona, zagoz betiko  
Kristoren fede betean;  
olan zoruna billauko dozu  
emen ezpada zeruan.

Eriotz deuna aurrean daukot,  
ziñistu bada, euskoa:  
Euzkadi azke izan daitean  
zaindu Josu-ren legea.

Eder jatazan euzko bazterrak,  
eder itxaso zabala;  
baña oraintxe ederrago jat  
eriotz onen itzala.

Gaztea nozu bizitz onetan  
t'ez jatan palta gauzarik.  
Jauna!, gogorra aldi onetan  
iges eitea lurretik.

Ezpedi egin neure oldea,  
zeure naia bai, ostera.  
Gogoa boa zero argira,  
gorputza lur illunera.

## THE OAK OF GUERNICA

William Wordsworth, inglesa (1770-1850), politiku ta olerkari. Oda laburrik arildu eban, baita Gernika-ri opatu eutson au be, emendik ibilli zan baten, itxuraz biotz-ikutua geratu jakin euskaldunon Zugatz zar onen aurrean. Askok itzulia da euren izkuntzetara: Bernard-Haller'ek frantsesera, Isidoro Fagoaga-k gaztele-rara, Karmel Etxegarai-k euskerara, ta abar.

Oak of Guernica! Tree of holier power  
than that which in Dodona did enshrine  
(so faith too fondly deem'd) a voice divine  
heard from the depths of its aerial bower  
What hope, waht joy can sunshine bring to thee,  
how canst thou flourish at his blighting hour?  
or the soft breezes from the Atlantic sea,  
the dews of morn, or April's tender shower?  
Stroke merciful and welcome would that be.  
Which could extend thy branches on the ground,  
if never more within their shandy round,  
those lofty-minded lawgivers shall met,  
peasant and lord, in their appointed seat,  
guardians of Biscay's ancient liberty.

(Berau euskeraz, K. Etxegarai-k itzulita)

Gernikako Aritza! Dodona-n, jente siniskorregiak uste zuenez, bere aireko uztai ziñaren gallurretik aditzen zan jaungoikozko boza bat, gorderik zeukan zuaitz ura baño indar donetiagokoa: nola, ondu izugarri oetan, loratu zindezke? Zer etxende, zer poztasun ekarri leikizu eguzkiaren argiak, Atlanteko itsasoaren artekaize bigunak, illargiaren intzak, eta Jorrailleko euri gozoak?

Gertaera txit eta pozgarria izango litzake, zuk, berriro, turra-ren gañean adar oriek zabaltzea, baldin zure itzalpean bilduko balira, len oi ziran eran, lege emalle prestu aek, eta eseriko balira, jaunak baserritarakin nasturik, beren zizelluetan Bizkaia'ren antziñako lokabearen egiazko gordetzalle bezala.

## EMEN DAGO

1945-ko jorraillaren 26-an, Donibane Lohitzun-en, Gernika erre eben zortzigarren urte-muga gogoratu nairik, gizaseme biotz-aundiko batzuk «Gernika» mogimentu errikoia sortu euskuen. Bake ta anaitasun ikur lez Gernikako Zugatza arturik, munduan zear sakabanaturiko euskaldunen barruak giza-argiz eta itxaropenez azkortu ta poztu-azo: orixe zan euren asmoa. Aldizkari onek, luzez bizi etza narren, lan bikaiña egin eban bere arloan. An datorrena dozu kopla txiki au be, Gordobil-ek izenpetua.

Emen dago  
purruskatuta,  
emen dago  
Gernika lo.

Emen dago  
Gernika lo,  
bañan Gogoa  
erne dago.

Emen dago  
ixil-ixilik,  
emen dago  
Gernika lo.

Emen dago  
Gernika lo,  
bañan Zuzentza  
txutik dago.

Emen ez da  
Gernika lo;  
gau ta egun  
emen dago  
Gernika so.

## «GERNIKA» -1950

«Gernika» aldizkariak, ia urtero, gogora ekarten eban 1937-an jalgiazo eutsoen Foru-uriaren negar mergatza. Irakur 1950-garren urtekoa.

«Urtero —diño— Apirilla'ren 26'an, euskaldunak Gernika'ko kiskaltzeaz oroitzen gera ta egun ontan, an, su ta gar pean il ziran gure errikidetzaz, oroitzapena berritzen degu.

Gogorapen illun ori biotz-biotzean sartua daukagulako, urte betetze bakoitzean gure barrena lasatzea bearrezko zaigu, ori bai asmo zuzenez eta gure uste onenak agertuaz.

Gernika'ko kiskaltzea Erri guzientzat ondoren txarrak izan bait ditu. Gizon anker eta gaizto batzuek uste izan zuten Euskal-Erría'n piztu zuten sua bertan itzaliko zala.

Zer axola zitzairen beste Errialdetako gizasemeai euskaldun batzuek beren etxe, lantegi, iri ta karriketan zeudela erre ta illagatik...? Ez ziran oartu gizarteko legea naiz onerako ta naiz txarrerako alkartasunean dagola. Batzuentzat datorrena goiz ala berant besteentzat ere elduko dala.

Pazistak besteentzat bakarrik nai zituzten su, odol eta malkoak azkenerako bere gañera erori zaizkie.

Gure naimen eta asmo guzien ganetik, ordea, justizia dago, Jainkoa'ren zuzentasuna. Onen bide eta goi-argiari jarraitzeko elkarrenganako maitasuna erein eta zabaldu bear degu gizonen artean.

Orregatik Gernika'ko gertaera ura izugarria izan arren, ez degu ortaz baliatu nai gure artean gorroto ta errak zutitzeko; Kristauak geran aldetik, txarkeriak baztertu ta onbidera biurtu ditzagun.

Gernika'ko Zuaitzak gar gorri ta lur gogorrean tinkatuak dauzka erroak, baiñan adarrak gurutze itxuran lau aldetara besoak zabaldurik daude.

Lenago, Aritzaren gainean zegoen gurutzea. Orain aldiz, Aritza bera da gurutze. Nai ta nai ez euskaldun guztiok Aritz guretzeko ortan elkartu bear degu. Or bait dago gure Batasun, Zuzen-bide, Goiburu ta Pakea».

## HAITZ-PEAN...

Iratzeder, Xavier Jean D.harce, euskal idazlarien artean oparoa ta fiña dozu. Ikusi, otoi, beronek Beloke-n ateraten dauan «Otoiz-lari» aldizkaria, itzez, marrakiz eta kolorez txalogarri. Idazti Deunari jarraituz antolatu dauskuz lan eder naiko: «Mortutik oihu», «Fededun arbasoa», «Salmoak...».

Haitz-ondo baten itzala, zeruaren zabala...  
Eta hara berehala eskual-kantuz nagola!

Mundu-bidetan ardura ezindua nabila;  
bilatzen dut holakotan haitz-pe baten itzala;  
eta hor, zerurat beha, berritzen zait odola,  
Euskal-lurren bihotzean sartzen banintz bezala.

Euskal-Herria zait niri nun-nahiko haitz-pea:  
hor dut hurrap-hurrapatzen eskual-lurren bakea.  
Haitz-pek arintzen, eskualtzen, pizten dure barnea  
eta, elgarri besarka, biltzen eskual-jendea,

Haitz-ondo baten itzala, zeruaren zabala...  
Eta hara berehala eskual-kantuz nagola!

Itsas-aldeko marruma, ihurzuri ximixta,  
iratxe-gorri zirimol, Haitz-ondo bat xut-xuta...  
Zatozte, eskual-anaiak, dugun dantza ta kanta  
eta, munduaren maitez, elgar mintza ta maita.

Eskual-Herria, nun-nahi, bihotzean dugula  
eta usu ezpainetan «Gernikako Arbola».  
Eskual-seme bakotxak bi Herri dituela:  
lehenik Eskual-Herria eta... Mundu-zabala.

Haitz-ondo baten itzala, zeruaren zabala...  
Eta hara berehala eskual kantuz nagola!

Kurutzea bezein zabal zauden Zuhaitz saindua,  
Erro guziez hurrupa eskual-lurraren sua:  
eta, hedoieri nausi, goiti altxa burua,  
Bake-eraile zabalduz munduz mundu Fruitua...

## ASTELÉN NEGARGARRIAN

Eusebio Erkiaga, Lekeition 1912-ko iraillaren 4-an jaioa.  
Euskal idazle fiña. Teatru lanak daukaz, eta nobelak: «Arranegi»,  
«Araibar zalduna», «Batetik bestera» eta gaiñerakoak.

Hor datoz,  
hor doaz.

Burrin burrun burrun hegan txori baltzak,  
hondamendi tresnak sabelak betean,  
gure Bizkaiko lur estuan ganean  
bildurgarri diran zemai gogor latzak.

Hor datoz,  
hor doaz.

Burdinazko txori gaizkin ereduak  
herria birrintzen erruki bagarik,  
goian eguzkia guztiz harriturik,  
euskaldunon kaltez gorrotoitsuak.

Hor datoz,  
hor doaz.

Zerutarra ez dan amurru zigorra  
txistu ta orroe hementxe da jausi:  
zahar, gazte, ume eta abelgorri  
heriotza dantzan azkeneko lorra.

Hautsa eta sua,  
oinaez oihua.  
Gaizkinak hor doaz..

ariman zikina, guzurra ahoan,  
Gernika hilerri bihurtu ondoan.

## AMAREN ITZALA

Eusebio Erkiaga. Euskaltzain osoa. Euskal idazle samurra, itz  
lauz eta bertsoz. Olerkari gisa kopla labur ondo landuak ditu,  
or-emen argitaratuak.

Munduko bide ontaz  
larri gabiltzala  
maiz ahanzten dakigu  
anaia garela:  
gizonak, iraintzeko  
ba du sen ergela  
denon gain bego zabal  
Amaren itzala.

Amaren itzal eder  
nik ahantz *eziña*:  
ama galduez geroz,  
enea dut miña:  
anai artean iñoiz  
asarre ba giña  
itzal orrek birlotzen  
kateak adiña.

Euskal semiak dira  
mundo bazterretan,  
adu gogorrak ditu  
elkar-urrunetan,  
urbil ez egotea  
badugu kaltetan:  
ez gauden euskaldunok  
elkar asarretan.

Itzal-Zuhaitz orretzek  
badu arnaria,  
amaren emaitz denez  
eme ta ezta:  
Zuhaitz sainduak anzo  
zitu berezia,  
barkatutzen dakien  
biotz-isuria.

Badugu oraindano  
Arbola maitea,  
guztion bihotzean  
zuzentza-bidea,  
ta are badugu Ama  
zoririk gabea,  
gure lan eske dugun  
Amatxo gurea.

Gauden, bada, euskaldun  
ta elkarren laztan,  
guti ba gara ere  
beti lehenean:  
zintzoak sari duke  
egunen batean,  
bat gaitezin anaiok  
Amaren aurrean...!

## G E R N I K A

Nemesio Etxaniz, apaiza, Azkoiti-n jaio zan 1899-an. Euskaltzain urgazle. Liburuxka asko atera zituan, «Amilaitz» izen-ordez ez gitxi. Idazle gozo-gozoa. Antzerkiak, irrati-lanak, dotriña-kan-tak, daneti dau ugari. Oneitatik asko «Lur berri billa» deritxon liburu rnardulean batu zituan. Olerkari fiña. Pablo Solozabal-ek jarri eutson musika.

### *Emakumeak*

Gernika, ilketa,  
su ta gar erreta!  
Andreak ta aurtxoak  
eriotzan igesika!

Gernika gaixoa,  
malkotan Itxasoa!  
Odolez gaiñezka,  
zoritxarpean itoa!

### *Gizonak*

Utzi, emakume, negar zotiñak,  
euskal biotza emen dago,  
Aritza bezin lerdin ta zutik  
gero ta indartsago.

Arrano beltzak alperrik datoz  
laiñoa baño gorago:  
euskal gudari guztiak erne,  
etsaiak purrukatzeko.

### *Guztiak*

Euskal gudari guztiak erne,  
etsaiak purrukatzeko.  
Iltzaille aiek iñoiz ez dute  
Aritzik lurperatuko!

Aitu, oiek, iñoiz  
autsi gure kateak!  
Piztu lengo legeak!  
Batera tu Euzkadi  
Askatasunean eta Pakean!

## AGUR, GERNIKA

«Txori Txiki» ezizenez idatzi zituan Bidaso'tar olerkari bizkor  
onek kopla politak; Paris-eko «Euzko-Deya»-n batez be. Guda  
ostean an bizi izan zanarren, emengo edozein gauza ta jazoeraz  
kezkatzen jakun.

Euzkotarra naun,  
ene Gernika,  
t'ez diñat eingo negarrik;  
zergaitik euzko  
biotz sendoak  
ez din ezautzen bildurrik.

Su ta gar naidin  
etsai gogorrek  
euzkotarrari bildurtu,  
oroitu gabe  
Erri txit au,  
iñork ez dula zapaldu.

Aundia bada  
etsai arrotza,  
aundiago don txikia  
gordetzen badu,  
euzkotarrak lez.  
Azkatasunan bizia.

Uste badute  
etsai arroak,  
aizela galdu betiko,  
esaten diñau:  
laster, Gernika,  
aiz ederrago sortuko!

Agur, Gernika,  
len ta gero  
AZKATASUNAN etxea!  
Agur, Gernika,  
euzkotar danak  
maite oi duten lorea!

Eure Zuaitzan  
itzal maitean,  
egin zizkiten asabak,  
gizontasunak  
agintzen zun lez,  
biar zituzten legeak.

Eurekin daukan  
Zuaitz azpian,  
gaur egin dizkin Euzkadi,  
lege berriak,  
Aurreramenan  
erakus gaiak arturik.

Eta betiko  
euretzako dan  
zuaitz azpian dizkiten,  
ondorengoak  
legeak eingo,  
iñoiz badira biartzen.

Etorri ditun  
etsai arrotzak,  
seme txarrekin batera,  
eure Zuaitzan  
azkatasuna  
su ta gar kikaldutzero.

Bañan alperrik,  
euzkotar batek  
daukan bitarte bizia,  
ludi guztian  
zabalduko din,  
eure Zuaitzan azia.

Ta Zuaitz ortan  
gaur arte bazun  
Azkatasunak kabia,  
gaurtik aurrera  
zabalduko din  
Ludi guztian argia.

Erakusteko  
gizadiari,  
zein ederra dan PAKEA,  
AZKATASUNA  
datorrenean,  
ZUZENTASUNEZ betea.

## GERNIKA

Adolfo Larrañaga Bilbotar onek olerki asko argitaratu dauskuz, gure gizaldi onen asiera-asieratik: «Euskal-Erria», «Euzkerea», «Euzko Enda», «Gernika» eta abar, gazteleraz beti. Bereak ditu poesi-liburuok be: «Canto a Sabino» (1933), «Cantos patrióticos» (1955), «Estampas vascas» (1939), «El Tejo y otros poemas» (1930), «Unai ona edo el buen pastor» (1954), eta besteak. Ona aren soneto bi, «Gernika» ta «Gernikako Su-garrak» (Las llamas de Guernica), neuk euskeratuta.

Gernika donearen lau auforta bipil:  
mutu-muturik datzan uriaren mamu  
bide ta kale zear zoratua dabil,  
atzetik doakola zabula bat usu.

Ate ausi baten daukala ur zirrikil,  
aitita onak eskuz loxintzen dautzu  
iru illeko birloba, ama illak zirzil  
bular gozo emon oi eutsana, leiatsu.

Elai baltz-orizkeak, sapaiko agatik  
loi-zotzez esegita abia eukana,  
maite billa joan da, egoak zabalik.

Ta zu, kua-kua itsa dozun belatzarra,  
eriotz-urretxindor alai zagozana...  
A!, zut dago Zugatza, eta zin goitarra!

## GERNIKAKO SUGARRAK

Euskaldunok gara gaur, burnia eratu  
ta Itxaro aberria eioko dogunak;  
ezets daigun, ba; apen sitsa urrindu  
irripar dagiskula Bakezko zorunak.

Zeintzuk doguz izkillu? Fede ta Askatasun:  
eskubideak barriz? Aldi amaigea:  
eta gure izkuntza? Itz zital bagea;  
gure Euskadi orduan? Mundua batasun.

Or gizon jakitunak, or Batzar orduan,  
urrezko lumea ikus irain atiaurrean,  
Malato-ko sastakai garaitze ondoan;

Gernika-ko su-garrak ikurdi geiñean,  
egiñen gurenak bai edesti orrian  
eta Gurutz-zugatza parkatzerakoan.

# GERNIKA

(Picasso)

Bilbon jaio zan Blas de Otero, 1916-an. Olerkari gotorra, ama-Seigarren erdal mistika ta gaurko poesi lirikua buztartzen dituna. Bere kopla liburu batzuk: «Angel fieramente humano» (1950), «Redoble de conciencia» (1953), «Pido la paz y la palabra» (1955), eta abar. Bizkaitar odola daroa-ta, bertoko edozer gauzak kezkatzen.

*Arbola botatzia  
dutela pentsatu  
Euskalerri guztian  
denak ba dakigu.*

*Ea!, bada, jendia!  
denbora orain degu,  
erori gabetanik  
eduki biagu.*

Emen naukazu  
zure aurrez-aurre Tibidabo  
berbetan ikusten  
falta jatan lurra «nire aberria Europa be  
bada ta indartsua» idatzi al izateko  
bizkarra dot eskintzen eta urrekaratzen jat  
olib-sunsa zurrupatuz noa  
Bara-ko Uztaiztik naz sartzen  
bertatik osoa urratua Iber sakona  
igoten dot  
besadaka itzuliz nator Zugana  
Bizkaia  
neugaz eroanik sustraitik maite zaitudazan Zugatz  
eta egun batean zerupearan suntsitua izan ziñana  
Ikus emen lorratzak  
barraia lorratzak  
didar sumiña

zinkurinka  
barabaiaz  
zezena jagia zuzenean entzun  
sumin iji-aja ez jainkorik  
O ñoiz bez ñoiz bez  
o nai dot nai dot ez daitezala nastatu  
samea arripean  
esnea betarte betean atzamarra  
umetxo onena  
o ñoiz bez ikus emen  
argia biziaren Zugatza dendunean ipinten.

## GERNIKAKO ARBOLA

Gabriel Zelaia (Rafael Muxika) Ernani-n jaio zan 1911-an. Industri-maisua Bertsoz ta itz askatuz idatzi dau, gaztelaniaz. 1947-tik, ia beti olerkiz jardun izan dau, oparo ta zorrotz. Sorprenean eta kritikan nabari da batez be. Gudaldian Gernika-z kezkatu zan.

Udabarrian zan, ogei ta amaseigarren urtean  
ni Gernika-ra eldu nintzanean.  
An egiten ziran mozorro-aoak  
gasen kontra. Nik ikusi bear neban  
—iker-zerbitzua— zer deabru zan jazoten  
edo-ta zer ebillen ondo.  
An, Gernika-n, egozan giputz indar  
barriak, eta nik irakatsi bear neutsen  
—iker-zerbitzua— giza-babespena,  
gasez erasotzean izan daikeguna.  
Ori zirudidan urrin-urriñekoa. Bear zana  
beteten neban arren, eziña zirudian  
iñok olako erasorik egin leikeanik.  
Urrin egoan guda-oiña. Osorik dizdiz zeruak.  
Eta guztia esan bear bait da:  
aspaldi ez neban bildoskirik jaten,  
ezta ogi zuririk be an lagez,

gibel aldean, jakiña.  
 Bakea bai zirudiala erreza! Ez ziran,  
 ez ulertzen sumiña ta guzurra.  
 Noizik-bein Gernikako gure Zugatza ikusten  
 joan oi nintzan, eta urdiña begiratzten,  
 egun guzti areitan iraun eban urdiña,  
 urdin zabal narea, epail laztana,  
 ezek nastu ezin leikela zirudiana.  
 Ai!, nok esan leikean  
 nik andik alde ta laster, burrunba Zeruan,  
 ixil ta osorik zirudian zeru atantxe,  
 arin eta orbage egoan Zeruan,  
 galtzairuzko eriotz basati baten latz-ikarak  
 zurrun-burrin ots ilkorra aterako ebanik!  
 Ai, nok esan leikean!  
 Ai, esaizu zeuk, al ba dozu, Gernikako Arbola,  
 esaizu zeure sustrai, adar eta umeakaz,  
 esaizu al dana bada ori,  
 esan aspaldiko euskaldunen askatasunaz,  
 errialde osoa estaltzen dauan osto-ikaraz  
 eta gareana, diño izan giñana esanik!  
 Ai, al bada, esaizu!

## AGUR, ARBOLA BEDEINKATUBE

Alde ta aurka, asko idatzi da bilbotar Unamuno-ri buruz. Gizon azkarra lau aldeetatik. Or dagoz bere liburuak; gaur Europa-ko filosoforik obtrenentzat etsia. Euskal odol bizi-bizikoa; gure lurretik iges eginda be, gure gauzak maite zituna: Gernika-ko ema kume on batekin alkartu zan ezkontzaz. Emen daukazun lan au, Bilbon burutu eban 1888-an. Berak idatzi eban lez damotzut, ezer kendu ez ipiñirik.

«Neguben igartuten da arbolia; orrijek jausten dire bere oñetara eta antxe Orbelak iñoarrik emoten deutzaz urtengo dirianak udabarrian orri barriai.

Gorputzarako irudije legez, bardiñ de izpirituarako berbakuntza. Arrapan euskubezan legezarrak, gure bizije zirala, biñan gorde daigun gure euskaldun arimie eta onetati urtengo jakuz barriro foruak, bai, urtengo dira justiziaren eguzkije argituko danian, betiko udabarriaren egunian.

Euskaraz berbeiten eben gure aitonen aitonak, gizon ayek etorri ziran, eztakigu nundik, narruakaz jantzijek, arrizko azkoriakaz armatubek, pakian lur gogor onetan laneiteko. Ayek baño gero' etorri ziran iberotarrak, zeltak, erromarrak eta arabiarak, ekarri eben bakotxak bere berbakuntza, bañan zapaldu zirian Euskalerriaren kontra. Euskarazko soñu gozoak entzun zirian Terranova-ko errijetan Colonen jayotza baño len.

Agur eiten zaitut, Arbola zarra, anaijen odolez eta amen negarrez erregatube, bañon Jaungoikoaren eskubagaitik bedeinkatube; Aretx maitea, ondatuten dituzuzana zure sustriyak lur onetan, gizon prestuben biotzakaz oratube, gorde gaizuz danok zure kerizpian!

Agur eiten zaitut, zuri pe bai, Gernika, erri ederrenena, Euskaldun danentzako erri santube, zugan Arbola santube dagolako; euskaldunen artean maitatube balin bazara, ayek baño nik maitatuten zaitut geijao, zergaitik eugan zorioneko amesetiek baño eztitut ikusi geijoa, eztiye baño egun gozuague pasa dot, eta zergaitik ementxe biotzaren biotzeko abijie dago!

Agur eiten Zaitubet, zuei pe bai, neure anaija laztanak! Dendora datorrena obie izango da; negu illunaren ondoren Udabarri agertu oi dabe!

Oraiñ arte esan deustube aurrera! ; bañan gure Arbolie bere buruba gure burnizko mendijek egin zituzan Jaungoikoaren zerua jasoten dabena erakusten deusku zerube esanda legez, gora, beti gora!



## AURKIBIDEA

|               |   |
|---------------|---|
| Sarrera ..... | 5 |
|---------------|---|

### I ZATIA

#### GERNIKA ZORAGARRI

|                                            |    |
|--------------------------------------------|----|
| Itz-erroa .....                            | 13 |
| Uriaren egoitza .....                      | 14 |
| Izkuntza .....                             | 15 |
| Jaiak .....                                | 17 |
| Kultur jaiak .....                         | 18 |
| Euskal festak .....                        | 20 |
| Nekazaritza .....                          | 21 |
| Periak eta azokak ... ..                   | 22 |
| Aste Santuko prozesiñoak .....             | 24 |
| Musikalariak .....                         | 25 |
| Gomutagarriak .....                        | 26 |
| Gernika, Istorian zear .....               | 28 |
| Gernikako Merindadea .....                 | 32 |
| Gernika uriburu .....                      | 34 |
| Batzar-Etxea .....                         | 35 |
| Zin-egitea .....                           | 38 |
| Dei-egillea .....                          | 40 |
| Batzarraren ospakizuna .....               | 41 |
| Zer dira foruak, legeak, usuarioak? ... .. | 42 |

|                                              |    |
|----------------------------------------------|----|
| Batzarretako izkuntza . . . . .              | 44 |
| Jaun Zuria, zer? . . . . .                   | 46 |
| Gatzaren auzia . . . . .                     | 47 |
| Lamiñak Gernika-n . . . . .                  | 50 |
| Aztiak . . . . .                             | 53 |
| Matxinada . . . . .                          | 54 |
| Gure ikurriña . . . . .                      | 55 |
| Karlista gerratean . . . . .                 | 56 |
| Alkateen batzarra . . . . .                  | 58 |
| Jose Antonio Agirre-ren zin-egitea . . . . . | 59 |
| Juan Karlos erregea, Gernikan . . . . .      | 61 |
| Karlos Garaikoetxea, Gernikan ... . . . .    | 62 |
| Jose Antonio Ardantza, Gernikan . . . . .    | 63 |
| Gernika gogoratzuz . . . . .                 | 64 |
| Areitza . . . . .                            | 65 |

## II ZATIA

### GERNIKA ERRAUSTUA

|                                      |    |
|--------------------------------------|----|
| Gernika kiskalia . . . . .           | 71 |
| Uri baketsua . . . . .               | 72 |
| Gaizkillearen errea . . . . .        | 73 |
| Ikusiak diardu kontatzen . . . . .   | 74 |
| Lenengo bonbak . . . . .             | 76 |
| Negarra ta intziria . . . . .        | 80 |
| Gabaz Gernika-n . . . . .            | 82 |
| Illak eta zaurituak batzen . . . . . | 84 |
| Beste testigantza batzuk . . . . .   | 86 |
| On Alberto Onaindiak . . . . .       | 87 |

|                                                                                              |    |
|----------------------------------------------------------------------------------------------|----|
| Jose Labauriak . . . . .                                                                     | 87 |
| Agirre Lendakariak . . . . . "....!"                                                         | 89 |
| R. C. Stevenson-ek . . . . .                                                                 | 91 |
| Hugh Thomas-ek . . . . .                                                                     | 92 |
| Nik ikusitakoa . . . . .                                                                     | 93 |
| «Lauaxeta» preso jausten da ... . . . .                                                      | 95 |
| Picasso eta Gernika . . . . .                                                                | 96 |
| Gernika, 30 urte eta oraindik sutan . . . . .                                                | 98 |
| Gernika-Lumo-ren agiria munduari, bera zuzitua izan zan<br>50-garren urte-urrenean . . . . . | 99 |

### III ZATIA

#### GERNIKA KANTUZ GORATUA

|                                                  |     |
|--------------------------------------------------|-----|
| Gernika'ko Arbola (/ . M. Iparragirre). . . . .  | 107 |
| Arbola bat (Arrese-Beitia). . . . .              | 108 |
| Gernikako Arbolean (Arrese-Beitia). . . . .      | 110 |
| Gure Arbola gazteari (Arrese-Beitia). . . . .    | 114 |
| Gure Aretxaren kerizpea (Arrese-Beitia). . . . . | 116 |
| Gernikako Aritzari (K. Etxegarai). . . . .       | 117 |
| Gernika (Enbeita'tar Kepa). . . . .              | 120 |
| Gernika apurtua (Jel-Orde). . . . .              | 122 |
| Gernika sutan (Aita Onaindia). . . . .           | 125 |
| Gernika! (X. Iratzeder). . . . .                 | 126 |
| Gernika puskatua (Basarri). . . . .              | 127 |
| 1937, apirilak 26 (Mikel Zarate). . . . .        | 131 |
| Gernika (Telesforo Monzón Olaso). . . . .        | 132 |
| Gernika (Xabier Lete). . . . .                   | 133 |
| Gernikako Arbola (Luis Baraiazarra). . . . .     | 135 |

|                                                             |     |
|-------------------------------------------------------------|-----|
| Agur, Euzkadi! ( <i>Lauaxeta</i> ) . . . . .                | 136 |
| The oak of Gernika ( <i>W. Wordswoth</i> ). . . . .         | 138 |
| Emen dago ( <i>Gordobil</i> ). . . . .                      | 139 |
| «Gernika»-1950. . . . .                                     | 140 |
| Haitz-pean ( <i>X. Jean Diharce</i> ). . . . .              | 141 |
| Astelen negargarrian { <i>Eusebio Erkiaga</i> } ....        | 142 |
| Amaren itzala ( <i>E. Erkiaga</i> ). . . . .                | 143 |
| Gernika ( <i>Nemesio Etxaniz</i> ). . . . .                 | 144 |
| Agur, Gernika ( <i>Txori Txiki</i> ). . . . .               | 146 |
| Gernika ( <i>Adolfo Larrañaga</i> ). . . . .                | 148 |
| Gernikako su-garrak ( <i>Adolfo Larrañaga</i> ). . . . .    | 149 |
| Gernika ( <i>Blas de Otero</i> ). . . . .                   | 150 |
| Gernikako Arbola ( <i>Gabriel Zelaia</i> ). . . . .         | 151 |
| Agur, Arbola bedeinkatube ( <i>Migel Unamuno</i> ). . . . . | 152 |